

"Itsasoarekin
harreman
estua du
Oñatik"



Soko Romano | Donostiako Untzi
Museoko zuzendaria | 8

Bebe izango da
Aretxabaletako
Andramaixetan

'Mozkorraren' igoera
ere egingo dute
herriko jaietan | 16

Jaione Isazelaiak asteon hartu du
Bergarako alkate kargua | 13



Tourretik bueltan, Markel
Irizarrekin berba egin dugu | 23



Kontzertua egingo du Leizek Oñatin;
Regueiro bateria-jolea bertakoa da | 24



KIOSKO TXIKIAK HUTSUNE HANDIA UTZI DU ELGETAN

San Roke kalean 27 urte egin ostean
kendu dute Elgetan horren
esanguratsua zen kioskoa; berria
ekarriko dute orain, handiagoa eta
modernoagoa. | 10



Oraingo astean ibili dira kioskoa hustu eta kentzen; gezurra dirudi utzi duen hutsune txikia ikusita, barruan zenbat produktu batzeko gauza zen. | LARRAITZ ZEBERIO

IRAILAREN
6RA ARTE,
PARENTESIA

Hurrengo GOIENA
papera irailaren
6an, egubakoitza,
argitaratuko dugu.
Ondo izan!

Autoak oporretarako gertu izatea komeni da

Aurrez ibilgailuari azterketa egitea da gomendagarria,
ezustekorik ez izateko eta segurtasunarengatik | 2



JAGOBA DOMINGO

Elkarbizitza eta
balioak landu
dituzte udako
campusetan | 21





Egoera desberdinean dauden gurpilak. | JULEN IRIONDO



Mugarriko Rafa Etxabe, balazten diskoak erakusten. | J.I.



Autoaren suspentsioa. | J.I.

Ondo joatea eta itzultzea delako garrantzitsuen

- ▶ Autoz egingo dituzte askok oporretako bidaiak
- ▶ Komeni da aurrez ibilgailuari azterketa egitea
- ▶ Ezustekorik ez izateko, segurtasunagatik batez ere

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Oporrak. Atsedean hartzeko garaia; toki berriak ezagutzeko; edo ohiko opor lekura bidaiak egiteko. Toki batera edo bestera, asmo bat edo beste bat izan, baina bidaiatzea izan ohi da askorentzat oporrek, berez, dakartena. Oraindik gaur, norberaren automobila izaten da sarri erabiltzen den

garraio-bidea. Eta inork nahi izaten ez duena burukominak izaten dira, ze opor hasierako amesgaiztoetan gaiztoena izan daiteke-eta automobilak botata uztea, bidaiak erdian.

Horregatik da garrantzitsua irten aurretik ibilgailuari azterketa egitea, horregatik eta segurtasunagatik batez ere, baita hel-

muga bitarteko kilometroak ahalik eta erosoan egiteko, eta poltsikoa aintzat hartuta ere bai.

Autoa tailerrera eramanez gero, puntu gehiago begiratuko dizkigute, baina horietako sei nabarmendu nahi izan ditugu hemen, garrantzitsuenak-edo direlakoan.

1. PNEUMATIKOAK

Pneumatikoak dira, segurtasunaren ikuspuntutik, ibilgailuan zaindu beharreko gauza garrantzitsuenak, haien bitartez atxikitzen zaiolako autoa errepideari. Eta pneumatikoan hiru gauza begiratu behar dira: marrazkiaren higadura maila, gomaren pitzadurak eta presioa.

Higadurari dagokionez, gurpilaren marrazkiak 1,6 milimetroko sakontasuna izan beharko du, gutxienez; gurpilak berak izaten du maila horretara noiz iritsi den abisatzen duen adierazle bat. Dena dela, izan liteke sakontasuna maila horretara iritsi aurretik pneumatikoei aldatu beharra izatea, hainbat arrazoiengatik.

Horietako bat da gurpila zaharra izatea: "Gomak pitzadurak dituen esan nahi du gogortuta dagoela, kristalizatuta, eta segurtasuna ez da berdina", dio Arrasateko Citroën Chapime tailerreko Ruben Lozanok. "Produktu guztiek bezala, iraungitzea dute gurpilek; bost urte izaten dira"; pneumatikoaren albo batean, borobil batean egoten da adierazita noiz egindakoa den.

Presioari dagokionez, aldatu egiten da automobil modelotik modelora, eta baita aurreko gurpiletatik atzekoetara edo darماغun kargaren arabera. Autoan itsatsitako pegatina batean aurkituko ditugu azalpenak: "Pisua-

rekin goazenean atzean presio handiagoa sartu behar zaio", dio Lozanok; eta hala egin behar da segurtasunagatik eta baita erre-gai kontsumoa zaintzeko ere: "Gurpilak ez badu behar beste haize, lurra ukitzen duen azalera handiagoa da, eta autoak indar handiagoa egin behar du". Baina presio gehiegi sartzea ere ez da ona, segurtasunaren ikuspegitik, autoak "boteak" egiten ditu-eta. Beraz, ez gehiegi, ez gutxiegi.

ESANAK

"Produktu guztiek bezala, iraungitzea dute gurpilek; bost urte irauten dute ondo"

RUBEN LOZANO | CITROËN CHAPIME

"Larritasun baten autoa kontrolatzeko suspentsioen egoerak ona izan behar du"

RAFA ETXABE | FORD MUGARRI



PARTE
HARTZEKO:
goienakluba.com
943 25 05 05



Banatu ditugu sariak
Orain, badatoz irailkoak. Zorte on!



Olioaren maila neurtzen. | J.I.



Argiak, zaindu beharreko beste puntu bat. | J.I.



Chapiméko Ruben Lozano, aire girotuaren sistema aztertzen. | J.I.

2. BALAZTAK

Behar den momentuan balaztek behar den bezala erantzun dezaten, ezinbestekoa da dituzten osagai denak egoera onean izatea; pastillak, adibidez. "Pastilla guztiz higatu eta haien burdina diskoaren burdinaren kontra geratzen bada, aberia handiagoa da, diskoa hondatu eta hori ere aldatu egin beharko litzateke eta", dio Ford Mugarriko Rafa Etxabek.

3. SUSPENTSIOAK

Suspentsioak, berriz, "oso garrantzitsuak" dira ibilgailuaren egonkortasunerako: "Larritasun momentu baten autoa kontrolatuko duzu suspentsioak ondo badaude, bestela ez", dio Etxabek.

4. OLIOA

Inportantea da behar besteko kopuruan edukitzea eta ihesik ez izatea, kalte handiagoak

ez daitezten gertatu: "Olio eta iragazkiak zaintzen badituzu behar den bezala, ez da hondatuko injekzio punpa, autoaren bihotza"; halaxe azaltzen du Mugarriko arduradunak.

5. ARGIAK

Egoera onean eta ondo nibelatuta eduki behar dira. Autoak daraman pisuaren arabera aldatu egin daiteke argiaren norabidea. Behera egiten badu gaizki ikusiko du norberak, eta gora egiten badu, berriz, beste noranzkoan datorrenari egingo dio traba. Auto barruan izaten da argiak erregulatzeko erruleta.

6. AIRE GIROTUA

Uda garaian eta azkenaldikoak bezalako beroekin garrantzitsua da, baita ere, aire girotua ondo edukitzea. "Makina batek ateratzen du automobileko gas zaharra, eta berria sartu, ondo hoztu dezan", dio Citroën Chapiméko Ruben Lozanok; "Bestela ere, bizpahiru urtean behin errebisatu egiten dugu; gasa bere ezaugarriak galtzen joaten da denborarekin".

Gidatzeko orduan, erosotasunean du eragina aire girotuaren funtzionamenduak –onak edo txarrak–, baina eroso ez joateak segurtasuna arriskuan jartzea ere ekar dezake: "Auto barruan 40 gradu badituzu, gorputza ez da gidatzeko moduan egongo".

Bidaia luzeetarako zenbait aholku

PRESTAKETA Prestatu ibilbidea. Bide motzena ez da beti azkarren egiten dena. Irten aurretik, ondo prestatu ibilbidea, aukera desberdinak kontuan hartuta. GPSa programatu edo erabili behar baduzu, abiatu aurretik egin, ez behin abiatu eta gero.

INFORMATU Errepideen uneen uneko egoeraren berri aurkituko duzu, adibidez, www.infotransit.es helbidean. Badira smartphonetarako hainbat aplikazio ere, informazio berriena jasotzeko.

DISTRAKZIOAK Ez hartu telefono deiak gidatzen duzun bitartean, eta ez ibili klimatizagailuarekin, ezta musika ekipoarekin ere. Utzi lan horiek albokoari. Saihestu eduki emozional handiko elkarrizketak.

ATSEDENALDIAK Bi orduz behin edo 200 kilometro egin ostean. Ez jarri iristeko ordurik. Atsedenaldiek izan dezatela 15 minutuko iraupena. Adi bidaiako azken zatiarekin; erlaxatu egiten gara sarri, eta handitu egiten da istripua izateko aukera.

UMEAK Dagokien jesarleketan joan behar dute. Eraman beti edatekoa eta pikatzeko zerbait. Mareatzen ez badira, ipuinak baliagarriak izan daitezke, baita DVDak ere, aspertu eta kexan has ez daitezten. Jarri leihoetan eguzki izpietatik babestekoak.

PREBENITZIOA Eraman automobileko beste giltza bat, badaezpada. Europako Batasunean ibilgailuaren derrigorrez zertzuk eraman behar diren kontsultatu. Ez egon zain depositua ia hutsik egon arte erregaia botatzeko, batez ere ez badituzu lekuko ordutegiak eta ohiturak ezagutzen. Hartu gidabaimena eta aseguru.

DOKUMENTAZIOA Eraman beti ibilgailuaren gidaliburua, edozein zalantza kontsultatzeko. Eraman erreskate orria; dokumentu honek erraztu egiten du erreskatea istripu kasuetan. www.hojaderescate.es helbidean topatuko duzu zure ibilgailuari dagokiona.

Iluntasuna, zailtasun bat gehiago

Gauetz asko aldatzen dira gidatzeko baldintzak; horregatik, kontuan izan beharreko garrantzitsuenak da arduratsuz izatea.

Argiekin joan arren, ikuspena ez da egunez bezain ona. Beraz, aurreko autoarekiko segurtasun tarte handitu egin behar da. Komeni da abiadura egokitzea uneen uneko ikus-eremura.

Gogoan hartu beharreko beste bat da kristalak garbi izatea. Kristal zikinean difuminatu egiten da argitasuna, ongi ez ikustea ekar dezaketen distirak eraginez. Oso garrantzitsua da, baita ere, sarriago atsedean hartzea, gauetz errazago nekatuko gara eta.

Auto barruan ahalik eta argi gutxien egon dadila. Zenbat eta argi txikiagoa barruan, orduan eta kontraste txikiagoa kanpokoarekiko, eta ikuspen hobea. Azkenik, argi luzeak erabili ahal den guztietan, aurrean auto bat gertu ez dugunean eta kontrako noranzkoan ere inor ez datorrenean.



Gauetz, bidean. | BLOGDELAAUTOESCUELA





Txistulariak Goikobalun, iazko mendeko erromeria batean. | AMAIA JAUREGIARRABURU

Antzinako erromeria irudikatu guran Zuztarrak Errotuz taldearen eskutik

Irailaren 14rako, Arrasateko Goikobalun egin dute egun osorako hitzordua

UBANE MADERA | ARRASATE

Aurreko mende erdira arte Arrasaten egiten zen erromeria berreskuratu guran, opor osterako, irailaren 14rako hitzordua egin du Zuztarrak Errotuz elkarteak.

Asmoa, 1950era arte ospatzen zen erromeria haren antzekoa egin eta, bide batez, ekimena Arrasateko Goikobalun izan zen gazteluarekin lotu eta hura ere aintzat hartu. "Arrasateko Goikobaluko

gaztelua Atxorrotzekoaren egoitza izan zela dio, adibidez, Sagredok. Eta entzundakoa da, baita ere, Atxorrotzetik bertatik Goikobalu ikusten zela, eta Goikobalutik Elosua", kontatu du Xabier

Zubizarretak, Zuztarrak Errotuz elkarteko kideak.

Elkarlanaren emaitza

Bada, historia eta antzinako ohi-turak aintzat hartu eta herriko hainbat kultura elkarterekin harremanetan jarri ostean, egun osoko egitaraua prestatu dute irailaren 14rako: "12:00etan Seber Altuben kalejira hasiko dugu, txistulari, trikitilari eta bestelakoek lagunduta, 13:00ak ingurura arte. Orduan, Herriko Plazan elkartu, eta Goikobalurako igorera egingo dugu. 15:00etan jarri dugu bazkarirako ordua (norberak ekartzen duena bazkalduko dugu), baina lehenago bertsoak eta bestelakoak ere izango dira. Baita Aramaioko sagardogileak, Ekin elkartekoek egindako taloak eta txosna bat ere. Eta arratsalderako joko eta bestelako ekitaldiak antolatuta gura ditugu, erromeriaz aparte, jakina; izan ere, elkarlanean oinarritutako ospakizuna izango da", zehaztu du Larraitz Trojaolak, Zuztarrak Errotuz elkarteko kideak. "Plan-teamendua da herriko kultura elkarte bakoitzak bere ekarpena egitea. Adibidez, bazkalostean Portaloia elkartearen eskutik kantuan egingo dugu...", gehitu du Zubizarretak. "Eta 18:00etan denok batera jaitziera egin eta Herriko Plazan, 20:00-20:30ak arte dantzaldia izango da; Goikobalura etortzen ez diren herritarrek ere ikusi dezaten egun horretan zerbait berezia izan dela herrian", bukatu du Trojaolak.



AHTren obrak gurean. | GOIENA

Aramaiotik Antzuolara, gurean AHTren aurkako martxa

U.M. | DEBAGOIENA

Atzo, eguna, Altsasutik abiatu ostean, gaur gurean izango da Abiadura Handiko Trenaren kontrako bizikleta martxa. Bihar arte izango da Debagoiengan, Donostiarako bidean segi aurretik. Gaur, Aramaio eta Angiozar bisitatuko ditu, Arrasate eta Bergara ere zeharkatuta. Hala, 10:45ean izango da Aramaion, *Aramaio: AHTren erraldoikeriaren erakusgarri* izenburuarekin, bertako obrak ikusi eta gero bazkaldu egingo dute, plazan. 15:00etan abiatuko dira atzera ere, Arrasate (15:30) eta Bergaratik (16:15) aurrera egin, eta Angiozarrera iritsi arte. Han, 17:00etan, *Angiozar bailara AHTren kalteen menpe: bizilagun baten azalpenak* izenburua duen ekitaldia iragarri dute. 17:30ean, Loidiko putzuan atsedendia egin eta 19:00etan da hurrengo hitzordua: *Batzarra: herri gobernua, Pablo Sastre (idazlea) eta Jose Angel Mikeo (Angiozarko auzo alkate eta batzarraren historia azterlaria)* izeneko hitzaldi-etzabaida egin, eta 21:00etan borobilduko dute eguna, afa-riarekin.

Angiozar-Antzuola

Bihar, zapatua, berriz, 09:30ean Angiozartik atera eta Antzuolarako bidea hartuko du bizikleta martxak. Eta 11:00etan, herritar batek *AHT eta Autobidearen obrek eragindako hondamendia* azalduko ditu Deskargako goigera aprobetxatuz. Handik Urretxura eginez agurtuko dute Debagoiena.

AHT eta beste

Mugitu! Mugimenduak *Lurra-aren alde, mugitu eta eragin!* lelopean antolatuta du "AHTren aurkako bizikleta martxa desobeditzailea". Antolatzaileen esanetan, "helburua da AHT salatzea, oraingoan bereziki lurraren alde mugituta"; hala, "AHTz gain beste proiektu txikitzaileak" ere salatu gura dituzte: "Frackinga, autobide elektrikoak, erraus-tegiak, eta abar", batzuk aipatzearen.

Ane Irazabal | Kazetaria

"Askotan, ohera joan eta ezin duzu lorik hartu, ikusi duzunagatik..."

- Ane Irazabal martitzenean itzuliko da nazioarteko berriemaile lanetara
- Arrasatear kazetaria Italia-Ekialde Hurbilean ibiltzen da berriemaile

A.T./U.M. | ARRASATE

Ane Irazabal arrasatearraren bizimodua ez da ohiko-ohikoa: nazioarteko berriemaile izaki, Egiptotik bueltatu berri da, oporrak Arrasaten egitera.

Sei hilabete eman dituzu Arrasatera etortzeke. Egipton izan zara tarre horretan?

Urtarrilean joan nintzen Israelgo hauteskundeak segitzera. Otsailean eta martxoan egon nintzen Erroman, Italiako hauteskundeak eta Aita Santuaren konklabea jarraitzen. Itzuli nintzen Palestinara Barack Obamaren bisita jarraitza eta maiatzetik Egipton egon naiz. Italia eta Ekialde Hurbil inguru horretan nabil saltoka.

Egipton ze errealitate bizi da.?

Duela bi urte eta erdi izan zuen iraultza deitu zen prozesu bat, non amaitu zen 30 urteko Mubarak diktadorearekin. Orain daude oso trantsizio demokratiko gorabeheratsuan. Batzuek diote hilabeteotako tentsio politikoak direla trantsizio demokratikoaren pauso bat eta beste batzuek diote

tentsio politiko baten ondorioz beste erregimen baterantz doazela. (...) Orain dago oso-oso tentsioz beteriko momentua, ramadama da, gainera (abuztuaren 10ean bukatzen da) Morsik (azken presidentea) atxikita segitzen du, eta Anaia Musulmanak dabilza euren boterea erakusten. (...) Oso zaila da jakitea zer gertatuko den.

Erraza izaten da nazioarteko berriak hona helaraztea?

Zaila izaten da, ze telebista edo irratirako izaten baitira minutu edo minutu eta erdiko kronikak. Eta ez dago denborarik testuinguruan sartzeko gertatzen dabilena; agian prentsa idatziak aukera gehiago ematen du horretarako, hausnarketa apur bat egiteko. Eta beldur hori izaten dugu kazetariok, ea gure familiakoek edo koadrilakoek ulertuko duten gertatzen dabilena, eta saiatzeko gara gure lengoia hurbildu eta ondo esplikatzen. Baina zaila da; egunerokotasunean jarraitzen ez baduzu gertatzen dabilena, salto asko daude eta galtzeko arriskua dago.



Ane Irazabal. | AMAIA TXINTXURRETA

"Israelen, Erroman eta Egipton egon naiz urtarriletik udara arte"

Ze u gustura zabilza nazioarteko berriak ematen?

Bai, ikasten nabilen bitartean argi izan nuen apustu bat egin nahi nuela nazioarteko kazetari izateko, eta beti egon naiz oso interesatuta Ekialde Hurbilean. Apustu egin nuen horra joateko, eta ni oso pozik.

Zela bizitzen dira tentsio uneak?

Kontrolatzen, eta distantzia mantentzen. Zu zaude egunerokotasunean eta bizi duzu gertatzen dabilena, baina kazetari moduan distantzia apur bat mantendu behar duzu, gauzak distantzia batetik kontatzeko, larregi barneratu barik. Askotan, ohera joan eta ezin duzu lorik hartu, ikusi duzunagatik, kontatu dizutena-rengatik... (...) Azkenean, gu kazetariak gara, baina baita pertsonak ere, eta horrek eragina du gugan, eta distantzia mantentzen saiatu behar dugu. Horregatik da ona tarteka hona etorri, distantziak mantendu eta pilak kargatuta, gero berriro ere itzultzeko...

Eta kargatu dituzu, ze martitzenean bazoaz, ezta? Nora?

Bai, uste dut Egiptora joango nai zela, ramadama amaitzen denean, eta gero ikusi zela eboluzionatzen duen Egiptoko egoerak eta beste herrialde batzuetakoak; ze azkenean Palestinan hasi nintzen, eta Palestinako eta Israelgo gatazka jarraitzen dut, Libano ere azkenaldian hurbiletik jarraitzen nabil, ze han gerra zibilaren mamua oso hurbil dago... ikusi egin behar zer gertatzen den.

Saudi Arabiako hezkuntza zentro bat kudeatuko du MEIk

- ▶ Hezkuntza zentroa kudeatuko du Mondragon Educacion Internacionalek
- ▶ 1.500 ikasle izango ditu eta Itsaso Gorriaren ondoan dago

L.K./T.M. | ARRASATE

Mondragon Educacion Internacionalek (Mondragon Unibertsitateak, Alecop-ek eta Mondragon Korporazioak sortutako elkarteak da MEI) Lanbide Heziketa zentro handi bat kudeatuko du Saudi Arabian. Beste berrogei enpresarekin lehian lortu dute Saudi Arabiako kudeaketa, ia urtebeteko lanaren ostean; eta pozik daude lorpenarekin, MEIrendako "aurrerapuso handia" delako, MEIko nazioarteko negozioen arduradun Juan Izetak dioenez.

Irailaren lehen egunerako martxan nahi du zentroa Saudi Arabiako gobernuak; beraz, egunotan buru-belarri dabilta Mondragon Educacion Interna-

cionaleko arduradunak zeregin horretan.

Maisu, ikasle eta bestelakoak Haiek jakinarazitakoaren arabera, hasiera baten lantalde txiki bat joango da Saudi Arabiara, zortzi eta hamar lagun artekoa, zentroaren zuzendaritza eta ardurak lanak egiteko, eta geroago langile gehiago ailegatzeko joango dira. "Jasoko dugu gobernuarengandik eraikina eta hortik aurrerako guztia gurea da: maisuak bilatzea, ikasleak bilatzea, ekipamenduak muntatzea...", zehaztu du Izetak.

1.500 ikasle

Saudi Arabiako gobernuaren helburua da hemendik bost urte-

ra 1.500 ikasle eta 100 langile izatea zentro berri horrek.

Bertako lantaldea herrialde askotako jendeak osatuko du. "Hemendik joango da ekipo bat, eta ekipo hori izango da garrantzitsua, egin beharko duelako besteak beste irakaskuntza eta metodologia eta hemengo jakinduria partekatu. Baina han bertan kontratatuko dira han inguruko irakasleak eta beste, ze irakasgaiak irakatsiko dira bai ingelesez eta baita arabiarrez ere", jakinarazi du Jone Ituarte proiektu-buruak.

Irakasgai praktikoak

Irakasgai praktikoak, berriz, askotarikoak emango dituzte: "Enpresagintza inguruan, edo komertzialak edo administrazioko



Juan Izeta, Jon Gonzalez eta Jone Ituarte. | MEI

ikasgaiak, automozioaren inguruan autoak konpontzeko ikasgaiak, elektronika, mekanika... eta azkenik elikagaien teknologien ingurukoak", azaldu du Ituartek.

Izan ere, asmoa da praktikan oinarritutako metodoa ezartzea, eta hezkuntza zentroaren eta inguruko enpresen arteko harremanak sendotzea.

Itsaso Gorriaren ondoan

Irakaskuntza zentroa Saudi Arabiako hegoaldean dago, Yeme-

nekiko mugatik 200 kilometrora, Asir probintzian, Itsaso Gorriaren ondoan.

Hain justu ere, lanbide heziketa hamar zentro eraiki behar dituzte bertan, eta horietako bat da orain MEIk kudeatuko duena. Aurrera begira gainera, Saudi Arabiako gobernuak beste 80 zentro inguru egin gura ditu, Mondragon Educacion Internacional enpresakoak baimonarekin daude beste esleipenen bat lortzeko.



Emausek Arrasaten duen denda. | GOIENA

%20ko deskontua Emausen, langabeentzat eta familia ugariarentzat

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Emaus Gizarte Fundazioa taldeko saltokiek %20ko deskontua emango diete langabeei eta familia ugariari; tartean, Arrasateko dendak (Nafarroa etorbidean) aplikatuko du deskontu hori. Asteon abiarazi dute kanpaina; *Doikuntza eta murrizketa kanpaina* deitu diote, bi hitz horiei "beste enfoke bat" eman nahi izan dietelako: "Zama eta gabezia gehien dituztenek arnas pixka bat har dezaten".

Dokumentazioa aurkeztu

Deskontua lortzeko, familia ugariari kide dela edo langabezian dagoela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko du norberak Emaus dendetan, eta "dagoeneko ohi baino merkeagoak diren prezioak beste %20 txikituko dira", esaten dute arduradunek. Hori bai, kontuan hartu behar da dagoeneko behar duten artikuluei ez zaiela %20ko deskontu hori aplikatuko.

Euskal preso eta iheslarien herriratzea eskatzeko kale agerraldiak deitu dituzte datozen egunotarako

Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea leloarekin, euskal preso eta iheslariak etxera ditzaten eskatzeko agerraldia deitu du Herrira elkarteak datorren eguaztenerako, uztailaren 31rako. Urbiako eguna da uztailaren azkeneko hori, eta bertan egingo dute agerraldia. 12:00etan da agerraldirako (ez igoerarako) hitzordua. Bestalde, gaur, egubakoitza, hileko azken ostiraleko agerraldirako dei egin du Herrira elkarteak, herriz herri.

Irailaren 20ra arte bidal daitezke argazkiak Goienaren lehiaketarako

Udako argazkien lehiaketa da Goienak antolatu duena; aurten IX. edizioa izango du, eta parte-hartzaileei sari bikainak irabazteko aukera ematen die

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Goienako argazki lehiaketan parte hartu gura dutenek gehienez bost argazki aurkez ditzakete (koloretan edo zuri-beltzean bietan) eta argazkiarekin batera jakinarazi beharko dira honako datuok: egilearen izen-abizenak, herria, harremanetarako telefonoa, argazkia noiz eta non ateratakoa den eta bertan zer agertzen den.

Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar, eta Debagoieneko edozeinek ahal du parte hartu, salbuespen barik.

Argazkiak zelan aurkeztu

Argazkiak aurkezteko hainbat bide daude. Posta elektronikoa erabilita helbide honetara bidali behar dira: *argazkiak@goiena.com*-era; edo Goienako Arrasateko edo Aretxabaletako egoitza batera ere eraman daitezke. Kasu horretan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan. Horrez gain, Facebook (*facebook.com/UdakoArgazkiak*) eta Twitter (*@udakoargazkiak*) bidez ere bidal daitezke.

Irabazleak zeintzuk diren urriaren 7an jakinaraziko da, asteleheneko *Goiena* paperean. Bitartean, argazkiak ikusgai izango dira irail hasieratik asteleheneko *Goiena* paperean (irailaren 9tik aurrera) eta *Goiena.net*-en.



lazko edizioako argazki irabazlea. | MIKEL SEDANO RUEDA

Herritarren botoa ere bai

Izan ere, Goienako kideez eta bailarako argazkilari profesionalak osatutako epaimahaiaz gainera, irakurleek ere aukera dute argazki bati botoa emateko blogean; eta argazki horrek ere saria izango du: Google Android sistemadun zazpi hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik. Botoa ematen dutenen artean, berriz, munduko kafeen otarre bat zozketatuko da.

Gainontzeko sariari dagokionez, berriz, lehena izango da Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala, 18-55 mm-ko objektiboduna, Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik; bigarren saria izango da bi pertsonarendako spa zirkuitua eta asteburuko menua Orioko Aisia hotelean

Arrasate Bidaien eskutik; eta hirugarrena, bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Udako kronikak, sarean

Bestalde, argazkien bitartez ez ezik, kontakizunen bitartez ere jarraitu ahal izango dira hainbat debagoienarren oporretako pasadizoak abuztuan. Kasu horretan, *Goiena.net* atarira jo, eta abuztuaren lehen hasi eta abuztuaren 30era arte, egunero izango da oporretako kontakizunak, proposamenak, anekdotak eta bestelakoak irakurtzeko aukera. Bada, parte hartu gura izanez gero, bidali zuen udako kronikak *berriak@goiena.com* posta elektronikora, eta sarean zintzilikatuko ditugu.

ZABALIK

MARIJO DEOGRACIAS
http://goiena.net/iritzia/



Lan egiteagatik ordaintzea

Akordioa gogorra da, baina lortu dugu langile guztiak salbatzea". Horrela iragarri zuten M4Ftik kaleratu behar zituzten langileek martitzenean. Eta pozgarria da albistea, bai horixe! Ekainaren 11n enpresak, *Eitb.com*-eko edukiez arduratzen zenak, enplegu-erregulazio espedientea aurkeztu zien 27 langileri. Hauek greba mugagabeari ekin zioten eta hilabetea pasata, Euskal Herrian barrena euren protesten berri zabaldu ostean, eta negoziazio latz baten ondotik, kaleratzerik ez gertatzea lortu dute. Ordaintzan langileek soldata erdira jaistea adostu dute. Garesti ordaindu dute. Eta, garesti ordaindu du baita *Eitb.com*-ek ere: hilabete batez behe-
era egin du bisita kopuruak (*Eitb.com* webguneak sare sozialetik ohi zuen bisiten %30 inguru galdu zuen ekainean, 107.559 bisita gutxiago); frantseseko eta ingelesko webguneak itxi dituzte; *Gaztea.com* atariaren berri-tzea ere dezente jaitsi da jende faltagatik, besteak beste.

Harrigarriena da, gainera, *Eitb.com* webgunearen aurrekontua EITB osoaren aurrekontuaren %3,13 izanik, murrizketarik handienak hortxe egin nahi izatea Euskal Irrati Telebista publiko zuzentzen dutenek. LAB sindikatuak argitaratu zuenez, %31koa. Pentsatzekoa da 1.000tik gora langile dituen enpresa publiko horrek baduela eragin hain kaltegarriak izango ez dituen aurrekontu partidak jaisteko beste aukeraren bat. Zergatik, beraz, Interneteko ataria eguneratzeaz arduratzen den lantaldea bazterrean laga nahi izatea? Hain justu, informatzeko erabiltzen den kanalen artean, hazkunde handiena duena?

Betikoek segitzen dute krisiaren ondorioak ordaintzen. Oraingoan, garesti bada ere, ordea, langileek lortu dute,aldi baterako, barkuari eustea eta kaleratzeak geratzea. Erakutsi digute bat eginda posible dela.

Lezioa gure egin dezagun eta udako oporretatik, dituzuenak, pilak ondo beteta ekarri bueltan; zerumugan iraila ere mobilizazio hilabetea izango dela ikusten baita.

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Futbolaren balioez berbetan

Ederra izan zen berriz ere futboleko jokatzeko botak jartzea. Joan den zapatuan izan zen, Debagoieneko Kuadrillen Arteko Txapelketan. Izan ginena ez gabela ziurtatu genuen Ibarrako berdegunean –ez diogu bero itogarriari erru guztia botako–, baina futbolak eman digunaz jabetu ginen gero, lagunarte giroan egindako afaloste ederrean. Jokalari izan gineneko garaiek gogoratzeaz bat –eta barre ederrak egin, noski–, futbolaren balioez egin genuen berba: konpromisoaz, diziplinaz eta elkartasunaz, besteak beste. Elkartasun horren adierazle gisa har liteke Aitor Rodriguesi babesa erakusteko izan genuen keinua. Hori eta askoz gehiago merezi duzulako, *Animo Aitortxu, denok zurekin*.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



GUTUNAK

Beruana

Dani Larrea
(Arrasaten bizi den antzuolarra)
Arrasate

Ez jat gehixe be gustatzen holako kontuekin ibiltzia. Baina hain barrura sartu jat... ezin ba zeoze eskribidu barik geratu. Kontua astelehenian hasi zan, *Goiena* jaso nebanian.

Mairua makurrarazi dute leitu neban notizia printzipala eta azpizan fotografia haundi bat: *Antzuolako batailoiko kideak, mairuaren aurrean, eta kapitainaren aginduetara, su-armen indarra erakusten*.

Irudixa ona zan, eskupeten sua ta dana ikusten zan! Baina moroik ez zan agertzen (moro dinot, oinurrenguan be halaxe leittu nebalako, belaino artian bazan be!). Hori bai, makurtuta-makurtuta zeen bakarrak Antzuolako soldauak zian, lehen illarakuak, eta bigarrenekuak tiro eitten.

Titular horrek ez dot uste Antzuolako alardian azken urtiotan izan dian aldaketiei mesede haundirik eitten dotsanik, baina hori hortan ibili eta dabitzanek argitu biheko leukie. Puntu.

Ez naiz aurten herrira arrimau, baina ez deixela inok pentsau akordau ez naizenik!

Hala ta be, ordezkari fina bialdu neban gabian pelota partiduak eta ikustera. Aitor, ez hauka saltzeko!

Zapatuan, propaganda apur bat eitten ibili nitzan Mondrauen, *Ez dot moztuko bizarra* nikixa jantzitta eta anedoktak kontatzen eta neure fotografia bat, kuadrillakuekin eta kainoia eruaten, harro-harro, ikusi nahi zebanai erakusten.

Maiñua sekuestrau zebenekua, "hi, Maiñu, aitortzen al dok gure aberrixa?", mokoluak zelako barriak eitten zittuen "cadáveres vivos, recuerdo de...", "pisa turbante, pisa más y mejor", "erretirate a los arkupes" eta holakuak entzunda.

Erra txapadia e, Xabi! Zapatuan Mondrauen Txistuleruen Eguna eta kalez kale ibili zian jaigiro ederrian. Halako baten ez zan ba bat Iparragirrerren (Joseba ez, bestia, urretxuarra) bertsuen doinua jotzen hasi. Kantatzen. Eta neri keinu eitten kantua jarraitzeko. Nik, mozolo honek, Basaldeko batek esango leukien moduan, bertsuak ganoraz jakin ez. Kriston amorrua emun zostan! Datorren urtian ez nau hola harrapauko ez!

920ko uztailan 26xa ei zan, Nafarruako Muez inguruan, antzuelarrak berandu allau ziala, benetan allau bazian, Nafarruako Erregiai laguntzia emutera, eta...

Berandu ez da izango gaur Ferrerrias kalia *Siempre es 26* mojito artian ospatzen dabitzanek jakin deixien horren jatorrixa ez dala Moncadako asaltuana eta bene-benetako jatorrixa antzuelarren ibilera hartan dauala, Umiñoko historialarixak bere doktore-tesian dotore-dotore azaldu daben moduan. Beraz, *Beti da 26*.

Nik neuk ez neuke nahiko bi herrixen artian kontu honen inguruan inolako hasarreik piztia eta horren seinale eta harreman sanuak mantentzeko, bukatzeko, proposamen bat ein gura dot: Antzuolako Futbol Taldia eta Mondrak konbenixua firmau deixien, hurrengo bost urtian Mondra Antzuolako Taldearen Klub konbenitua izan dain. Hola, gainera, Mondrak "alturan" entrenatzeko aukeria izango leuke. Tomaisto, aprobeitxau aukeria, Mondrako harrobixan kriston harribitxixak jaitez eta!

Ba, horixe, honi be beruana kendu bihar jakola!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Bergarako Udala

Oñatiko Udala

Arexabaletako Udala


Eskoriatzako Udala

Antzuolako Udala

Aramaioko Udala

Elgetako Udala

Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eskerrik asko!

Maria Gardoki

(Maria Jesus Legorbururen familiaren izenean)
Arrasate

Gutun honen bitartez eskerrak eman nahi dizkiogu GSR Debagoiena egoitzako lantalde osoari eta Arrasateko Ospitaleko Zainketa Aringarrietako taldeari.

Gure ama maitasun eta pazientzia guztiz zaindu eta samin ordu hauek errazagoak egiten lagundu diguzuelako.

Segi horrela, lan bikaina egiten duzue!

Sortu-EAJ elkarlanerako aukera

Ibai Redondo

(Sorturen Debagoieneko koordinatzailea)
Debagoiena

Azken bi asteotan astekari honetan izan dugun ika-mikak argi uzten du gai sozialetan oso urrunduta gaudela EAJ eta Sortu.

Gauza batean, behintzat, bat egiten dugu: Euskal Herria herri aberatsa dela... momentuz, eta Espainiak hondorutzen ez gaituen bitartean.

Gure uste apalean, dugun aberastasunarekin pertsonen oinarrizko eskubideak bermatzea da lehentasuna arlo sozialean: kalitatezko zerbitzu publikoak eskainiz; lana eta aberastasuna banatuz; etxebizitza eskubidea bermatuz, inor bere etxetik bota gabe; nagusiei errezetengatik bi aldiz kobratu gabe; pentsioen erreformari aurre eginez; dependentsian daudenak lagunduz; oinarrizko errenta herritar guztiei aitortuz; gazteei etorkizuna eskainiz;...

Ez dugu onartzen, sekula ez dugu onartuko oinarrizko eskubideetan murrizketarik eta lan baldintzen kaskartzerik. Zoritxarrez, hori da Madriletik datorkiguna eta kasu askotan EAJ aplikatzen ari dena.

Egia da, ez da horren erraza estatu baten menpe bizi eta honi guztiari aurre egitea, baina ez da edozer egiteko aitzakia ere. Gure uste apalean, EHBildu eta EAJ zenbait adostasunetara iristen bagara, askoz errazagoa izango da herritarren ongizatea lortzea. Hona hemen adostasunerako eskaintza nagusi bat: Euskal Estatua, burujabetza osoa. Euskal Herriak ez dauka zertan mendeetan gure herria zapaltzen duten estatuen menpe bizi. Are eta gutxiago gure herritarren bizi baldintzak ankerkeria osoz zapaltzen dituen espainiar estatu ustel eta atzerakoiaren

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

menpe. Nola egin dakiok aurre aste honetan Madriletik inposatu diguten erreforma laboralari eta beste hamaika inposaketari? Burujabetza osoa lortuta: gure eredu ekonomikoa bertan erabakitzeko, gure hizkuntza berreskuratzeko, gure hezkuntza sistema eraikitzeko, gure selekzioak izateko, lan harremanak bertan erabakitzeko, pentsio sistema propioa izateko... Hau bai izango litzatekeela Jaurilaritzaren leloak dioen *Basque Country estrategia* eraginkorra.

EAJk sostengua berresten dio bake eta elkarbizitzarako batzorde txostengileari

Juan Karlos Garitano

Arrasate

Euzko Alderdi Jeltzaleak Eusko Legebiltzarreko Bake eta Elkarbizitzako ponentzia mantendu eta bultzatu beharra berresten du, baita Gobernuaren Plana ere, etorkizunean bakezko elkarbizitza bermatzeko oinarri sendoak emango dizkiguten bi funtsezko tresna baitira.

Horren parean, berriz, blokeo jokabidea duten hiru alderdi politiko:

PP, inolako pausorik eman nahi ez eta ETArekin erabakia atzerazina dela uste duelako; PSOE, ezeroso, eman behar diren urratsek Espainian izan dezaketen eraginagatik; eta norabiderik gabeko ezker abertzalea, inolako planik gabe, izan dituzten hauteskunde emaitzek orria pasatzeko baimena ematen dietela uste dutelako, gertatutakoaren berrikuspen kritikoa egin beharrik izan gabe.

Sortuk ez du inolako eragozpenik aurrerantzean inolako ideia politiko edo estatuko arrazoi bat giza duintasunaren aurretik jarri behar denik onartzeko, baina iragana aztertzeo irizpide bera erabiltzeko esaten zaionean, beste alde batera begiratzen du.

Ez! Edozerk ez du balio

Mikel Biain Berraondo

(Gobernu Taldearen izenean)
Oñati

Lourdes Idoiaga EAJko zinegotziak uztaileko *Kontzejupetik* aldizkarian *Politikan ere, edozerk ez du balio* goiburupean argitaratutako zutabearen esaten dituenen aurrean EHBildu Udal Taldeak ondorengo adierazi nahi du:

1-Lourdesen arabera, "Alkateak eta Gobernu Taldeak... EAJren izena zabor edukiontzien erreketarekin nahastu dute". Akusazio honen aurrean esan behar dugu ekaineko *Kontzejupetik*-en edukiontzien erreketari buruzko herritar baten galderari hau erantzun geniola: "EAJko GBBk konbokaturiko PapEz plataformek boikotera deituz emandako prentsaurrekoak ez du giroa nahastu besterik egin testuinguru hori sortzean...". Erantzun berean argi uzten dugu "lotura zuzenik egiterik ez dagoela". Prentsaurrekoa EAJk antolatua izan zen konstantzia fisikoa daukagu interesa izan dezakeen edozein interesaturen eskura.

2-Zutabe berean Lourdesek dio: "Ekainaren 13ko edukiontzien erreketak egilea identifikatu ostean... Udal Gobernutik bertatik ere EAJren izena gertakari horiekin nahasten jarraitu dute. Horren konstantzia dugu eta hori oso larria da". Udal Gobernutik ez dugu horrelakorik egin eta dituen konstantziak eskatuta herritar batek gure taldeko zinegotzi bati horrelako komentarioren bat egiten entzun omen diola erantzun digu. Talde bezala zein norbanako bezala EHBilduko kideok publikoki horrelako adierazpenik egin izana ez da egia.

3-Halaber, oso larria iruditzen zaigu Ertzaintzak identifikatutako pertsona egiletzat azaltzea EAJko ordezkariaren zutabearen. Pentsatzen dugu kontrakoa erakusten ez den arte guztiok aitortua daukagun errugabetasun presuntzioa urratzen duela akusazio horrek. Gobernu Taldetik gaiarekin lotuta ateratako prentsa ohar bakarrean

errugabetasun presuntzio hau uneoro errespetatu da.

4-Lourdesek zutabeko goiburuan dioen bezala, *Politikan ere, edozerk ez du balio*.

Isurketak Deba ibaian

Josu Garitaonandia

(Equo Bergara)
Bergara

Uztailaren 5ean marroi kolorekoa ikusten zen ibaia; autoritateek burdin oxidoa zela esan zuten, baina ez dute erruduna aurkitu oraindik. Uztailaren 15 eta 17 artean, ibaian, bazter batzuetan kolore gris-berdexka igar zitekeen, eta horrek garai bateko oroitzapenak ekarri zizkidan burura: astero kolore desberdineko ibaia ikustera ohituta geunden eta denok genekien ze fabrikak zer egin zuen aste hartan; gaur egun, berriz, autoritateak muestrak hartzen dabilta eta ez dakigu zer gertatzen den. Ganora falta honen adibide negargarriena orain dela 2 urte gertatu zen: lehenengo, ahateak azaldu ziren hilda; eta gero, arrainak. Hondamendi ekologiko honen aurrean ez dute errudunik aurkitu, entzun dudana arrazoi bakarra da: "Lehorteagatik ur gutxi zetorren eta...". Arrazoi honek ni ez nau konbentzitu, eta, nire ustean, errudunak hauek izan ziren:

-Alde batetik, Estatuko Administrazioa, Epeleko depuradora ia hiru urte beranduago bukatzearen, ez baitzuten dirurik euren konpromisoak esandako epean bukatzeko, baina beste obra erraldoi batzuentzako dirua bazegoen: AHT, eta abar.

-Bestetik, Eusko Jaurilaritza, baimena eman zuelako kolektorean batutako Arrasatetik gorako herrien ur zikinak Epelen isurtzeko, jakinaren gainean egonda depuradora ez zegoela martxan eta ibaiarentzako ez dela berdina ordura arteko ohiko puntuetan ur zikina isurtzea edota denak kontzentratuta Epelen isurtzea. Toki hartatik Bergara aldera 2010eko udan kirats galanta zegoen, eta 2011ko udan, kiratsaz gain, hondamendi ekologikoa gertatu zen.

Beste autoritate batzuek maila txikiagoan ere euren

erantzukizuna dute hondamendi ekologikoan; bi udatan zehar kexa asko jaso zituzten herritarrengandik, jasan ezineko kiratsa zela eta. Ez zituzten behar bezala atenditu kexa haiek, baina etorkizuneko hondamendiak gutxitzeko asmoa badute, interes handiagoa ipini beharko lukete. Adibide bezala ipiniko dut Bergarako Udalean 2012ko urtarrilean aurkeztu nuen idatzi bat, ekarpenak eginez horrelako hondamendirik berritro gerta ez dadin; oraindik ez dut erantzunik jaso Udalaren aldetik.

Ez da ahaztu behar ibaia denona dela, ibai osasuntsua edukitzeak gizartearen osasunean duela eragina eta denon ardura dela zaintzea; beraz, kolore arraroa duela edota animaliak hilda daudela ikusten baduzue, deitu 112 zenbakira, larrialdietara; gai hauetarako duten protokoloa martxan jarriko dute. Asko dute hobetzeko, baina, oraingoan, daukagun aukera onena da.

Ganbara Abesbatzari zorionak!

Loli Ordoki

(Oñati Abesbatzaren zuzendaria)
Oñati

Bertze behin ere (eta zenbatgarrena da?), zoriondu beharrean gaude Oñatiko Ganbara Abesbatza, Austriako Spittal herrian, nazioarteko abesbatzen lehiaketan hirugarren postuan geratu delako. Gonbidatuak izatea berez ohore handia bazen ere, lehiaketan jasotako sariak punta-puntako abesbatza dela erakusten du.

Epaimahaikoez botatuko loreek are gehiago esaten dute abesbatzaren alde. Eta, gainera, sari honekin, nazioartean Euskal Herria kokatzen ere laguntzen duzue. Beraz, eta besterik gabe, Aitorri eta abesbatzako kide guztiei, nire izenean eta Oñati Abesbatza osoaren izenean, zorionik beroenak eta besarkada handi bat.

Jakinekoa zen

Mikel Aranzabal

Eibar

Tourra hasi baino lehen idatzi nuen: "Astebete baino ez, Froomek hiru astean egurra eman dezan, hura da-eta Tourra irabazteko hautagai nagusia. Bakarra, esango nuke. Contador ez dago okela jaten zuen garaian bezain fin...".

Eta halaxe izan da. Argi dago *puntutxo bat* gehiago daukala, maila bat edo hamaika maila gorago dagoela... *Prestaketa* ona. Ala?

Soko Romano | Donostiako Untzi Museoko zuzendaria

"Itsasoarekin, ontzigintzarekin... harreman estua du Oñatik; eragin handiko herria izan da"

- ▶ Oñatin ditu sustraiak Soko Romanok, Donostiako Untzi Museoko zuzendariak
- ▶ '1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea' erakusketa zabalik dago udan ere

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Donostiako Untzi Museoko zuzendaria da Soko Romano. Donostian jaio zen arren, segituan Oñatira joan zen familia bizi izatera, eta Soko hantxe bizi izan zen 18 urtean. Abuztuan ere zabalik izango da Untzi Museoa, eta oñatiarrak eta debagoiendarrak hara joatera gonbidatzen ditu.

Oso gazte alde egin zenuen Oñatik...?

Lehenengo Valladolidera eta gero Granadara joan nintzen, Artearen Historia ikastera. Museologia ikasgaia genuen, eta horrek mundu berri bat erakutsi zitzaidan; gero, bide horretatik jarraitu nuen.

Eta gero, aukera polit bat izan zenuen...

Ikasketak bukatu nituenean, Foru Aldundiari beka bat eskatu eta Frantziara ekomuseo bat ezagutzera joan nintzen. Orain 30 urte, ekomuseoak oso interesgarriak eta oso berriak ziren, eta horrelako proiektu bat ezagutu gura nuen nik. Hiru hilabete eman nituen Frantziako 100 biztanleko herrixo baten. Han konturatu nintzen gauza bat teoria dela eta beste bat errealitatea. Asko ikasi nuen.

Gero, beste urte bete Parisen izan nintzen, Arte eta Tradizio Popularren museoa. Museo klasiko bat zen, 100 langilerekin; oso museo handi eta inportantea. Han konturatu nintzen ondarea zer den, ondarea babestea, ikerketa... Gero, Mundu Arabiarraren Museora joan nintzen, inauguratu berria eta oso arkitektura berritzailearekin. Han ere asko ikasi nuen.

Nola izan zenuen Gipuzkoara etortzeko aukera?

Itsasoarekin lotutako museoa antolatu nahi zuen Foru Aldundiak eta nirekin akordatu ziren. Oraindik bekarekin nengoen Frantzian. Esan zidaten etortzeko eta ikasi nuena hemen praktikara eroateko. Horrela ailegatu nintzen Donostiara, eta Jose Mari Unsain historialariarekin lanean jarri nintzen; gaur egun ere elkarrekin zuzentzen dugu Untzi Museoa. Taldea egin zen museoa sortzeko eta muntatzeko, orain dela 23 urte. Lehenengo hiru urteetan museoa antolatzen ibili ginen; eraikina bageneukan, baina hutsik zegoen eta edukiz bete behar zen.

Untzi Museoa lantalde oso bat gara, ez neu bakarrik. Diputazioarena da, eta gu enpresa txiki bat gara; beti lehiaketa publiko bidez zuzendu dugu.

Zer dira zuretako museoak?

Niri museoak asko gustatzen zaizkit, asko. Herri edo hiri batera joaten naizenean, museoak ikustera joaten naiz. Museo batek asko esaten edo esplikatzen du herri bati buruz: ze museo mota dauden eta zeintzuk ez dauden, ze erakusketa egiten diren, nola zaintzen dituzten museoak... Asko esplikatzen du herri bati buruz museo batek. Denetariokoa gusatzatzen zaizkit: Metropolitan, Louvre... baina xumeak ere bai: auzo baten dagoena, herrikoa, herri edo auzo horretako jendeak egindako eta babestutako museoak. Izan ere, dirua behar da museoa egiteko, baina gogoia ere bai. Ni hunkitu egiten naiz museo xume baina ondo egindakoekin. Eta asko ikasten dut, izan ere, horrelako gauzak ikusten ditudanean, museoak zergatik gustatzen zaizkidan gogora ekartzen didate. Niretako, museoak pasio bat dira.

Udan ere zabalik izango duzue erakusketa interesgarri bat Untzi Museoa...

Bai; 1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea delako erakusketa daukagu. Oso proiektu handia da eta bi zatitan dago: bat San Telmon eta beste bat Untzi Museoa. Erakusketa hori Pedro G. Romeroren proiektu bat da, bere ikuspuntutik egindakoa. Berak egiten duen erreflexio bat da: biolentziari buruzko erreflexioa, nola ikusten duen berak ze gertatu zen Donostian 1813. urtean. Eta berari gustatzen zaio pieza historikoak gaurko piezekin, Arte Ederretako bideoekin, erretratuarekin, argazkiekin... bata bestaren aldamenean jartzea. Ez da erakusketa historiko bat. Erakusketa jendeari pentsarazteko da, ez da bakarrik ikusteko; bakoitzak pentsatu dezan ze gertatu zen Donostian, eta biolentziaren inguruan ze gertatu zen eta ze gerta daitekeen.

Erakusketa San Telmon hasten da eta Untzi Museoa bukatzen da, eta gure eraikina oso aproposa da erakusketa hau jartzeko, izan ere, gure eraikina frantsesek eta gero ingelesak erasotu zuten, baina museoaren eraikina zutik geratu zen eta gu ere oso harro sentitzen gara horretaz. Eta parte hartzen gabilta, ez bakarrik erakusketa hori hartzen. Adibidez, abuztuaren 31n, Donostiako Alde Zaharreko elizek kanpaiak joko dituzte, eta guk ere oso kanpai zahar bat daukagu eta horixe joko dugu.



Soko Romano. | DONOSTIAKO UNTZI MUSEOA

"Museo guztiak gustatzen zaizkit; handiak bai, baina xumeak ere bai"

"Biolentziaren gainean pentsarazi nahi du erakusketak"

"Oñatiko artxihoan itsasoarekin lotutako dokumentu asko daude"

"Oso inportantea da niretako Oñati; oso urte bereziak bizi izan nituen han"

Bisita gidatuak ematen dituzue, ezta?

Bai; izan ere, oso erakusketa bereziak dira, oso kontzeptualak. Orduan, bisita gidatuak ematen ditugu, ze ikus daitekeen esplikatzeko. Eta Donostia inguruan ibilbidea ere ematen dugu, Alde Zaharretik buelta emanda. Oso ibilbide polita eta interesgarria da.

Krisia igartzen zabilzate Untzi Museoa?

Bai, gu ere ukitu gaitu krisiak. Aurrekontu aldetik murrizketak izan ditugu eta hor ari gara, poliki-poliki, buruari bueltak ematen, erakusketen edo proiektuen epeak luzatzen, elkarlanak egiten... Gizartearen zatia da Untzi Museoa eta, gizarte krisian badago, museoa ere bai.

Gainera, jendeari ez zaio gauzak ordaintzea gustatzen. Gure prezioa 1,20 euro da; eguenetan eta langabeendako, doakoa da sarrera. Igartzen gabiltza, baina nik beldurra neukan jaitsiera oso handia izango zela, eta ez da hala izan; hortxe-hortxe, iazko zifretan gaude. Beraz, gu oso pozik gaude.

Urte asko dira Oñatitik joan zinetik. Zer da Oñati zuretako?

Asko da. Umezaroko oroitzapenak, eskolakoak... Udan Usakora joaten nintzen, eta gogoan dut zelako hotzak ziren ur haiek! Aitak lehenengo Zaharren okingegian egiten zuen lan, gero pilatan, eta ni bere bila joaten nintzen txikia nintzenean. Gero, gaztetako Guria tabernako lagunak ere gogoan ditut... Bai, bai, oso urte bereziak izan ziren niretako Oñatin bizi izan nintzenekoak. Eta ama oraindik Oñatin bizi da eta ni Oñatira joaten naiz ama bisitatzen. Beraz, Oñati oso inportantea da niretako. Eta joaten naizen edozein lekutan, ez dakit nola, baina oñatiar bat topatzen dut beti! Askotan, haiek ezagutzen nauten ni lehenengo.

Zergatik gomendatzen diezu oñatiarrei Untzi Museoa bisitatzeko?

Oñatik eta itsasoak harreman handia dutelako. Hor daude Oñatiko artxihoak; balearekin, ontzigintzarekin, merkataritzarekin... lotutako dokumentu asko eta asko daude han, eta gai horiekin, Kanadarekin, Islandiarekin... harreman handia du Oñatik. Selma Huxley ikertzailea orain dela gutxi omendu dute eta hark 20 urte eman zituen Oñatiko artxihoak ikertzen. Herri txikia da Oñati, baina eragin handia izan duena.

UXARTE

Jatetxea • Ostalua • Igerilekua
Udala Auzoa - ARRASATE
www.uxarte.es



Etor zaitez uda giroaz gozatzera!



Agorrosin ostalaritza

Boni Laskurain 21 / BERGARA
Tel.: 943 77 70 30

Eskaintza

- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.

Plater konbinatuak: ostiral gauean Ordaindu 1, eraman 2



Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egunetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

HERRIAK



Julian Markiegi udal brigadako bi langileren laguntzarekin kioskoa husten. | L.Z.



Ilara kiosko aurrean, joan den abenduan. | LARRAITZ ZEBERIO

ELGETA

Kiosko aldaketa Elgetan

- ▶ Hutsune handia utzi du kiosko txikiak; aurreko astean kendu zuten berria ipintzeko
- ▶ Julian Markiegik abuztuaren 28an inauguratuko du berria; handiagoa eta modernoagoa

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Kiosko txikiak utzitako hutsunea ez da Elgetan oharkabea pasatu. 27 urte egin ditu San Roke kalean, udaletxearen gerizpean, eta, herriko kiosko bakarra izanik, erdiguneko paisaian elementu garrantzitsua zen.

Aurreko astelehenean erretiratu zuten zegoen tokitik. Guztiz hustu, zimendua apurtu eta teilatutik lotuta altxatu zuten airean. Kamioian kargatu eta eraman zuten.

2013ko abenduan onartutako aurrekontuan agertu zuen Udal Gobernuak kioskoa aldatzeko asmoa. 12.000 euroko diru-lerroa bideratu zuten egitasmo horretarako, eta iritsi da unea. Oxel Erostarbe alkateak jakinarazi duenez, irailerako egongo da prest kiosko berria.

Handiagoa eta modernoagoa
Ondo amortizatu dute kiosko txikia Elgetan; ekainaren 1ean bete ziren 27 urte Julian Markie-

DATUA

27

URTE

1986ko ekainaren 1ean zabaldu zuen kioskoa Markiegik. 27 urte eta 71 egun egin ditu zabalik.

gik zabaldu zuela, eta ia egunero eman du zerbitzua. Berria modernoagoa izango da, eta aurrekoa zegoen toki berean jarriko dute. Kubboo K1 izeneko modelo da, eta neurriak honakoak dira: zabalera 2,40 metro, garaiera 2,73 metro eta sakonera 2,40 metro.

Aurreikusita dago kiosko berria astelehenean iristea. Gero, egokitzapen lanak egin beharko dizkiote: dagokion espazioan finkatu, distribuzioa erabaki, apalak eta gainerako altzariak ipini,

argindarraren instalazioa konektatu... Abuztuko lehenengo astean egin nahi ditu Udalak lan horiek guztiak. Julian Markiegik erabaki beharko du zer eta nola nahi duen.

Gozoki-saltzaileak esan duenez, kiosko berria oporren ostean zabalduko du, abuztuaren 28an. Tarte horretan ez du gozokirik salduko. Guztiz oporretan, ordea, ez da egongo: bezeroek goizero aurkituko dute herriko plazako arkupeetan prentsa saltzen.



ELGETAKO UDALA

KIOSKO BERRIA Toki berean kokatuko dute Kubboo K1 modeloko kiosko berria. Aurrekoa baino handiagoa eta erosoagoa izango da. Gutxi gorabehera, azalera bikoitza izango du. Udal arduradunen esanetan, astelehenean iritsiko da. Abuztuko lehenengo egunetan apalak eta beharrezkoa izango duen instalazioa egin gura diote.

JULIAN MARKIEGI | KIOSKOKO SALTZAILEA

"Kiosko berria handiagoa izango da, eta aukera gehiago emango dizkit horrek"

Pertsona estimatua da Elgetan: fina da lanean, eta zintzoa tratuan. Esan digunez, urduri dabil egunotan.

Pena eman dizu kiosko zaharra kentzeak?

1 Formulakoa zen, txikia baina oso jatorra. Berria handiagoa izango da bai luzeran bai zabalera, eta horrek aukera gehiago emango dizkit. Baina ez dut oraindik erabaki argirik hartu. Eguneroko martxak esango du hori. **27 urteotan asko aldatu da eguneroko martxa kioskoan?**

Ez pentsa! Umeak ume beti, eta nagusiak nagusi. Joera bera da beti.

27 urteotan une berezirik gogorazten duzu?



L.Z.

Akaso, euroaren etorrera. Bizpahiru hilabetez bi diru mota izan genituen zirkulazioan eta merkatariorik egin genuen banketxeen lana. Zorarena

izan zen: bezeroek pezetekin ordaindu, eta guk euroak itzuli. Baina pasatu zen hura ere!

Krisiaren eraginik nabaritu duzu?
Gozoki salmentan, behintzat, ez.

Eta gozoki berri asko irten dira?
Batzuk bai, baina betiko klasikoak hor daude: Chupa Chupsak, aroak, masustak, marrubiak...

Herri txikia izanik, bezeroak ere betikoak izango dira, ba.

Gogoratzen dut kioskoa zabaldu nuen lehenengo bezeroa Xabat Leñizbarrutia izan zela. Azkena, berriz, Nerea Canelo izan da. Herri txikia denez, elkar ezagutzen dugu.

Ezagutzen dudan gozoki-saltzaile bakarra zara umeei gozokiak saldu aurretik meriendatu duten galdetzen diena.

Bai, beti. Eta askok pentsatzen dute nire buruaren kontra ari naizela, baina argi daukat: lehenengo, merienda.

Etxe kaleratzerik ez gertatzeko, inplikazioa eskatu diote Udalari

Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformaren mozioa aho batez onartu zen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Etxe-kaleratzeen errealitate gordina udaletzeko osoko bilkuren aretora eraman zuen Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformak martitzenean. HMEI indizea ordezkatzea eskatzeko mozioa aurkeztu zuen plataformak eta udalbatzak aho batez onartu zuen. Hau da, Bilduk eta Aralarrek, EAJk eta PSE-EEK bat egin zuten mozioarekin. PP ez zen egon.

Mozioa defendatzeko osoko bilkuren aretoan egon zen Jose Mari Erauskin abokatua, Gipuzkoako plataformako kidea. Salatu zuenez, hainbat familiak ordaindu beharko ez zuketean 300 edo 400 euro ordaintzen dute hilero, batez beste, Espainiako Gobernuak HMEI indizea ordezkatzeko ardurarik hartu ez duelako. Erauskinen arabera, 18 hilabetez luzatu da egoera eta zenbait familiari hipoteka ez ordaintzea ekarri die horrek. Hipoteka ez ordaintzeak etxe kaleratzea dakar gero, Hondarribiko abokatuak gogoratu zuenez. Zinegotzietan inplikazio handiagoa eskatu zien Erauskinen, "uste dutena baino indar handiagoa" dutelako: "Udalak gauza normalak gertatzen zaizkion herritarrez osatuta daude. Goi politikan daudenek, berriz,



Jose Mari Erauskin mozioa defendatzen zinegotzien aurrean. | JOKIN BEREZIARTUA

ez dute arazoa ulertzen burbuila baten bizi direlako; burbuila horretatik uste dutena baino askoz lehenago esnatuko dira".

Polmetasa zaharraren auzia

Bestalde, San Andresko Cordoba y Oro plaza ondoan zegoen Polmetasa zaharraren arazoa ere izan zuten hizpide. Auzia Epaitegi Goreneraino heldu da, eta, haren epaiaren arabera, Udalak gune horretarako onartuta zuen Plan Berezia atzera bota beharko du. Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikariburuak azaldu zigun horrek zer esan gura duen: "Epaia are gehiago konplikatu du auzia. Udalaren

ikuspuntutik ez da ezer aldatzen, ez genuelako lizentziarik eman ezer eraikitzeko. Arazo bat bada, gunea bera oso egoera txarrean dagoela. Udalak, orain, ezin dio irtenbiderik eman".

Bada, orain ez, baina bai Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria onartzen denean: "HAPO berria jasoko da hor zer gertatuko den. Paraleloan, San Andres Berri enpresaren hartzekodunen lehiaketatik jaberren bat irten beharko da gunearen erantzukizuna hartuko duena. Plan berria egiteaz bat, jabearekin berba egin beharko dugu. Konponbidea hortik etorriko da. Noiz? Ezin dugu jakin".

Iñigo Suberbiola | Sendagilea

"Erraustegi baten ondoan, gora egiten dute minbizi kasuek, frogatuta dago"

Eztabaida gizarteratu izana "interesgarria" dela dio Suberbiolak: "Orain, galdetu egiten digute"

J.B. | ARRASATE

Arrasate Zero Zabor taldeak gonbidatuta, erraustegiek sor ditzaketen arazoak izan zituen hizpide Iñigo Suberbiolak (Lasarte, 1975) martitzenean, Kulturateko areto nagusian.

Erraustegi baten presentziak nola eragin dezake osasunean?

Ikerketek garbier aurkezten dutena da erraustegi batetik gertu bizi den jendearengan minbizi kasuek gora egiten dutela. Igoera ez da itzela, baina estatistikoki frogatuta dago.

Erraustegia izan genuen hemen. Arriskutik kanpo gaude?

Ikertzen diren substantzietako batzuk denbora luze mantentzen dira. Hitzaldian aipatu dudanez, halako industrigune baten istripu bat izan zen, eta, 20 edo 25 urte geroago, gertu bizi ziren herritarren artean substantzia horien maila altuak aurkitu ziren odolean. Oso substantziak bereziak dira, egonkorak eta gorputzak ezabatzeko zailak direnak.



Suberbiola, saioaren ostean. | J.B.

Hondakinekin sortu den eztabaida dela-eta zerbait esan nahi?

Gaiak jendea aspertu duela uste dut. Herri honetan beste hainbat gairekin gertatzen den moduan, hondakinen gaia politizatu egin da. Eztabaida sortu izanak, baina, poztu egiten gaitu neurri baten, lehenago hainbat erabaki inongo debaterik gabe hartu ziren-eta. Lehen, jendeak ez zuen galdetzen; hamar urte geroago, galdetu egiten digute. Eztabaida gizarteratu izana interesgarria da.



Ferrerriako Jaiak 2013
Arrasate, uztailaren 26a, egubakoitza

ondo pasau!

ILEA
ILE-APAINDEGIA
943 79 87 62

MERKEKILO
Oihalak
Gortinak
Ferrerrias 5
Tel.: 943 79 15 00

zer izengo zan
Ferrerrias
IRATI eta
ARRANO bank?

Mikropigmentazioa
AKER
Tattoo & Piercing
Telefono: 943799284
Ferrerrias 44 behea

BASATI
TABERNA
Pintxuak - Razioak
Tostak - Ogitarkeoak
Ondo pasau!
943 71 17 68
Ferrerrias 19



Kosta ala kosta-n 23 lagunek hartu dute parte, neskek guztiak. | TXATXILIPURDI

"Zortea izan dugu eguraldiarekin eta egon diren taldeekin"

Txatxilipurdiko Lander Juaristik udaleku itxien zein irekien balorazio "oso positiboa" egin du

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Urtero legez, oso eskaintza zabalak izan dugu. Balorazioa oso positiboa da; zorte handia izan dugu eguraldiarekin eta tokatu zaizkigun taldeekin". Horiek dira Lander Juaristi Txatxilipurdiko Gazte Saileko arduradunak Arrasate Irratian izandako hitzak, udaleku ireki zein itxien gainean egindako balorazio orokorrean.

Berramesten proiektua aintzat hartuz, haurren iritzia kontuan hartu dute ekintzak antolatzeke eta horrek, Juaristiren arabera, asko laguntzen du. Kalea berreskuratzea lortu dute: "Azken urteetan autoek irabazi dituzte kaleak eta saiatu gara haurrek berreskura zitzaten. Giroa sortu dugu Arrasateko gune ezberdinetan".

Negarrez, amaitu direlako

Udaleku itxietan Oriokoak dira arrakastatsuenak oraindik; aurten 12 eta 14 urte arteko 40 gaztetxo egon dira: "Oso talde *kañeroa* tokatu zaigu eta itzela izan da, mundu magiko bat eratu dugu Orion. Hezitzaileek esan digute gazte horiekin beste 30 egun egongo zirela. Gazteek negarrez amaitu zuten udalekuak bukatu zirenean; hori da seinale onena". *Kosta ala kosta* udaleku ibiltaria ere "ederra" izan da; 23 neska izan dira guztira: "Asko ikasi dute, sekulako abentura izan da. Ukitu feminista eman diegu, gainera".

Bestalde, Musakolako igerilekuetako *Freshura!* ekimenak abuztuaren 2ra arte iraungo du; adin guztiendako, arratsalde.

Ordutegi aldaketak udal zerbitzuetan, abuzturako

J.B. | ARRASATE

Opor garaian Udaleko zerbitzuek, martxan jarraitu arren, ordutegi aldaketak izango dituzte. Biztanleen Arreta Zerbitzua astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik abuztu osoan, 08:30etik 14:00etara. Arratsaldetan eta zapatutan itxita egongo da. Irailean, berriz, ohiko ordutegira itzuliko da Arano eta Garcia maisu-maistrak kalean kokatuta dagoen zerbitzua. Hau da, astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 19:00etara; zapatutan, 09:00etatik 13:00etara.

Kulturatek, ordea, honako ordutegia izango du abuztuaren astelehenetik egubakoitzera 09:30etik 14:30era. Arratsaldetan eta zapatutan itxita egongo da. Datorren astean, ekainaren 27tik irailaren 16ra arte ezarritako ordutegiarekin funtzionatuko du. Hau da, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Aukearen instalazioak

Aukeak kudeatzen dituen zerbitzuei dagokienez, Musakolako igerilekuen ordutegia honakoa izango da, printzipioz, irailaren 8ra arte: kanpoko igerilekuak 10:00etatik 20:30era egongo dira zabalik eta kiroldegiko gainerako instalazioak, berriz, 07:00etatik 22:00etara.

Udaltzaingo zerbitzua zabalik dago urteko egun guztietan, eguneko 24 orduetan.

BEHEKO DENDATIK

Alfredo Nieto | Zapatagilea

"Bezeroak dira izan dudan onena, beti baloratu naute oso ondo"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

1962a ezkerre Arrasaten bizi da Alfredo Nieto (Valdecarros, Salamanca 1948), eta ordutik hona zapatak konpontzen eta sarrailagile lanetan aritu da. 1962tik 1988ra Rikardo Donayreren batera egin zuen lan, Ferreriasen. Duela 25 urte erabaki zuen San Andresen denda bere kabuz irekitzea; gaur erretiratuko da, 65 urte bete dituen egun berean. Hori bai, "erreleboa bermatuta" du, lau belaualdik helarazitako abilezia bereganatu baitu semeak, Oscar Nietok.

Gaurko azken eguna lanean. Faltan igarriko duzu?

Zalantza barik. Bizitza oso eskaini diot zapatagintzari. Gustuko duzun zerbitzu egiteari uzten diozunean, normala da faltan igartzea. Negozioak aurrea egitea gura dut, baina, alde horretatik, lasai nago. Izan ere, semeak nik baino hobeto eramango duela uste dut. Nire semearengan erabateko konfiantza daukat.


Irakasle ona izan duenik ezin ukatu...

Aita eta anaia oso zapatagile onak ziren eta nik haiengandik ikasi nuen. Ez naiz

beste inor baino argiagoa, baina zapatekin lanean ari naizenean oso erraza egiten zait ona izatea. Zergatik? Txikitatik bizi izan dut eta ondo irteten zait. Gainera, lanean nagoenean, gozatu egiten dut. Semeari ere asko gustatzen zaio, eta horretatik ikusten dut nik baino askoz hobeto negozioarekin segitzeko. Zortzi urte daramatza nire ondoan lanean eta oso ondo ikasi du. Gainera, ni baino gazteagoa eta askoz argiagoa da.

Bistakoa da bezeroekin harreman estua duzula. Ondo haiekin?

Bezeroak dira izan dudan onena. Oso leialak izan dira eta beti baloratu naute oso ondo. Eskerrik beroenak eman gura dizkiet, guztiei.



Nieto, zapatak leuntzeko makinarekin. | J.B.

Maalako jaiak primeran, suak atzeratu arren

Astelehenean ospatu zuten jaietako egun handia Maalan. Haur jolasak eta auzo afaria izan ziren jendetsuenak -54 lagun elkartu ziren afarian-; su artifizialak, asteleheneko ekaitzak eraginda, eguaztanean bota zituzten.



JOKIN BEREZIARTUA

Ferrerias kaleko jaiak gaur: berreskuratu zituztenetik, 25 urte betetzen dituzte

J.B. | ARRASATE

Ferrerias jaietan murgilduko da gaur. Aurtengo jaiak bereziak izango dira, berreskuratu direnetik 25 urte beteko dira-eta. Hainbat urtez galduta egon ostean, 1988an zortzi saltsero elkartu eta ordutik hona jaiak berpizteko lan handia egin dute. Tartean zegoen Marga Mercader

eta oraindik bertan jarraitzen du: "Ferrerias oso kale berezia da eta bizilagunak elkartzeko aukera polita da", dio. Egitaraua, urterokoa: haurrendako jolasak (17:00), erraldoien konpartsa txikia (19:00), meza parrokiaren (19:00), auzo afaria (21:00) eta dantzaldia Kaixo taldearekin (23:00), besteak beste.



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Goiena RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKUA ONATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabalak preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko

943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

goiene

**Razioak
Plater konbinatuak
Bokatak
Pintxoak**

ABUZTUAN ZABALIK!

Uriburu kalea 14
(EMUN ondoan)
ARRASATE
Tel.: 943 03 69 89

Never Surrender eta Dirty Brothers Galizian gaur eta bihar

Arrasateko Never Surrender eta Dirty Brothers taldeak Galiziarra bidean jarri dira gaur, goizean goiz. Bi kontzertu eskainiko dituzte aste bukaeran. Gaur, Ponte-deume (Coruña) Coliseo aretoan joko dute bertako beste hiru taldeekin batera, Disturbio Rock jaialdiaren barruan. Bihar, berriz, Vigo hiriburuko Lehen Inferno aretoa bisitatuko dute.

Jaione Isazelaia alkate da dagoeneko

Asteleheneko osoko bilkuran egin zuen karguaren zina, Gobernu Taldearen bederatzi boto eskuratuta

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Astelehen iluntzea ezkerro, ofizialki da alkate Jaione Isazelaia. Ohiko osoko bilkuran egin zuen karguaren zina, eta duela hilabete Jesus Elortzak osasun arrazoiengatik lagatako hutsunea bete.

Gehiago absolutuz hartu zuen kargua Bilduren eta Aralarren hautagai Isazelaiak, osoko bilkuran egindako bozketan bederatzi boto jasota. EAJko hautagaiak, Aintzane Oiarbidek, bost eskuratu zituen eta PSE-EEko Mari Carmen Barrenetxeak, berriz, bakarra.

Isazelaiak "legeak hala behar-tuta" formularekin egin zuen karguaren zina eta modu berean hartu zuten zinegotzi kargua Joseba Moñuxek -Hirigintza batzordeburu izango da- eta Rafa Stxez Muxikak -Turismo batzordea partekatuko du Juanje Amasorrainekin-. Izan ere, alkateaz gain, aldaketa gehiago ere izan dira Udal Gobernuan: Moñuxek (Bildu) Isazelaiak lagatako lekua beteko du eta Justina Elexpuruk (Aralar) lagatakoa, berriz, Stxez Muxikak.

Isazelaia lehena hitzak

Kargua hartu berri eta Gobernu taldea laga zein bertan sartu direnendako esker hitzekin batera, Udala berrikuntza proiektu sakon batean murgildua dagoela azaldu



Jaione Isazelaia, Joseba Moñux eta Rafa Stxez Muxika udaletzeko balkoian. | MONIKA BELASTEGI

zuen Isazelaiak; herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea helburu duena: "Zer egiten dugun aztertzen ari gara, baita egiten dugun hori zela egin nahi dugun ere. Betiko balioak euskalduntasuna, parte-hartzea, iraunkortasuna, efizientzia... gure eguneroko jardunean modu kontzienteenean ezarri nahi ditugu; oporren ostean, orain arte teknikarien artean lan-

du den antolaketa proiektuan langile guztiak inplikatu nahi ditugu. Langileen inplikazioarekin herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua hobetzea da helburua".

Bizi dugun krisi egoera aintzat hartuta, bi galdera hauek ere egin zituen: "Zer egin dezakegu Udaltik bergarar guztion bizi kalitatea hobetzeko? Eta bereziki krisiaren aurpegiak ilunena ezagutzen ari

diren herritarrena?". Honela erantzun zituen: "Irizten diogu imajinarioz, guztion parte-hartzearekin eta ausardiarekin lor dezakegula. Udaltik ahalegin guztiak egingo ditugula zin egiten dizuegu".

Erretenak, eztabaidagai

Eskaera eta galderen tartean piztu zen bilkurako eztabaida eragin zuena, EAJko ordezkari Aintzane

Oiarbidek egindako galderarekin. Alde zaharreko zenbait bizilagunek, erretenen (*cárcava*) gainean Udaltik jasotako gutun baten harira egin zuen galdera: "Erretenak erosten ala alokatzen ari da Udala? Eta hala bada, zertarako?". Isazelaiak argitu zuen erretenak espazio publikoa direnez, ez direla ez erosten ezta alokatzen ere. Eta gehitu zuen: "Hondakinen bilketa sistema aldatu egin daitekeela aurreikusita, eta alde zaharrak tratamendu berezia behar duenez, erretenen gaineko azterketa egiten ari gara. Eskatzen ari gara etxeetako jabeak, zenbait lan egiteko baimena: zorua txukundu, paretak zarpeatu eta argiak eta estalki gardena jarri. Azken batean, hondakinak batzeko sistema bat edo beste izan, erretenak erabili egin beharko direla uste dugu".

Oiarbidek, bestalde, horrek gastu bat dakarrela, proiekturik ez dagoela eta gaia Hirigintza batzordean landu ez dela esanda, "prozedura erabat irregularra" dela azpimarratu zuen. Horren aurrean Isazelaiak esan zuen jabeak informatzen besterik ez direla ari, "hondakinen mahaia sistemaren gaineko hausnarketa bukatu arte itxaron" egin behar dela, eta ez direla inbertsiorik egiten ari. Era berean, "gaia Hirigintza batzordean sakon landuko" dela esan zuen, eta txukuntze lanok "gainerako lan guztien prozedura jarraituta" egingo direla. Aintzane Oiarbidek, berriz, "lanok abuztuan" egin litekeen galdetuz amaitu zuen bere galdera sorta.

Turismoa eta herriko merkataritza uztartzeko, bonuak kaleratu nahi dituzte

Autokarabanendako guneko erabiltzaileek eskaintza bereziak izango dituzte

M.B. | BERGARA

Iaz azaroan Labegaraietan autokarabanendako eta furgoneta egokituendako zerbitzua egokitu zuen Udalak. Turismo ibiltaria herrira gerturatzea zuen helburu ekimen horrek. Udalaren asmoa, baina, ez da soilik zerbitzu bat ematea turista mota horri; turismoa eta herriko merkataritza uztartu nahi ditu Udalak. Hau da, gure ondare naturala eta monumentalak erakustez eta zaintzeaz gain, turismoak etekin ekonomikoak sortu beharko lukeela uste

du. Eta horretarako, autorakabanendako zerbitzuegunaren erabiltzaileen eta herriko komertzio eta tabernen artean loturak egitearren, Udalak bonu berezi bat sortu nahi du.

Europar martxan dago

Europako hainbat tokitan martxan dagoen formula da. Autokarabanentzako gunea erabiltzea doakoa da, baina erabiltzaileek erabilera mugatua duen bonu bat erosteko aukera izango dute. Bonuak balioko du herriko kirol eta kultura

azpiegituretan eta herriko jate-teeetan eta dendetan eskaintza bereziak lortzeko.

Bonuarekin batera ekimenean parte hartzen dutenen katalogoa ere argitaratzen da. Hala, bonua hartzen duenak eskaintza non egiten den eta nolakoa den jakiten du. Herriko edozein ostatu, taberna, denda eta abarrek har dezake parte. Nahikoa da eskaintza Udalean jakinaraztea, 943 77 91 24 eta 943 77 91 83 zenbakietan zein turismoa@bergara.net webgunean.

Seminariotik Ariznoa plazara pasatuko dute San Martin feria

M.B. | BERGARA

Iraileko San Martin feriaren antolaketa aldatu egingo dute aurten: Seminarioan ez dute posturik jarriko, eta Ariznoa eta Monzon plazetan jarriko dituzte. Antolaketa berria, hortaz, hauxe izango da: San Martin eta Munibe plazetan, lehiaketan parte hartuko duten fruta eta barazki postuak egongo dira; gazta lehiaketako postuak Munibe plazan jarriko dituzte; eta Monzon eta Ariznoa plazetan baserriko produktuen gainerako postuak egongo direla aurreratu dute Udaleko arduradunak.

Txosnen kokapenean ere aldaketa egongo da: herriko harategietako odolosten txosnak San Martin plazan jarraituko du, baina taloena Ariznoa plazara lekualdatuko dute.

Antolaketa berriarekin, alde zaharrari bultzada eman nahi dio Udalak. "Indarberritzeko beste ahalegin bat" dela azaldu du Maren Belastegi zinegotziak. Azoka egin ostean aldaketaren egokitasuna baloratuko dutela gehitu du.

Baina ez da hori izango feria eguneko berrikuntza bakarra, arratsaldean: larrain-dantza egiteko aukera egongo da.



**Denda berria
BERGARAN!**

Kukuxumuxu kamisetak
Opariak / Jostailuak
Te, kafe eta intsentsu ezberdinak
Bergarako / EHko souvenirrak

Tel.: 943 76 53 29
Barrenkale 4 behea - BERGARA

OPARIAK



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kaleko musika dantzagarria Beat 'n Blow taldearen eskutik

Berumuga ekimenaren barruan, talde alemaniarrek emanaldia egingo du gaur

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Alemaniatik Bergarara dator Beat 'n Blow taldea udako egubakoitz gaua girotzeko asmoz. Kontzertua Berumuga ekimenaren barruan dago eta jazz, funk, hip-hop eta bestelako doinu dantzagarri girotuko dute gaur Espaloia, 22:00etan hasita.

Dantza egiteko taldea

Doinu alaiak eta melodikoak; horixe da Beat 'n Blow taldearen eskaintza. Bederatzi kidek osatuta, antolatzaileek esan bezala, "dantza egiteko musika akusti-

koa egiten dute, ahotsak, haize-instrumentuek eta perkusioak lagunduta".

Hala, musikariei dagokienez, bina bateriak, saxofoik eta tronpetak, tronboi eta tuba banak eta abeslariaren ahots indartsuak osatzen dute Beat 'n Blow.

Urte luzetako bidea

Ibilbide luzeko taldea da alemaniarra: 1994an sortu zen eta handik bi urtera kaleratu zuten aurreneko diskoa: *Modern Brass*. Bigarren lana kaleratzeko zazpi urte igaro behar izan ziren; hain

zuzen, 2003an ikusi zuen argia *Time* diskoak.

Sound of BlasMusik izan zen hirugarrena, 2006an grabatu zutena. Eta 2011n, aldiz *Nacht und Roh* izena ipini zioten lana aurkeztu zuen taldeak; 12 kantu jasotzen ditu alemaniarren azken diskoak.

Gaur Bergaran arituko den taldeak nazioarteko agertoki ugari zapaldu ditu: Erroma, Atenas, Dublin, Brusela, Britainia Handia eta beste toki batzuetan harrera bikaina egin diote jo eta putz egiten duen taldeari.



Beat 'n Blow taldeko kideak. | BEATNBLow

Kirkkit Ensemble, abuztuan

Kirkkit Ensemble taldeak emango dio amaiera 2013ko Berumuga ekimenari abuztuaren 7an, eguaztenean. *Kirkkit*-a "nomadek orrazteko eta tapizean hariak elkarrezko erabiltzen duten tresna da

eta taldekideek kantuen noma-datatzat dute euren burua".

Kultur tradizio askotariko abestiak interpretatzeko sortu zen taldea; tartean, pop, rock, eta folk estiloetakoak. Guztiak, baina, *a capella*.

Asteburuan Santiago eta Santa Ana festak ospatuko dituzte

Z.V.D.M. | BERGARA

Eguenean hasi ziren Basalgoko Santiago festak eta gaur emanango diote amaiera jaiari. Haurrak eta erretiratuak izango dira protagonista. 12:30ean meza egingo dute, eta luntxa prestatuko dute jai batzordeko kideek osterako. Eta mokaduaz gain, umeentzat jolasak egingo dira.

Herri bazkaririk ere ez da falta izango Basalgon; 14:30ean hasita, auzoko erretiratuek eta jai batzordeko kideek bazkaria egingo dute.

Santa Anak, domekara arte

Boluan, Arruriagan eta Burdinaten Santa Ana jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara. 20:00etan izango dira txupinazoa eta Santanaxoren jaitziera. Sardi-

nak jateko aukera egongo da (21:00) eta Still eta DJ Pinok girotuko dute gaua (22:30).

Zapaturako egitarau polita antolatu dute: pintura eta marrazki lehiaketa (10:00), umeentzako jokoak (12:00), mozorro lehiaketa (18:00), Bolua otxotea (19:30), eta herri afaria (21:30) izango dituzte, besteak beste.

Domekan, festen garra itzali aurretik, zer egin izango dute auzora bertaratzen direnek. Pilota partiduak ikusteko aukera egongo da (11:00), baita Goenkaleko klaratarren elizan meza entzun ostean salda eta txorizoa jateko aukera ere (12:30). Arratsaldean, 16:30ean hasita, puzgarriak eta Avenida Orkestraren emanaldia. Santanaxoren igorraz amaituko dira jaiak.

Musika, magia eta zinema, abuztua Bergaran ematen dutenen eskura

Z.V.D.M. | BERGARA

Abuztuan herrian geratzen direnek zer egin izango dute. Esaterako, The Back Tracks talde donostiarraren doinuak entzungo dira hilaren 14an Usondon; Cuarteto Adsax laukoteak, berriz, Errekalde parkean emango du saxo kontzertua hilaren 23an. Biak 20:00etan hasiko dira; euria eginez gero, udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango dira.

Bestalde, abuztuan magia ikuskizuna ere egongo da Bergaran. Txan magoak hilaren 21ean esango ditu trikimailuak egiteko *artxila murtxila!* berba magikoak; Errotalde ilusio eta irudimenaren gune bilakatuko du, 20:00etan hasita.

Baina gainera, bi erakusketak ere egongo dira bergararren

eskura Aroztegin. Unai Azkaraterena –abuztuaren 25era arte– eta Barbara Susanne Stamerlerena, abuztuaren 29tik irailaren 15era arte.

Gainera, eta iazko geldialdiaren ondoren, abuztuan bueltan izango da aire zabaleko zinea. San Martin plazan izango dira emanaldiak, martitzetean, 22:00etan hasita: *Basalagunak*, *Piratas*, *Bypass* eta *El lado bueno de las cosas* filmak emango dituzte.

Auzoetako jaiak

Abuztuan, gainera, hainbat auzotako jaiak ere izango dira: Angiozarkoak (hilak 15), Zabalatamendikoak (hilak 24), Osintxukoak (hilak 30-31) eta San Lorentzokoak (hilak 31).

San Pedro parrokia bisitatzeko aukera abuztuan zehar

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Udaleko Turismo Sailak bisita gidatuak antolatzen ditu, urtero, herriko txokoren batera. Aurten, San Pedro eliza zaharberritua hautatu dute ekimenerako. "Eraikin bikain honek oso ongi islatzen du gure herriak izan duen bilakaera historikoa, eta, gainera, estilo eta moda ugari hartzen ditu bere baitan". Ordu eta erdi iraungo dute; euskarazko bisitak egunetan (16:00) eta zapatuetan (11:00) izango dira. Gaztelaniazkoak ordu berean, baina egubakoitz arratsalde eta domeka goizetan. Informazio gehiago jasotzeko eta erreserbak egiteko, idatzi turismoa@bergara.net helbidera edo deitu 943 77 91 28 zenbakira.



**5.100 euro
Tourenko
porrako
irabazlearentzat**

Gorka Irazola 16 urteko gazteak 5.100 euroko saria eskuratu du Lokatzak antolatutako Tourenko porran. Moxkorra taldea izan da bigarren –2.550 euro irabazi ditu– eta Igor Larrañagak 1.530 euro jaso ditu. Zabala jatetxearen saria Aintzane Arizmendientzat izan da eta zozketatutako saskia, berriz, Aurten Bai 4 taldeari egokitu zaio.



TXOMIN MADINA

Azkarateren artea Aroztegin

Egubakoitzean ireki zuen erakusketa Unai Azkarate bergararrak Aroztegi aretoan eta abuztuaren 25era arte egongo da ikusgai. Aire zabalean eginiko pinturak, collageak, eskultura bitxiak... "Kaosa, nire estudioan dagoen kaos bera", artistaren esanetan. Inauguraziora lagun ugari joan ziren, eta, Azkarateren obrak ikusteaz gain, haren musika entzuteko aukera izan zuten, zuzeneko emanaldiarekin.

Peta Barrel dator Oñatiko aurtengo surf festara, taulak nola egin azaltzera

Abuztu bukaeran izango da, sardina, skate, musika, tailer, zinema eta Usakoko salto txapelketarekin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Abuztuko azken bi egunetan egingo dute Oñatiko aurtengo surf festa, eta egitarau mardula antolatuko dute.

Abuztuaren 30ean, esaterako, surfeko tablak egiten dituen Peta Barrel etorriko da Oñatira. "Surfeko taulen erakusketa bat egingo du herriko kaleetan zehar. Hurrengo egunean, abuztuaren 31n, taulak nola egiten diren azalduko du Kale Zaharreko plazatxoan", azaldu du Aitor Perosterenak, festaren antolatzaileetako batek. "Toki horretan bertan, skate-an egiteko patineteak egiten dituzten gazte batzuk etorriko dira Lekeitiotik, eta kalean zirkuitu txiki bat ere prestatuko dugu umeek, gazteek zein nagusiek patinetean ibiltzeko", gaineratu du Perosterenak.

Sardina-jana ere egongo da aurten, eta baita Surf Fixed bizikleta karrera ere, bigarren aldiz. Hori antolatzeko, baina, laguntza behar dute, bideturteetan egiteko, adibidez. Laguntzeko prest dagoena antolatzaileekin harremanetan jar daiteke.

DJak tabernetan

Zinema eta musika ere uztartuko dira aurtengo surf festan. Horrela, lehenengo egunean, kontzertua egongo da Atzeko kalean. Emaldia hasi aurretik, surfari buruzko film labur bat emango dute hantxe bertan, eta baita beste film bat ere kontzertuaren tarte baten. Zapatu gauean, abuztuak 31, berriz, Javi P3Z DJa



Usakoko salto txapelketa, joan den urtean. | O.E.

etorriko da Oñatira. Musika emaldia egingo du Kale Zaharreko plazatxoan. Gauean izango da hori. Aldi berean, beste DJ batek Luisena tabernan jarriko du musika eta beste hiruk, batera, Pako tabernan.

Salto txapelketa Usakon

Bestalde, aurten ere egingo dute Usakoko salto txapelketa. Abuztuaren 31n izango da. 10:00etan hasiko da. Sari banaketa, berriz, iluntzean egingo dute Ona tabernaren aurrealdean.

Oñatiar bat behar dute Auzoko dinamizatzeke

O.E. | OÑATI

Euskaltzaleen Topaguneak dinamizatzailea behar du Auzoko proiekturako. Oñatiko kultur eta hizkuntza aniztasunaz jabetu eta guztien arteko komunikazioa euskaraz jorratzeko egitasmo parte-hartzailea da Auzoko. Proiektuaren helburuak dira: euskaratik urrun bizi diren herritarrek euskarara hurbiltzea, Oñatin zenbat hizkuntza hitz egiten diren jabetzea eta hizkuntza ezberdinetako herritarrek harremanetan jartzea.

Interesatuak abuztuaren 23a aurretik eman behar dute izena hemen: auzoko@topagunea.org.



UBANE MADERA

Oñati versus Soralue

Desafioa bota zioten elkarri Soralue eta Oñatiko gaztetxeek, eta eguaztenean, etxetik kanpo izandako egun osoko "norgehiagokaren" ostean, oñatiarrek erdietsi zuten garaipena, Soraluezko zubiko aparkaleku preziatua eskuratuta. Horren kontrara, Soraluezkoak Usakoko partzelaren erreserba barik gelditu dira.

Herritarren Jarraipen Batzordea, atez aterako

Irailean hasiko da lanean eta batzorde horrek egingo du sistemaren emaitzen lehen balorazioa

O.E. | OÑATI

Dendariak, ostalariak, landa eremuko herritarrek ... profil ezberdinetako kideek osatzen dute aste honetan sortu den Herritarren Jarraipen Batzordea. Datorren irailean hasiko da lanean eta atez ateko sistemak dituen gabeziak aztertu eta hobekuntzarako proposamenak egingo ditu batetik. Bestetik, Mankomunitateak hilero pasatuko dituen gaikako bilketa mailaren datuak aztertu eta komunikatuko ditu.

Lan talde irekia izango da eta alkatea ere egongo da, udaleko ordezkari moduan. Herritarren batek batzordeko kide izateko interesa izanez gero, hauexek dira izena emateko bideak: partehartzea@oinati.net edo 943780411. Bestalde, ikusmen arazoak dituzten herritarrendako, koloretako pegatinak proposatu ditu Trautik, esekitoki ondoan jartzeko. Hiru koloretakoak. Beharra duten herritarrek Trautin edo udaletxean eska ditzakete.

Kiroldegiko aparkalekua doan da irailera arte

Irisingarritasun lanak ez ezik, uraren tuboak eta argiteria ere berritu dituzte San Juan kalean

O.E. | OÑATI

Martitzenetik zabalik dago San Juan kalea. Kiroldegiko aparkalekua ere erabilgarri dago eta horrelaxe egongo da aurrerantzean. Abuztua barne, gainera, doakoa izango da.

Altura berean

Apirilean hasi zituzten irisingarritasun lanak San Juan kalean. Uztailaren 30a zuten lanak bukatzeko epea, baina astebate lehe-

nago bukatu dituzte. Ugarte Eraikuntza enpresak egin ditu San Juan kaleko irisingarritasun lanak. Orain, kale osoa altuera edo plataforma berean dago. Kaleko albo bietan, metro terdiko espaloia dagoi, oinezkoendako, eta erdian ibilgailuendako bidea, altura berean. Lan horiez gain, ur hornidudaren eta saneamenduarren instalazioak eta kale osoko argiteria ere berritu dituzte.

Argia kenduko dute herri osoan abuztuaren 13an, Buztinzuloko azpi-estazioan lanak egiteko

Herria argindarrez hornitzen duen Buztinzuloko azpi-estazioan egin beharreko lanak direla eta, abuztuaren 13an argia kenduko dute, 15:00etatik 19:00etara. Herriguneari eta hainbat auzotako etxe eta baserriei eragingo die. Bestalde, Errekaldeko transformazio zentroa berritu egin du Oñargik, eta, egindako lanak osatzeko, abuztuaren 13ko argi-etetea aprobetxatuko dute.

Oporretan, postontzia hustu eta norbaiti pertsianak igotzea eskatzeko gomendatu du Udaltzaingoa

Oporretara goazenerako eta etxean lapurren bisita izan ez dezagun hainbat gomendio eman ditu Udaltzaingoa. Adibidez, etxeko atea giltzaz ixtea beti eta konfiantzazko pertsona bati postontzia hustu eta pertsianak igo eta jaisteko eskatzea. Bisita horien ordutegia aldatzea eta arratsalde-ilunkeran doanean argiak piztea gomendatzen du, eta baita aurreko egunetan oporretan goazela han eta hemen esaten ez ibiltzea ere.

Gaztelekuak, nagusien liburutegiak eta kiroldegiak ordutegi berezia izango dute abuztuan

Kiroldegia itxita egongo da astelehenetan, eta gainerako egunetan 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute. Haurren liburutegia itxita egongo da eta nagusia goizez zabalduko dute, aste barruan. Udal bulegoak goizez egongo dira zabalik herritarren arretarako, 09:00etatik 14:00etara. Gaztelekuak, Sotoa, Kuboa eta Topalekua zabalik egongo dira eta informazio bulegoa eta informatika gela itxita abuztuaren 26ra arte. KZgunea itxita egongo da.

Mari Karmen Astigarragak zinegotzi izateari utzi dio eta EAJk Haritz Solupe proposatuko du kargurako

Uztailaren 22an egindako osoko bilkuran utzi zuen EAJ alderdiko Mari Karmen Astigarragak zinegotzi kargua, arrazoi pertsonalengatik. Astigarragaren ostean zerrendan zihuanak karguari uko egin ondoren, EAJk aditzera eman zuenez, Haritz Solupe proposatuko du Aretxabaletako zinegotzi berria izateko; udako oporren ostean izango da, ziurrenik.

Portasolgo jaietan saldutako zozketa-txartelen zenbaki irabazleak 720, 5.714 eta 10.351 izan dira

Hiru zenbaki saritu izan ditu Portasolgo jaietako zozketak: 710 –asteburu pasa bat eta 100 euro–; 5.714 –publizitatea ipini duten dendetan gastatzeko 125 euro–; eta 10.351 –bi pertsonarentzako afaria. Hilabete dute irabazleek saria jasotzeko. Bestetik, jai batzordeak eskerrak eman gura izan dizkie bizilagunei, publikitate ipini dutenei eta auzoagatik lan egin duten guztiei eta ondo pasatzera bertaratutakoiei.

Ibarra kiroldegiak eta liburutegiak ordutegi berezia izango dute abuztu osoan

Ibarra kiroldegiak ordutegi berezia estreinatuko du gaur, uztailak 26. Hala, abuztuaren 31ra arte, 11:00etatik 20:00ak bitartean irekiko dute eta domeketan, berriz, 09:00etatik 14:00ak arte. Uztailaren 31n ordutegi bera izango du eta abuztuaren 12tik 18ra, aldiz, itxita egongo da –bi egunak barne–. Bestalde, liburutegiak goizez bakarrik irekiko ditu atea abuztuaren, 10:00etatik 13:00ak arte.



Z.V.D.M.

Dantza eginda, agur udalekuei

Amaierara iritsi dira udalekuak asteen eta hilabete osoan parte hartu duten ia 300 neska-mutikok agur jaia egin zuten Herriko Plazan martitzenean. Dantza izan zen nagusi eta adinaren arabera igo ziren plazan kokatutako oholtzara. Aurrean familiakoak eta lagunak izan zituzten; ezustekoren bat ere izan zuten batzuek, udalekuetako arduradunek prestatutako jolasetan parte hartzera deitu zituzten-eta.

'Mozkorraren' igoera eta Beberen kontzertua aurtengo Andramaixetan

AGEk 10. urtez ipiniko du txosna; txirindulari probak 75 urte betetzen ditu

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ofizialki abuztuaren 14tik 17ra ospatuko dira Andramaixak aurtentzen; dena dela, Aretxabaletako Gazte Ekimeneko kideek hilaren 13an emango diete hasiera herriko jai nagusiei.

Berritasunak txosnagunean

Andramaixen aurreneko minutuak gazteenak izango dira. "Aurtentzen *mozkorra* tomatearen igoera egingo da txupinazoaren ostean eta jarraian, batukada". Batukadan gura duten guztiak har dezakete parte. "Entseguak udaletxe zaharrean egiten ditugu eta edozeinek har dezake parte".

AGEtik aditzera eman dutenez, berezia da aurtengo urtea; izan ere, 10. aldiz ipiniko dute txosna, gazte ekimenetik: "Aurtentzen Ernaik ere ipiniko du berea, eta, gainera, karpa bat ere egongo da".

Kontzertuak ere antolatu dituzte. "Hilaren 13 eta 14an herriko taldeek izango dute jotzeko aukera: Krisis, Ikara, Freedom Boys taldeek, esaterako". Eta jaien azken egunean, Zopilotes Txirriaos talde nafarra arituko da, hirugarren urtez.

Ekintza bete zaku jaietan

Baina ofizialki hilaren 14an 19:00etatik emango zaie hasiera festei,



Bebe kontzertua eskainiko du hilaren 15ean Herriko Plazan. | BEBE

ikurrinari agurra eginda. Eta hortik aurrera jaiak ez du etenik izango, adin guztietarako egitaraua prestatu baitute.

Mus eta bolo txapelketak, pilota partiduak, sokamuturra, herri bazkari eta afariak... eta musika. Esaterako, Amaia Txintxurreta DJak, Milagroko Bandak eta Izargi taldeak doinuak josiko dituzte herriko kaleak.

Gainera, artista gonbidatu ospetsu batek ere joko du Andramaixetan: Bebe abeslariak bisitatu du Aretxabaleta eta dantzan ipiniko ditu ikus-entzuleak hilaren 15ean Herriko Plazan eskainiko duen kontzertuan.

Txirindulari probak 75 urte

Leintz bailarako txirindulari probak data berezia bizi izango du: 75. aldiz egingo dute lasterketa hilaren 16an, 10:00etan hasita. 115,5 kilometro izango ditu 23 urtetik beherako elite mailako txirindularien lasterketak.

Andramaixetako egitarau osoa helbide honetan dago: <http://goiena.net/albisteak/2013ko-andramaixak/>.

Egitarau osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



25 urte Kurtzebarritik ipurdi gainean jaisten

Irailaren 8an elkartuko dira aurtentzen eta jaitsiera jendetsua izatea gura dute antolatzaileek

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Azken 25 urteotan, Areantzako bizilagunek Kurtzebarritik behera jaisteko modu berezia erabiltzen dute urtean behin: "Ipurdi gainean

labanderan" egiten dute bidea, hain zuzen ere.

Agorreko Andramaixetan izaten da ekimena, iraileko lehenengo asteburuan: "Kurtzebarri

eguna izaten da baita ere, eta mendira igotzen gara auzokook, talde argazkia ateratzen dugu eta ondoren, modu bitxi horretan egiten dugu ibilbidearen zati bat". Hala azaldu dute ekimenaren antolatzaileek.

Mendi igoera polita

Irteera polita antolatzen dute bizilagunek; hala, Areantzako iturriko erromararik irteera, Intxaurbe, Aretxu, Arditurri, San Juan iturri eta Zaraiolatik pasatuta igotzen dira Kurtzebarritik. "Argazkia ateratzen dugu bertan eta ondoren, Zaraiola puntatik Hirupagoetaraino jaisten gara ipurdi gainean labanderan".

Jendea animatu guran

Aurtengoa urtemuga berezia izango da eta Kurtzebarritik igoera eta jaitsiera bultzatu gura dute. Oraindik hilabete pasatxo geratu arren, herritar denei egiten diete dei Areantzako bizilagunek euren ohiturekin bat egin dezaten. "Gure inguruak ezagutzeko modu polita da, gainera".

Gura duten guztiak irailaren 8an, domekan, izango dute haiekin bat egiteko aukera.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Lorezaintza, aparkalekuak eta erregistroen ordutegia berbagai

Udalbatzak opor aurreko azken osoko bilkura egin zuen martitzenean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Luze jo zuen martitzenean egin-dako ohiko osoko bilkurak. Denera, 18 puntu landu zituzten udal ordezkariak batzarrean. Besteak beste, lorezaintza zerbitzuaren kontratua luzatzea onartu zuten. Landu enpresari eman diote, osterara ere. Horrekin batera, 2.600 euroren truke auzo-konpost guneetan siku banatzeko zerbitzua ere enpresa horri esleitzea adostu zuten.

Horrez gain, oinezko eta ibilgailuen ordenantzaren 15. artikulua aldatzea onartu zuten. Beñat Herce alkateak azaldu zuen elbarriendako aparkalekuaren erabilerran kezkak azaldu direla eskoriatzarren artean, eta, hori dela eta, ordenantza aparkaleku horien erabilpenean honako debekua txertatzearen alde agertu ziren zinegotzi gehienak: elbarrien laguntzaileak aparkaleku horiek bi ordutik gora ez erabiltzeko debekua.

Erregistroa goizez

Bestalde, urriaren 1etik udal-txeko sarrera eta irteera erregistroen ordutegia aldatzearen alde bozkatu zuten. Astelehenetik egubakoitzera bitartean, 09:00e-



Elbarriendako aparkalekua Aranburuzabalán. | MIRIAN BITERI

tatik 14:30era egongo da hori herritarren eskura; eta eguen arratsaldeetan ez da zerbitzurik emango. Horren bueltan, alkateak azaldu zuen oso gutxi erabiltzen dela erregistroa arratsalde horretan, eta goizeko ordutegia zabalduz herritarrei zerbitzu hobea emango zaiela.

Bestetik, bi mozio ere eztabaidatu zituzten: Kidetza elkarteak zaintza partekatua alde aurkeztutakoa ez zuten onartu. Bai, ordea, Ezker Anitzak aurkeztutakoa, Espainiako Gobernuaren

dimisioa eta hauteskundeak eskatzen zituen mozioa.

Hirugarren osasun parkea

Alkateak, gainera, jakinarazi zuen Aingeru Guardan osasun parkea jartzeko asmoa dutela. Aurreko agintaldian erretiratu zuzendutako bi osasun parke jarri zituzten bidegorri ondoan, bata Dorletan eta bestea Olazarren. Atzoko osoko bilkuran 13.500 euroko partida sortuko zela iragarri zuen, etorkizunari begira beste parke bat jartzeko.

du. Irabazlea aukeratzeko hiru boto hartuko dira kontuan: bi boto Kultura batzordeak emandakoak eta hirugarrena, jendeak aukeratutakoa. Irail amaieran jakinaraziko dituzte irabazleen izenak. Lehenak 100 euroko txartela lortuko du Eskoriatzako merkatarien elkarte dendetan gastatzeko; bigarrenak, 50 eurokoa; hirugarrenak, 25 eurokoa.

Herri ikuskizuna

Bestalde, jaietan egingako *Herri-xa munduan eta mundua herri-xan* ikuskizunari buruzko iritzi idatziak jasotzen dabilta. Eta datorren astera arte liburu bat izango da herriko liburutegian, ikuskizunean parte hartu zutenekin zein ikusleek ikuskizunaren gainean iritzia idatzi ahal izateko, hain zuzen ere.

talak izan behar dute, zuri-bel-tzean edo koloretan, edozein teknika erabilita eta JPG formatuan, ahalik eta bereizmen handiengan. Lanek argitaratu gabeak izan behar dute eta egile bakoitzak, gehienez ere, 10 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Epaimahaiak 30 argazki aukeratuko ditu, gero, horien artean bozketa egiteko. Aukeratutakoak jendaurrean jarriko dituzte irailaren 9an, eta herritar bakoitzak boto bakarra eman ahal izango

Sanpedroetako irudiak sarituak izango dira aurten

Udalak argazki lehiaketa antolatu du; lanak abuztuaren 30era arte aurkez daitezke

M.B. | ESKORIATZA

Udaleko Kultura batzordeak aur-tengo sanpedroen gaineko argazki lehiaketa antolatu du. Lanak abuztuaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira honako bideak erabilita: CD edo DVD batean grabatuta kultura etxean aurkeztuta edo hara postaz bidalita; edo kultura@eskoriatza.net posta elektronikora bidalita.

Nahi duenak parte hartu ahal du, herriko jaiei buruzko edozein irudi aurkeztuta. Argazki digi-

Hondakinen sistemari buruz adostutakoak zeresana eman du

Bildu, EAJ, Ezker Anitza-IU, Eskoriatza Garbia eta Eskoitz Zero Zabor taldeen iritzia jaso dugu; jeltzaleek Hondakinen Mahaia utzi dute

M.B. | ESKORIATZA

Hondakinen sistema ezagutu ostean, herriko eragileek horren gaineko iritzia eman dute. Bildu, EAJ eta Ezker Anitza-IU alderdiek eta Eskoriatza Garbia eta Eskoitz Zero Zabor taldeek egin dute berba; PSE-EE alderdiarekin ere jarri gara harremanetan, baina ez dugu erantzunik jaso.

Bilduk Ezker Anitzaren eta Zero Zaborrekoen "laguntza" eskertu du, eta EAJren eta Eskoriatza Garbiaren jarrera kritikatu. Jeltzaleen gainean honakoa esan du: "Inmobilitate honek geroz eta argiago uzten du edozein delarik ere egiten dugun proposamena aurka bozkatzeko duela, honen atzean arrazoi eta interes politikoak besterik ez dagoelako". Eta plataformaren harira honakoa: "Mahaiaren bueltan adostasunerako eseri garen agenteak gutxietsi ditu, eta adostasun eta akordioetara hurbilpenik egitea ere planteatzen ez du".

EAJ: "Onartezina"

EAJk dio "onartezina" dela adostutakoa, eta, horri eusten dioten bitartean, Hondakinen Mahaia uzten dutela iragarri du. Honakoa salatu du: "Agiri honek akordioerako borondate txikia azaltzen du eta adar jotze bat, iseka bat eta bosgarren zaborrontziarekin existitzen den hondakin bilketa sistema zabo-

rrentzi marroiarekin osa dadin euren borondatea agertu duten eskoriatzar guztiekiko begirune falta iruditzen zaigu". Ezker Anitza-IUk "interesgarritzat" jo du hondakin organikoaren edukiontzia erabiltzeko ordutegirik ez izatea, sukaldean usaina izatea saihestuko delako. Dena dela, kritikatu du ez dagoela konforme proba Intxaurtxuetan eta San Pedron bakarrik egitearekin, herri osora zabalduko lukeela. Sistema adostua lortzeko egingako "esfortzua" txalotzearekin batera, herriko zati garrantzitsu batek parte hartzeari uko egin izana salatu du.

Eskoriatza Garbia plataformaren ustetan, adostasuna "desiragarria" bada ere, adostasunaren borondateak ezin du herritarren gehiengoak aditzera emandakoaren borondatea ordezkatu. Hondakinen Mahaia proposatutako sistema mistoaren bueltan, dio "Eskoriatzako herriak argi eta garbi" esan duela bosgarren edukiontzia nahi duela. Bestalde, Eskoitz Zero Zaborretik "baikortzat" jo dute adostutako sistema, honakoa esanez: "Zaborra bereiztuta biltzea eta ondorengo tratamendua da garrantzitsua. Zein bilketa sistema erabiltzen den bigarren mailako gaia litzateke eta horregatik proposatzen den sistemari gure baietza. Orain denon artean lan egin beharko dugu".

Zubiate, Atxorrotz, Elorreta, Ibarraundi eta herria ezagutzeko bisita gidatuak izango dira abuztuan

Ibarraundi museoan bisita gidatuak gertatu dituzte datozen asteotarako: abuztuaren 5ean eta 26an, Zubiate labea ikusteko aukera izango da, 11:00etan; eta abuztuaren 6an eta 27an, Atxorrotz. 10:00etan jarri dute hitzordua museoan, gora igotzeko. Abuztuaren 7an eta 28an, Elorretako errota bisitatuko dute, 11:00etan museoan edo 11:15ean errotan bertan egonda. Abuztuaren 1ean, 8an eta 29an, herria ezagutzeko dute; 11:00etan abiatuko dira museotik. Eta hil bereko 2an, 9an eta 30ean, Ibarraundi, ordu berean.

LENIZ
ESKORIATZA



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Bihar goizean erreka garbituko dute auzolanean

G.A. | ANTZUOLA

Antzuolako Gaztetxeak herriko erreka garbitzeko auzolana antolatu du bihar goizera, uztailaren 27rako. Jaietan pilatu diren hondakinak jaso nahi dituzte horrela. Ostean, bazkaria egongo da parte hartzen dutenentzako.

Hiru urte dira ekimen horrekin hasi zirela, herriko jaiek eragindako zikinkeria jaso eta errekarari bere benetako itxura bueltatzeko aldera. Aurtengo garbiketa bihar egingo dute; lan hori egiteko prest dauden herritar guztiei goizeko 10etan Herriko Plazan agertzeko esan diete Gaztetxeo kideek. Antolatzaileen asmoa da azalduko denak batera lanean hasi behar, enparantzan elkartutako jendearekin talde ezberdinak osatzea. Gero, jende-multzo bakoitzak ibaiaren tarte bat garbitu dezan. Horrela, jende nahikoa azaltzen bada, herri-inguruko erreka osorik garbitu nahi dute. Gaztetxetik adin guztietako antzuolarrei egiten diete gonbidapena bihar, ekintzara animatzeko. Uste baitute guztien ardura dela herri-inguruak behar bezala mantentzea. Gainera, auzolanaren garrantzia azpimarratu dute, "nahi dugun" herri-eredua eraikitzeko. Adierazi dute Gaztetxeak berak jarriko dituela bihar goizeko garbiketarako behar diren lanabes guztiak: aitzurrak, palak... Baina norberak arduratu beharko du uretan ibiltzeko moduko oinetakoak eramateaz.

Bazkaria egongo da

Behin erreka garbituta, bazkaria egingo dute guztiek; ez da ezer ordaindu beharko. Baina antolatzaileek gogorazi dute jaten geratzeko asmoa dutenek aurrez esatea komeni dela, janari kopuruak eta ondo jakiteko. Apuntatzeko, www.AntzuolakoGaztetxia.info webgunera jo eta *Harremanak* atalean mezua utzi behar da. Gaztetxean bertan ere eman daiteke izena.

Jai batzordearen eta txosnetako kideen ustez, festak ondo joan dira

Gaztetxeo kideek jaiei sarean eta sare sozialetan jarraipena egin diete

GUREN AUZMENDI | ANTZUOLA

Positiboki baloratu dituzte aurtengo jaiak jai batzordeak eta txosnek. Jendea, orokorrean, oso gustura ibili den ustea du Udalak, "gorabehera txikiak" egon badira ere. Gazteen parte-hartzea nabarmendu dute txosnetatik; sarean jarraipen berezia egin diete festei.

Jendeak ekintzetan parte hartu duela esan du jai batzordeak. Batez ere, otorduek izan duten erantzuna azpimarratu du; urtetik urtera goraka doa horrelakoetan jende kopurua. Domekako paella-janean, esaterako, 130 bat lagun elkartu zirela esan dute batzordetik. Gai nontzeko ekintzetan lan egin duten pertsona eta talde guztiei eskerrak eman dizkiete, bereziki Mairuaren Alardea elkarteari. Maddi Elortza Kultura zinegotziak aitortu du festetako



Gaztetxeoek webgunean egin dute jaien jarraipena. | GOIENA

zapiekin arazoak izan direla, gaizki eginda ekarri zituztelako. Horrek herritarren kezak eragin ditu. Hontzaren jaitsieran ere koordinazio-arazoak izan ziren argiekin. Hurrengoetarako kon-

tuan izango dituztela esan du Elortzak. Batzordea kezkatuta azaldu da jaietan herrian izan diren apurketekin.

Txosnak Gaztetxeo kideek jarri dituzte aurtengoa ere. Batez

ere herriari eta festei bizitasuna emateko asmoarekin. Eta eurentzat, gazte askoren lanarekin, egunotan lortu dute jaien "sektore aktibo bat izatea". Horregatik, adierazi dute euren helburu nagusia bete dutela. Gainera, txosna-gunea gazte eta helduen elkagune bezala ikusi dute txosnetako kideek; aurrera begira horrela jarraitzeko asmoa erakutsi dute. Nabarmenezkoa da aurtengo jaiei gazteek sarean egin dieten jarraipena; horren ondorioz, argazkiak eta egun bakoitzeko kronika jarri dituzte antzuolakogaztetxia.info orrian.

Herriraren txosna

Herrirako kideek eskerrak eman nahi izan dizkiete txosna jartzeko lokala utzi dietenei eta txandetan lan egin duten antzuolarrei. Baita egun horietan hara hurbildu diren guztiei ere. Harrera elkartearen aldeko marisko-jana 24.209 zenbakidun txartelarentzat izan zen.

Jarraipena ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Arrolakoak Pirinioetan izan dira

Aurtengoa ere, herriko jaien aurreko asteburuan irteera egin zuten Arrola Mendi Taldekoek. Gustura ibili ziren mendizaleak; oraingo honetan, Fanlo herritik Gorizko aterpetxerako bidea egin zuten zapatuan. Domekan, berriz, Taillon mendira igo eta Gavarniera jaitsi ziren. Han bukatu zuten mendi ibilaldia, Bujaruelo mendatean. Aurreko urteetan bezala, Pirinioetako paisaiarekin gozatzeko aukera izan zuten.



ARROLA MENDI TALDEA

Abuztuan zerbitzu publikoek ordutegi bereziak izango dituzte

G.A. | ANTZUOLA

Udako oporraldia dela eta, hainbat zerbitzu publiko ezohiko ordutegia izango dute abuztuan eta itxita egongo dira beste batzuk. Osasun-zerbitzuetan, ordea, normal artatuko dituzte herritarrek.

Udaletxeko harreraren normal egingo dute lan datorren hilean, goizeko 8etatik 14etara; baina hainbat zerbitzu itxita egongo dira. Herritarrentzako telefono-arreta emango dute ohiko ordutegian, baina sail askotan ez dute lanik egingo. Hirigintza, esaterako, irailera arte ez da martxan egongo. Udal liburutegiak ere ez du zerbitzurik emango: uztai-

laren 30etik irailaren 2ra arte itxita egongo da. Gizarte zerbitzuek, ordea, lanean jarraituko dute; hala behar duten herritarrek eguazten eta egubakoitzean jo beharko dute Torresoroa eraikinera: 9etatik 13etara. Aurretik hitzordua eskatu beharko da, beti bezala, 943 76 62 46 zenbakian.

Osasun etxea, normal

Sendagilearenera joan behar duten herritarrek ohiko ordutegia izango dute osasun etxean. Goizetan izaten da zerbitzua 08:00etatik 15:00etara. Martitzenetan, 13:00etan bukatzen dira txandak.

Kutzazainean eragiketa gehien Antzuolan egin dira euskaraz

G.A. | ANTZUOLA

Laboral Kutxak bere kutzazain automatikotan herritarrek erabiltzen duten hizkuntza zein den esan du. Antzuolakoan, bezeroek eragiketen %44 egin dituzte euskaraz; kooperatibak dituen kutxa automatiko guztien artean erabilera-maila handiena da hori. Aramaioko kutxa automatikoan, hiru eragiketarik bat egin dute euskaraz.

Erakundeak Hegoaldeko lau lurraldeetako kutzazainetan euskaraz zenbateko erabilera duen ikusi du, gero, hizkuntza hori gehien erabiltzen duten hamabi banketxeak zeintzuk diren argitaratzeko. Azterketa

horren arabera, gaztelania da bezeroek gehien erabiltzen duten hizkuntza kooperatibaren kutzazain guztietan. Hala ere, aldeak nabarmenak dira. Antzuolan, Usurbilen eta Etxarri Aranatzan erabili da euskara gehien: %40tik gora. Ibarreko beste herri bat ere ageri da hamabi horien artean: Aramaioko, hain zuzen; han, eragiketen %34 egin dira euskaraz. Kutzazain askotan, ordea, gaztelania nagusitu da alde handiarekin, erakundeak euskararen erabilera txikiak non jaso diren ere esan baitu. Eragiketen %95etik gora egin da gaztelaniaz Zorrotzan eta Kabiezesen, esaterako.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Udalekuetan parte hartu duten haur guztiek talde argazki erraldoia atera zuten Bizente Goikoetxea plazan. | JOKIN BEREZIARTUA



Amaitzeko, txokolate-jana egin zuten parkean. | J.B.

Amaierako festa borobila, "orain arteko onenak" izan diren udalekuetarako

Aurten 114 hurrek hartu dute parte eta nobedadeak izan dira ekintzetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Asteon amaitu dira udalekuak. Aurten, lehen aldiz, hezitzaileek haurrekin batera antolatu dute azken festa, martitzenean. Parkean elkartu ostean, Bizente Goikoetxea plazan egin zuten agur festako erakustaldia. Talde bakoitzak saio ezberdin bat antolatu zuen

herritarren aurrean erakusteko: herri kirolak, rock desfile bat eta Michael Jacksonen *Thriller* bideo-kliparen antzezpena egin zituzten, besteak beste.

Uztailaren 10ean hasi ziren udalekuak eta ordutik hona 114 umek ederto gozatu dute hezitzaileek prestatu dituzten ekintzekin.

San Martin eskolako ikasle gehienek egin dute bat udalekuekin, Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara arte.

Ohikoak diren ekintza arrakastatsuak egin dituzte aurten ere: Otxandioko igerilekuetara egindako irteera eta sanfermine-tako entzierro txikia dira horren

adibide. Hala ere, aurten nobedadeak ere izan dituzte. Asteleheneko eskalada ikastaroak, adibidez, oso harrera ona izan zuen nagusien artean. Era berean, aurten lehenengoz egin duten beste ekintza bat izan da Arexolako parrokoaren kanpai-hotsen erakustaldia: bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak aho bete hortz geratu ziren.

Azken festa, umeekin batera

Beste nobedade bat izan da amaierako festa haurrekin batera adostu dutela. Honela azaldu digu Ana Muñoa udalekuetako koordinatzaileak: "Bigarren egu-

nean parkean egindako batzar irekian erabaki genuen haurrekin batera azken festan zer egin. Orain arte hezitzaileek erabaki izan dute, baina aurten eurei aukera eman diegu. Oso ondo irten da".

Bada, udalekuen balorazio orokorra eskatuta, honakoa erantzun zigun Muñoak: "Udalekuak oso ondo joan dira, primeran. Eguraldiak asko lagundu digu eta umeak pozik ibili dira. Gurasoak ere etorri zaizkigu esatera orain arteko udalekurik onenak izan direla; irteera asko egin ditugu eta ekintza asko, inoiz baino gehiago".



ARAMAIOKO HERRIRA

Auzoko jaietan, 'Kanto' gogoan

Santa Marina jaiak ospatu zituzten joan den asteburuan Arriola eta Arexola auzoetan. Bertso afaria, txirritularitza proba, denetarik jolasak, meza eta dantzaldia izan zituzten, besteak beste. Eguraldia lagun, giro ederrean ibili ziren aste bukaera osoan. Auzokoa den Luis Mari Azkargorta *Kanto* euskal presoak izan zuten gogoan, urtero moduan: "Ea *Kanto* barik ateratzen dugun azken argazkia den".

Txirritolak postal lehiaketa antolatu du oporretarako; posta arruntez bidali behar dira, irailaren 15era arte

Opor giroa aprobetxatuz, Txirritola elkarteak postal lehiaketa antolatu du zortzigarren urtez. Posta arruntez bidali behar dira postalak, honako helbidera: Txirritola euskara elkarte, Kulturetxea, 01160, Aramaio (Araba). Txirritolako ordezkariak irailaren 15a baino lehen jasoko dituzte lanak eta originaltasuna eta euskararen erabilera baloratuko dute. Izan ere, postalak deskribapen labur bat izan behar du. Postal onenak 70 euroko bonua jasoko du eta bigarrenak, berriz, 30 euroko bonua.

Arrasate Musikaleko Kantu Eskolakoek San Martin eliza bete zuten

J.B. | ARAMAIO

Joan den uztailaren 19an goi mailako kantu kontzertu baten lekuko izan zen San Martin eliza. Bizente Goikoetxea abesbatzak Udalarekin eta Alaiak elkartearekin elkarlanean antolatuta, Arrasate Musikaleko Kantu Eskolako kideak eta zarzuelako emakumeen abesbatzak

ikusizun ederra eskaini zuten. Marta Izagirre eta Eduardo Artzamendi piano joleen laguntzaz, ohikoak ez diren ahotsen erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Kantu modernoak, habanerak, zarzuelako piezak eta operetako kantu lirikoak eskaini zituzten, besteak beste.

"Balorazio ezin hobea"

"Oso ondo egon zen. Aurrez bage-nekien oso onak zirela; bakarlariek zein zarzuelako abesbatzak sekulako maila erakutsi zuten". Bizente Goikoetxea abesbatzako presidente Bittor Kortabarriaren hitzak dira, kontzertu bereziaren gainean. Eliza bete egin zen: "150 lagun inguru batu ziren, arrakasta borobila izan zen. Balorazio ezin hobea egiten dugu". Kortabarriaren arabera, aramaioarrez gain hainbat arrasatearrek egon ziren: "Ia erdiak arrasatearrek izango ziren".

Bizente Goikoetxea abesbatzak irailan eskainiko du hurrengo kontzertua.



Eduardo Artzamendi piano-jolea eta zarzuelako emakumeen korua San Martin elizan. | BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA

ELGETA



Martitzenean egin zuen udalbatzak uztaileko osoko bilkura. | L.Z.

Etxebizitza hutsei aplikatutako errenergua erdira jaitsi dute

Kontribuzioa ordainduta daukaten etxejabeek dirua itzuliko die Udalak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Etxebizitza hutsak dituzten jabeek kontribuzioan %150eko errenergua aplikatzeko erabakia hartu zuen Elgetako udalbatzak urrian. Erabaki horrek alegazio ugari jaso ditu sei hilabeteotan, eta ordenantza aurreikusten ez dituen eta kontuan hartzekoak diren salbuespenak badaudela onartu du orain Udala Gobernuak. Hala, ordenantza zuzenketak egiteko proposamena aurkeztu zuen martitzenean osoko bilkuran. Aralar-Independenteen eta Bilduren aldeko botoekin —6 boto— onartu ziren zuzenketak. EAJko bi ordezkariak aurkako botoa eman zuten.

Errenergua erdira

Lehenengo eta behin, errenergua modu progresiboan aplikatzea

onartu du udalbatzak. Hala, aurren, %75 izango da errenergua kasu guztietan, eta ez %150. Bestetik, hiru salbuespen berri onartu dira: ez zaie errenergurik aplikatuko hiri-ordenaziotik kanpo dauden etxebizitzetara, errolda aldaketa ekainaren 30era bitartean egin duten herritarrei eta nahiz eta hutsik egon ustiatuta dauden baserriek. Bestetik, eta Bilduren ekimenez, plataforma bat sortuko du Udalak, non baserri-jabeek aukera izango duten ustiaketak gertu duten baserria eskaintzeko. Interesaturik balego, udaletxean egongo da errolda hori.

Aldeko eta kontrako iritziak

Bilduk begi onez ikusi ditu Udala Gobernuak proposatutako zuzen-

ketak: "Betiere, errenergua modu progresiboan aplikatzeko konpromisoa badago. Etxebizitza hutsei bizitza eman behar zaie", esan zuen Janire Lazkanok.

Patxi Basauri jeltzalea, ordea, oso kritiko agertu zen: "Urria hartutako erabakia bidegabea eta presazkoa izan zen, eta jeltzaleok horrela adierazi genuen bere egunean. Onartu behar dugu hanka-sartze ederra izan zela: alegazio asko jaso dira, eta sei hilabeteren bueltan atzera egin nahi dugu. Herritarrek ez dituzte horrelako erabakiak erraz ulertzen". Basaurik proposatu zuen Eusko Jaurlaritzak gaiaren inguruan lantzen ari den legea atera bitartean etxebizitza hutsei errenergurik ez aplikatzeko.

Eraikin zaharrei azterketa teknikoa pasatu behar zaie

Gastua murrizteko aurrekontu bateratua eskatzeko aukera eskaini die Udalak etxejabeek

L.Z. | ELGETA

1901ekoak baino zaharragoak diren eraikinen azterketa teknikoa —espainolezko ITE siglekin ere ezaguna— pasatu beharko dute urtea amaitu aurretik. Abenduaren 15ean indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek epe zehatzak ipintzen ditu etxejabeek hori bete dezaten, eta Elgetaren kasuan ere Udalak du kontu horren inguruko jarraipena egiteko ardura.

Astelehenean 30 bat lagun elkartu ziren Udalak deitutako informazio bileran. Bertan, hainbat azalpen eman zituzten Suradesako teknikari Luis Laskurainen eta Miren Argi Zeziagak. Oxel Erostarbe alkateak, berriz, gaiarekin lotuta Udalak egindako gestioen berri eman zuen.

Aurrekontu bateratua

Deialdia, oraingoz, 1901. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzetara jabeek egin diete. Udalak

interesaturik proposatu die aurrekontu bateratua eskatzeko, "gastuak murriztu aldera", esan zuen alkateak. Zenbait aurrekontu ere eskatu ditu Udalak, eta kopuruen berri eman zuen Erostarbek bileran. "Ideia bat egiteko: lau etxebizitza dituen eraikin batendako aurrekontua 550 euro + BEZ izan daiteke, lau etxejabeen artean ordaintzeko".

Udalak ez du inor eraikinen azterketa teknikoa egitera behartuko, baina aurrekontu bateratu batean parte hartzeko interesa duten etxejabeendako irailaren 15era arte epea zabaldu du udaletxean izena emateko. Informazio gehiago behar izanez gero, herritarrek Suradesako teknikari Miren Argi Zeziagarengana jo dezakete. Astelehen goizetan egongo da udaletxean.

Frontenis txapelketako bikoteek ere oporrak hartu dituzte; irailean ekingo diete, atzera ere, partiduei

Aste bukaera honetan ez da frontenis txapelketako partidurik jokatu. Parte-hartzaile asko oporretan daude, eta antolatzaileek erabaki dute txapelketaren azken txanpa opor ostera atzeratzea. Hala, irailean ekingo diete, atzera ere, txapelketari. Adierazi dutenez, liga erregularra amaitzeko bi jardunaldi gelditzen dira. Jarraian, finalerdiak eta finalak etorriko dira.

Rojo Cancionero y Banderas Rotas taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatuan, Espaloian

Miguel Hernandez, Paco Ibañez, Atahualpa Yupanqui, Sanchez Ferlosio... sentimenduaren hizkuntzarekin herriari abestu zioten poeten kantuek abesten dituzte Rojo Cancionero y Banderas Rotas taldea osatzen duten Salvador Amorrak eta Gabriel Ortigak. Elgetako Espaloia kafe antzokian izango dira bihar, zapatua, 21:30ean. Eguraldi ona bada, terrazan egingo dute zuzeneko emanaldia.

Salvador eguneko ospakizunak gertu dituzte; 16 eurotan daude salgai auzo-afarirako txartelak

Abuztuaren 6an urteroko meza esango dute Salvador ermitan; 12:30ean hasiko da, eta ondoren salda eta pintxoak banatuko dituzte, borondatearen truke. 18:30erako bolo tiraldia iragarri dute eta 21:30erako, auzo-afaria, Jose Gardokiren erromeriarekin. Menua da: esparragoak, urdaiazpikoa, errusiar entsalada, gisatua, flana, izozkia eta kafea. Ura eta ardo ondua ere menuan sartzen dira. Txartelak salgai daude Haizean eta kafe antzokian.



Amaitu dira udaleku irekiak

Herriko umeek dotore agurtu dituzte 2013ko udalekuak. Eguaztena izan zen azken eguna, eta Debako hondartzan egin zuten goiz-pasa 2-11 urte bitarteko neska-mutikoen. Udalak, orain, jasotako zerbitzuaren inguruan gurasoek duten iritzia jakin gura du. Banatutako galdera sorta betetzeko eta erantzunak udaletxera edo danonartian@elgeta.net postara bidaltzeko eskatzen diete.

LEINTZ GATZAGA

Abuztuko mediku zerbitzua Eskoriatzan da

Udalak, berriz, ohiko ordutegiarekin jardungo du, eta urte osoko arreta zerbitzu bera eskainiko du

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udako oporraldiaren eraginez, zenbait zerbitzu publikotan aldatetako izango dira datorren astelehenean (uztailaren 29a) iraileko lehenengo egunera arte.

Mediku zerbitzua izango da horietako bat. Osakidetza jakinarazitakoaren arabera, opor guztietan ez da aukerarik izango mediku zerbitzua Gatzagan bertan jasotzeko. Halakoetan ohi

den moduan, gatzagarrek Eskoriatzako anbulatziara jo beharko dute. Hori bai, alde aurretik txanda eskatu beharko dute norberaren medikuarekin, honako telefono zenbakira deituta: 943 71 44 52.

Udal zerbitzuak: aparejadorea

Udal zerbitzuei dagokienez, berriz, kasu horretan aldaketa bakarra izango da: ez da aparejadorerik izango.

Hortik aparte, Udalak ohiko ordutegiarekin funtzionatuko du,

eta herritarrei urte osoko arreta zerbitzu bera emango die: 09:00etatik 14:00ak arte. Besteak beste, jakinarazi dute organikoak batzeko kuboak dituztela bulegoan, eta, norbaitek halakoren bat behar badu, abuztuaren ere joan ahal dela eskuratzea.

Gizarte laguntzailea, berdin

Bestalde, gizarte laguntzaileari dagokionez, hark ere urte osoan moduan jardungo du lanean: martitzenetan 09:00etatik 14:00ak bitartean izango da Gatzagan.

Gogoan izan behar da, hori bai, gizarte laguntzailearekin izateko ere, alde aurretik txanda eskatu beharra dagoela, telefonoz deituta: 943 71 47 46.

Udal Pilotalekua

Eta urte osoan moduan funtzionatuko duen beste zerbitzu publiko bat Udala Pilotalekua izango da. Bestela esanda, egunero egongo da zabalik, erabili gura duen edozeinendako, aparteko ekitaldi, pilota partidu edo antzekorik ez bada, behintzat.

FUTBOLA, SASKIBALOIA

Kirola baino haratago, elkarbizitza eta balioak lantzeko udako campusak

- ▶ Futbol eta saskibaloia campusak izan dira Debagoienean uztailean; balorazioa egin dute
- ▶ Kirola bera lantzeaz gain, askotariko ekintzak egiten dituzte begiraleen laguntzarekin

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Askotariko eskaintzak egoten dira umeendako udako oporretan: udalekuak, atzerrira joatea hizkuntzak lantzerako, ikastaroak... eta kirola. Debagoieneko herri askotan udako kirol kanpainak egoten dira: adinaren arabera banatuta askotariko modalitateak egiten dituzte. Baina badago aisialdia eta kirola batzen dituen beste eskaintza bat: campusak. Kirola baino haratago, beste ezauzgarri batzuk dituen eskaintza. Debagoienean bi dira: Ointxe saskibaloia taldeak egiten duena, bata, eta Igor Arenatzak futbola hizpide hartuta egiten duena, bestea.

Biak ala biak bukatu dituzte, eta antolatzaileak asteon egon dira Goiena telebistako *Harmailatik* saioan. Campusen "balorazio positiboa" egin dute Larreategik eta Arenatzak. "Aberasgarria" da biek ala biek gehien erabili duten berba. "Neska-mutikoekin egotea oso aberasgarria da. Guk, begiraleok, asko ematen diegu, baina trukean jasotzen duguna ikaragarria izaten da. Asko ikasi dugu eurekin. Esperientzia itzela izan da", diote.

Saskibaloioa, trinkoa

Ointxek lehen aldiz astebeteko campus trinkoa egin du Zarautzen. Urtero Arrasaten egindako campusetik haratago, esperientzia berria probatu dute. "La Salle ikastetxean egon gara astebeteko. Zarautzik jasotako proposamena onartu genuenean, ez genekien neska-mutikoek nola erantzun zuten. 8-13 urte arteko 20 ume izan ditugu, eta oso pozik gaude", dio Larreategik.

Trinkoa izanda, goizean entrenamenduak egiten zituzten eta arratsaldeak bestelako ekintzak egiteko aprobeztatzen zituzten. Gainera, egoitza berean Bilbao Basketeko 40 neska-mutikoekin batera egon dira, eta horrek euren arteko elkarbizitza indartzeko balio izan die.

Etorkizuneko futbolariak

Etorkizuneko futbol jokalariei oinarriko balibideak emateko helburuarekin sortu zuen Igor Arenatzak *Geroa sortuz* futbol campusa. Aurten hirugarren aldian egin dute, uztailearen 2tik 12ra, bi txandatan. "Debagoieneko herri guztietako neska-mutikoak egon dira gurekin. Aurten, lehen aldiz, Soraluze futbol taldeko ordezkariak ere egon dira. Helburua? Futboleko diharduten edo futbola gustuko duten umeengana



Igor Arenatza eta Josu Larreategi, Harmailatik saioko platoon. | JAGOBA DOMINGO

heltzea. Izugarria da umeek erakusten duten konpromisoa. %100 inplikatan dira ekintzetan: diziplina eskatzen dugunean, diziplinatuak dira; eta aisialdirako ekintzak direnean, erlaxatu eta disfrutatu egin dute", esan digu Arenatzak.

Biek ala biek azpimarratzen dute horrelako campusak oso garrantzitsuak direla, kirolek haratago beste balio batzuk lantzen eta indartzen dituztelako. "Elkarbizitza, autonomia, ardurak, elkarren arteko hartu-emanak...



OINTXEKOAK ZARAUTZEN 20 neska-mutiko egon ziren Zarautzen saskibaloio campus trinkoan. Besteak beste, hango hiruko txapelketan parte hartu eta hainbat mailatan irabazi egin zuten.

Albistegirekin aulkian

Aretxabaletak abuztuaren 19an hasiko du denboraldi-aurrea. Dagoeneko "%90" eginda dagoela esan digu Arenatzak. Fitxaketa batzuk egin dituzte; besteak beste, Julen Zaitegik eta Imanol Rodriguezek jantziko dute urdin koloreko kamiseta.

Aulkitxoan ez da aldaketarik egongo: Alberto Albistegi izango da bigarren urtez UDAREN entrenatzailea. "Iaz egindako lanarekin oso pozik gaude, eta jarraipena izango du proiektuak".



ANOETAN REALAREKIN Geroa sortuz campuseko umeak Zubietan eta Anoetan egon ziren. Realaren entrenamendua ikusi, argazkiak egin, eta Anoetako museoa eta zelaia bisitatzeko aukera izan zuten.

Horiek lantzen ditugu, eta campusak irauten duen egunerokotasunean praktikan ipintzen ditugu. Gainera, euretako askorrendako lehen aldia da guraso barik oporretara doazena, eta erakusten duten jarrera oso heldua da. Bestalde, elkar hobeto ezagutzeko balio izan digute. Udako campusean egon diren umeek urtean zehar ere kirola egiten dute, baina hartu-eman oso bestelakoa izaten da. Elkarbizitza oso aberasgarria izaten da", diote Josu Larreategik eta Igor Arenatzak.

Neskatilak eta euskara

Umeekin lantzen duten beste arlo bat hizkuntza da. Hedabide gehienetan gaztelera erabiltzen den heinean, umeek elkarren artean futbolaz edo saskibaloiaz berba egiten dutenean, gaztelarako kontzeptuak erabiltzen dituzte. Larreategik eta Arenatzak euskara erabiltzearen garrantzia azpimarratzen dute: "Euskara jatorrean kirolari buruz ere berba egin daitekeela esaten diegu, eta kirolean erabiltzen diren kontzeptuak euskaraz ere badaudela erakutsi".

Era berean, biek ala biek azpimarratzen dute geroz eta neskatila gehiagok egiten dutela kirola. Euren antolatutako campusetan ere egon dira neskek. "Nesken presentziak aukera eman digu berdintasuna lantzeko: kirola egiteko ezaugarri berberak izanda, kirola egiteko aukera berberak izan behar ditugula. Neskek eta mutikoek elkarrekin egin behar dute kirola", diote.

Hainbat baja ditu MUK

Denboraldi bikaina egin zuen iaz Mondragon Unibertsitateak. Igoera fasea jokatzetik gertu geratu zen. Aurtengo, taldearen oinarria mantendu egingo dute, baina bi baja garrantzitsu izango dituela esan digu Larreategik: Ander Atxak Polonian masterra egingo du eta Andoni Arantzabalek Bartzelonarako bidea hartuko du, ikasketak egiteko.

Dena den, MUK talde gaztea dauka, eta bide luzea aurretik. Igoera izango da helburu nagusia.

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.net/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



MIKEL SEDANO RUEDA. 2012ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MIREIA AGUIRRE. 2012ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



GARAZI OLABARRIA. 2012ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kallitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - **Facebook bidez**, facebook.com/udakoargazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookeez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotolean Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI

zurekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizar | Txirrindularia

"Euskal zaleen babesa eskertu dugu, batez ere Alpeetan bizi izan dugunaren ondoren"

- Mendeurreneko Tourrean izan da Irizar
- Donostiako klasikoan izango da bihar oñatiarra

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Frantziako Tourra amaitu berri, Markel Irizar RadioShack taldeko txirrindulariarekin izan gara. Gustura dago egindako lanarekin; Froome liderrarengandik 2.59.39-ra amaitu du itzuli handia.

Amaitu berri den Tourraren gaineko balorazioa egiterik?

Beti espero duzu zerbait gehiago. Saikapen orokorrari begira, Andyrekin esperantza geneukan, baina ezin izan du aurrean egon. Hala ere, beste urte batzuetako sasoiaren ez zegoela bagenekien... Etapa bat irabazi dugu eta bi egunean maillot horia eramanez dugu. Talde moduan itxura ona eman dugula uste dut.

Zure lanarekin gustura zaude?

Lan egitera joan nintzen. Liderra ez baldin badago aurrean, zai-

lagoa da lan ona egitea. Erlojuaren aurkako etapa ondo egiteko ilusioa nuen arren, Andy sailkapenean aurrean zegoenez indarrak gordetzea erabaki genuen. Aukera askorik ez ditut izan; ihesaldi batean parte hartu nuen eta ondo ikusi nuen nire burua.

Uste zenuen moduan ibili zara?

Bai. Nik kilometro asko egin behar izaten ditut haizearen kontra, liderra babesten. 21

"Kilometro asko egiten ditut haizearen kontra, liderra babesten"

egunean horrela ibiltzeak indar barik uzten zaitu. Taldean oso baloratuta sentitzen naiz, asko eskertzen didate egindako lana, eta, alde horretatik, oso pozik nago.

Urtero moduan, Pirinioetan euskal zaleen babesa izan duzue.

Uste dut aurtengo Pirinioak ez direla izan euskaldunendako betiko Pirinioak: ez da egon Luz Ardiden, ezta Tourmalet ere. Horregatik, beste urte batzuetan baino jende gutxiago egon da. Baina, batez ere, Alpeetako giroa ikusi ondoren eskertu dugu euskaldunen jarrera. Alpeetan jendea edanda eta biluzik gure alboan korrika ibili da. Euskal zaleak ez dira horrelakoak. Animuak hasieratik bukaerara ematen dituzten zale bakarrak dira euskaldunak. Ura, Coca Cola, hotzaren aurka egunkariak... ematen dizkigute, beti errespetuarekin. Alde horretatik, gozamina da. Batetik, gure zaleak dira eta gure ikurrinarekin daude; baina, bestetik, gainerako txirrindulariek ere esaten dute ze zale onak diren.

Andy Schleckek euskaraz eskertu du euskal zaleen babesa.

Autobusean geundela, esan zidan zerbait egin gura zuela euskal zaleak eskertzeko. "Zer egin dezaket?", galdetu zidan. Nik esan nion gurekiko errespetu handia erakusten duela eta asko eskertzen dugula norbaitek esfortzu bat egitea gure hizkuntzan zerbait esateko. Andyk esan zidan berak ingelesez esandakoa



Markel Irizar. | RADIOSHACK

"Frantziarrek euren herrialdearen oso publizitate ona egiten dute"

nik euskaratzeko, eta halaxe egin genuen. Behin sarean jarrita, izugarriko oihartzuna izan zuen esaldiak. Eskerrak eman baino gehiago, euskal zaleei errespetua erakutsi gura zien Andyk. Txapeldun baten aldetik detaile polita izan zen 400 kilometro autoz egin zuten zaleei eskerrak ematea.

Zein izan da aurtengo Tourreko protagonista?

Bagenekien Froome oso indartsu zetorrela; eta Nairo Quintana ere, nire ustez, jakina zen ondo ibiliko zela. Nire ustez, sorpresa Movistar taldea izan da. Ez nuen uste horrelako alde izango zutenik. Talde onena izan da, alde handiarekin, gainera. Ondo ibili dira eta gauza arrarorik egin barik indartsuenak direla erakutsi dute. Merezki izan dute irabazi duten dena.

Mendeurreneko Tourra. Nolako izan da?

Orain dela bi urte baino estres txikiagoa izan dugu. Gainera, erakutsi dituzte Frantziako altxor guztiak. Euren herriaren publizitate oso ona egiten dute: Korsika, Niza, Saint Michel, Alpeak, Paris gauez... oso ondo saltzen dute euren herrialdea. Negozio handia dute Tourraren inguruan, eta gu zirku horretako azkeneko tximinoak gara. Edozelan ere, oso polita izan da! Aurten faktore asko izan dituzte alde eta podiumeko argazkia ere oso polita izan da: Froome, Quintana eta Purito Rodriguez.

ATLETISMOA

Erronka gogorra izango dute arrasatearrek Madrilgo Absolutuan

Denboraldia amaitzeko, Espainiako Txapelketa Absolutuan aukera bikaina

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Malen Ruiz de Azuak ez zuen Europako Atletismoko Txapelketan aurrera egin. Rietiko (Italia) txapelketan ez zuen lortu helburua, baina Madrilen aukera bikaina du denboraldia ondo amaitzeko. Italian, pertika-jauzilari arrasatearrek 3,65 metroak gainditu zituen, baita 3,80 metroak ere, baina ezin izan zituen 3,90 metroak gainditu.

Aste bukaera honetan beste erronka bat dauka Ruiz de Azuak, Alcobendasen (Madril). Espainiako Txapelketa Absolutuan parte hartuko du eta haren asmoa marka ona egitea da. Ruiz de Azuarekin batera Maialen Axpe pertika-jauzilari eta Iñigo Uribarren jauzi hirukoitzeko kirolari arrasatearrek ere han izango dira, euren markak ontzeko asmoz. Esperantza daukate hirurek, eta, batez ere, ikastera eta disfrutatzerara doaz. Ahal izanez gero emaitza onak lortuko dituzte, baina, horrela izan edo ez, landuago bueltatzeko itxaropenarekin doaz.

Ruiz de Azuak eta Axpek 4,01eko marka dute, eta, hura ondu edo ez, rankingeko 4. eta

8. postu artean geldituko direla uste dute. Badakite gogorra izango dela, baina ahal duten aurreneren gelditu nahi dute. Espainiako txapelketa orokorrean dauden lehen hiruren marka gainditzea

Talentu mailako kirolaria

Talentu mailako Gipuzkoako 12 kirolarien artean dago Ruiz de Azua. Hain zuzen ere talentu mailako kirolariak lurraldeko promesen artetik aukeratzen dituzte, haiei balorazio-zerbitzuak emanda.

Bada, maila gorenera irits daitezen beharrezkoak diren hainbat dohain hartzen dituzte kontuan aukeraketa egiteko orduan: kirol maila, konpromisoa, inplikazioa, ardura, lehiakortasuna eta esfortzua, besteak beste.

ia ezinezko ikusten dute, baina, denboraldiari amaiera bikaina emateko, emaitza onak aterako dituzten esperantza dute.

Iñigo Uribarren, aldiz, Espainiako txapelketan laugarrena da, eta, Jonathan Perez entrenatzaileak esan duenez, "zapora gazi-gozoa kentzeko asmoarekin doa". Lan txukuna egin nahi du Uribarrenek eta pozik bukatzea du helburua.

Ordutegi ona, baina beroa

Eguenean abiatu ziren hiru arrasatearrek Madrilera, errendimendu handiko zentro baten entrenatzeko. Bertan, goizean eta ilunabarrean entrenatuko dira, beroak ez itotzeko. Alde positibo bezala, hiru kirolariak zorte handia izan dute, ordutegi bikaina jarri diete eta. Malen Ruiz de Azuak eta Maialen Axpek zapatuan dute proba, 20:05ean. Iñigo Uribarrenek, aldiz, domekan izango du proba, 20:00etan.

Izan ere, beti ehuneko ehunegonea zaila da, baina motibatuta daude eta oportetara marka onarekin joateko ahal dutena egiten dute.



PATINAJEA

AGUSTIN OIANGUREN

Patinaje maratoian irabazle

Uztailaren 20an Calafateko (Tarragona) zirkuituan ilarako patinajeko 24 orduko proba jokatu zen, laugarrenez. Tarracopatinako hiru kidek (Jose, Miguel, eta Ramon), Joseba Aranek (zumaiarra), Jon Ander Egañak (bergararra) eta Ainhoa eta Agustin Oiangurenek (aramaioarra) taldea osatu zuten, gizonen maratoi mailan. Lehenak izan ziren iristen eta sailkapen nagusian zortzigarren postua eskuratu zuten.

ALPINISMOA

Handik bueltan liluratuta, Paju Peakeko hegoaldeko pareta berriz igotzeko asmoz

IMANOL BELOKI | ARETXABALETA

Paju Peakeko igoera alde batera utzita bueltatu dira Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabaltza alpinistak.

Astelehenean emandako prentsaurrekoan esan zuten, ez zaizkie gauzak nahi bezala ateratu. Izan ere, hegoaldeko paretak estilo arinegian igotzen

saiatu ziren, eta, eguraldia ez zutenez lagun izan, bueltan etorri behar izan zuten.

Helburuak merezi du

Erabat txundituta bueltatu dira, harribitxi bat aurkitu dute. Horregatik, datorren urtean berriz bueltatuko dira, beste saiakera bat egiteko asmoz.

Leize taldeko batera-jotzaile oñatiarra

- ▶ 2011. urtea ezkerro da Andoni Regueiro Leizeko taldekidea
- ▶ Abuztuaren 30ean Oñatiko Atzeko kalean joko dute

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
19 urte zituela hartu zituen Andoni Regueiro (Oñati, 1975) oñatiarrak lehenengoz batera jotzeko makilak eskuetan. Dudatan zegoen baxua edo batera aukeratu; Su ta Gar taldeak Arrasaten egin zuen kontzertuan, Borxa Arrillaga garai hartako batera-jotzaileak erabat liluratu zuenean erabaki zuen bateriaren aldeko hautua egitea, eta berehala eman zuen izena Musika Eskolan. Herriko lagunekin sortutako Alter Ego, segituan Lagash izena hartu zuen taldean eman zituen lehenengo kolpeak. Ondoren, Donostiako Rock Privadoko kide izateko proposamena jaso zuen; eta 2011. urtea ezkerro, Leize taldearekin gustura dabil.

Oñatiko Atzeko kalean izango dira, *Kalean* egitasmoaren barruan, abuztuaren 30ean, 22:30ean. Herriko Eko De Bul eta Hartzak taldeekin batera osatuko dute kontzertuko kartela.

Jarraitzailea, orain taldekide
Leizeren lehenengo diskotik izan da Regueiro taldearen jarraitzaile: "Sarritan joaten nintzen euren kontzertuetara, kantu guztiak

nekizkien. Miretsi egin dudana taldea izan da beti; Lagash taldearekin *Buscando... mirando* kantuarien bertsioa egiten genuela gogoratzen dut", dio Regueirok. Orain dela hiru urte, eurekin jotzeko proposamena egin zioten: "Arrasateko lagun batek eman zien nire izena. Ezin nuen sinistu telefonoa hartu eta Leizekoak zirela erantzun zidatenean. Martxoan zen eta apirilaren 29an Valladolideko Porta Caell aretoan egin genuen lehenengo kontzertua. Ikaragarria izan zen; hori bai, kirioak dantzan nituen!", kontatu du oñatiarrak.

Oso gustura dago orain, hasieratik sentitu bazuen ere guztien babesa. Honela aurkeztu dizkigu taldekideak: "Oso harreman ona dugu, bat gehiago izan naiz hasieratik. Felix Lasa da abeslaria eta gitarrista, duen ahots indartsuak eta transmititzen duen *feeling*-arekin bihotzeraino heltzeko abilezia du; Patxi Carrasco da gitarrista nagusia eta koruak egiten dituena, etengabe eztabaidan ari gara biak [Barreak] eta Toño Rodríguez baxu-jotzaile ipurterrea, sekulako figura da! Gozamina da bere saltsan ikustea".



Andoni Regueiro (eskuinean), Leizeko taldekideekin egin zuen lehenengo kontzertuaren ostean | LEIZE

ESANAK

"Lehen ere sarritan joaten nintzen euren kontzertuetara"

"Etxean lanak aurreratuta, astean behin elkartzeko gara"

ANDONI REGUEIRO | BATERA-JOTZAILEA

Entsegu lokala Zarautzen

Salbuespenak salbuespen, astean behin elkartzeko dira Zarautzen duten entsegu lokalean; hangoak dira gitarrak eta baxu-jotzaileak. Talde langilea eta zorrotza dela dio: "Etxean prestatzen du bakoitzak dagokion zatia; etxeko lanak eginda samurragoa da, lokaleko lanari etekina ateratzea. Detaille guztiak zaintzen dituzte, duten guztia ematen jarraitzen dute".

Soldata, baina, Zahorren irabazten du Andoni Regueirok azken zortzi urteetan, eta aurrez ostalaritzan lan egindakoa da. "Betidanik amestu izan dut musikatik bizi ahal izatearekin, hori da eta gustatzen zaidana; hala ere, ez nago kexatzeko moduan, guztiz betetzen nauen talde batekin nago-eta", dio oñatiarrak.

Udako kontzertuak

Jaioterrian jotzeko irrikaz dago: "Oñatikoa berezia izango da niretzako, orain urte batzuk ikusle moduan joan nintzen gaztelekura eta orain, berriz, euren bat izango naiz. Jende askok eskatu izan dit herriko jotzeko, eta azkenean, data jarri dugu! Aspaldiko lagunak ditut Eko De Bul-ekoak eta iaz egin genuen Leizeren 30. urteurren biran, elkarrekin jo genuen Gasteizen. Egiten dugunarekin gozatu eta gozarazteko ahalegin guztiak egingo ditugula segurtatzen dizuet".

Oñatikoaz gainera, agendan dituzte, besteak beste: Alacanteko *Leyendas del rock* jaialdia, Alfaron (Errioxa) izango dira abuztuaren 8an eta 9an eta Zarautzen, berriz, irailaren 27an.

Laster beste bi disko kalean

Esku artean dituzten proiektuen gainean galdetuta, laster bi disko kaleratzeko asmoa dutela azaldu du Regueirok: "Lehenengo aterako dena, 1988an kaleratu zuten *Devorando las calles* lanaren berrargitalpena da, betiko jarraitzaileek gustura hartuko dutena, seguru! Zuzeneko bat ere badugu grabatuta eta lan hori ere laster ateratzeko asmoa dugu".

Ez dira, baina, geldirik egotekoak, eta badabilta kantu berriak egiten ere: "Bi kantu berri ditugu, horietako bat *www.leize.es* orrian duzue entzungai. Orain arte jasotako iritziek diote gure izaera edo markarekin jarraitzen dugula eta hori gustuko dute zaleek, eta baita guk ere. Kantu berri gehiago ere sortzen ari gara, datorren urtean edo gurako genduke bilduma berria kaleratzea".

Hesiaren bi aldeetan egon denez, jarraitzaileei buruz galdetuta hau erantzun du: "Ustedut musika lehen beste indar batekin bizitzen zela. Hala ere, Leizeren lehenengo jarraitzaile gehienak hor daude eta poztekoa da zale gazteagoak gero eta gehiago direla ikustea".

Gorabeherekin bada ere, 30 urteko ibilbidea bizkar gainean

1982. urtean jaio zen Zestoan heavy eta rock gogor esparruan kokatzen den Leize taldea. Taldekideen joan-etorri ugariaren ostean, garai hartako formaziokoa da oñatiarrarekin egun jotzen duen hirukotea (Felix Lasa, Patxi Carrasco eta Toño Rodríguez). 1997an eten zen Leizeren ibilbidea, 2006. urtean berriz ere zuzenekoetara itzultzea erabaki zuten arte.

Bi maketa kaleratu ostean argitaratu zuten 1988. urtean *Devorando las calles* lehen lan luzea, laster berrargitaratu dutena. Harrezkero, beste zazpi lanek osatzen dute gipuzkoarren diskografia: *Buscando Mirando* (1989), *Acosándome* (1991), *Loca Pasión* (1993), *Todo por el suelo* (1995), *Esto es lo que hay*



Andoni Regueiro 2011. urtean hasi zen Leizekoekin jotzen. | LEIZE

(1997), *Sólo para tí* (2008) eta *Lo que faltaba* (2011).

Euskal Herrian jarraitzaileak baditu ere, etxetik kanpo izan du taldeak oihartzun handiagoa, Espainiako Estatuko heavy eta

rock gogor esparruan, talde erreferentetzat dute-eta adituek. Taldearen ikur dira soinu gordinarekin eta koru askorekin osatutako kaleko errealitateari buruzko kantuek.



Regueiro, Elorriko Peter Pan musikalean. | BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Musikaletan ere batera jotzen du

Aitor Aranburu, Regueiroren batera irakaslea, ordezkatu zuen 2009. urtean, Bergarako Musika Eskolak egin zuen *Miserables* musikalean eta baita uztailaren 7an Elorrioren egin zuten *Peter Pan* musikalean emanaldian ere. Partiturak lehenengoz eskuetan hartu zituenean beldurtu egin bazen ere, baiezkota eman zuen, oso gustuko du-eta orkestrarekin jotzea. Gogoz lan egin zuen makilak astintzeko zuen estilo rockeroa musikaletara egokitzeko.

Turkiako folklorea Bergarako San Martin plazan ikusgai, musika eta dantzez gozatzeko aukera

Gökmeydan Halkoyunlari taldeak Turkiako hainbat dantza taularatuko ditu gaur, 19:00etan

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Turkiako folklorea gertutik eza-gutzeko aukera egongo da gaur iluntzean, 19:00etan, Bergarako San Martin plazan. Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaial-

diaren 39. edizioaren saioetako bat izango da.

Portugaleten ez ezik, beste herri batzuen dantzak ikusteko aukera zabaltzen dute, eta gaur Bergararen txanda heldu da.

2004an sortutako taldea

Gökmeydan Halkoyunlari taldea 2004an sortu zen, gazteak euren herrialdeko kulturaren eta ohituretan hezteko; horiek gal ez daitezzen, ezinbestekoa delako dato-

zen belaunaldiei erakustea.

Eskaintzen dituzten kantu eta dantzen sortan, Bitlis, Diyarbakir, Artvin, Kilis, Izmir, Skopje, Adiyaman, Urfa eta Trabzon-eko probintzietakoak daude.

Arrakasta handia Turkian

Hogei dantzari inguruk eta bi musikaririk sortzen dute taldea, eta Turkian antolatzen diren lehiaketetan emaitza onak lortu dituzte urte hauetan. Jaialdiko beste ikuskizun batzuekin alderatuz, turkiarrenean musikak protagonismo handia du, erritmo eta intentsitate aldaketa ugari.

Beraz, martitzenean Beningo dantzariek Arrasateko Monterron parkea kolorez eta dantzez girotu bazuten, gaur, turkiarren eta bergararren txanda izango da, 19:00etan, San Martin plazan.

Natura iturburu hartuta, poesia, musika eta margoarekin inprobisatuko dute Arantzazun

09:30ean emango diote hasiera natura eta poesia batuko dituen egunari

J.D. | OÑATI

Arantzazuko basoetan, zu zeu olerkari! Ieloarekin, natura eta poesia batzeko saiakera egingo dute zapatuan Arantzazuko Parkean. Arantzazuk eskaintzen duen ingurune berezia aprobetxatu nahian, arte mota askotariko inspirazioa bilatuko dute.

Bidaia horretarako gidari paregabeak izango dituzte; besteak beste, Andoni Salamero poeta, Jon Goenaga piano-jolea eta Josu Maroto margolaria. Helburua da naturak eta poesiak bat egitea, eta, horretarako, bi ekintza antolatu dituzte: lehenengoan, Parke inguruan poesiaren ibilbidea egingo dute, eta bigarrenan, poesia, musika eta marrazkiak batuko dituzte.

Poesiaren ibilbidea

Naturan barrena poesia landuko dute bihar, Salamero poeta gidariaren eskutik. Esan bezala, Parke inguruan ibilbidea egingo dute, eta, bitartean, naturak eskaintzen dituen irudien gainean, poesiak egingo dituzte.

Salamero izango da gidaria, baina gerturatzen diren guztioi, sormenari lekua egin eta poesia



Andoni Salamero poesia saio batean. | ARANTZAZU GAUR

lantzeko deialdia egin diete antolatzailerik.

Gandiaga Topagunea

Gandiagan egingo dute eguneko bigarren ekintza. Bertan, poesia, musika eta marrazkiekin jolas egingo dute. Bidean ikusitakoaren inguruko poesiak pianoaren soinuekin bustiko dira eta marrazkiekin kolorez margotuko dira.

Guztia inprobisazioan oinarrituko da, sentsazioak marrazki, hitz eta doinuen bidez gor-

puztuta; horrela, magiari bere lekua utzita.

Izena emateko aukera

Izen-emate epea atzo bukatu bazen ere, antolatzailerik oraindik ere lekuak daudela esan digute. Beraz, esperientzia magiko horretan parte hartu nahi izanez gero, 09:30erako Arantzazun agertzea nahiko izango da. Prezioak honako hauek dira: bost euro helduentzako eta hiru euro ikasleentzako, hain zuzen ere.

La Maravillosa Orquesta del Alcohol Burgosko seikotearen folk-rocka Arrasaten

J.D. | ARRASATE

Monterrongo parkean ezohikoa den seikote bat ikusteko aukera egongo da zapatuan. Hilaren 27an, 22:30ean, La MODA-La Maravillosa Orquesta del Alcohol- ikusteko aukera paregabea egongo da. Udazabal programazioa borobiltzeko, folk, blues eta rock-and-rolla batzen dituen taldeak joko du.

Burgos ez da munduan ezaguna ekoizten dituen musika taldeengatik, baina, oraingoan, banjoa, mandolina, gitara, akordeoia eta saxofoia protagonista dituen taldea arrasatearrak konkistatzera etorriko da.

Bi urtez errepidean

Lehenengo lan luzea ez dute kaleratu oraindik, baina dagoeneko Europar barrena jotzen ibili dira eta Dropkick Murphys eta Frank Turner taldeekin konpartitu dute agertokia. Edozelan ere, tabernetan, pubetan edo kalean jota sortu dute taldearen nortasuna.

Esan bezala, lehen lan luzea kaleratu ez duten arren, taldeak bi urteko ibilbidea egin du, 80 kontzertutik gora eskainita eta bi lan labur argitaratuta. Lehen, *No Easy Road*, sei kantuz

osatua; eta bestea, zortzi kantuz osaturiko *The Shape of folk to come*.

Bi disko labur horiekin prentsaren eta publikoaren arreta lortu dute, soinu fresko eta dibertigarriak alderik alde eramanda.

'Nomadas', disko berria

2013ko udazkenean argitaratuko dute Mus Records diskoetxearekin. *Nomadas* diskoa Diego Galan produktorearekin eta Kaki Arkarazo soinu ingeniariarekin grabatu dute Andoingo Garate estudioan.

Interneten disko berriaren singlea izango den *Nomadas* kantua entzungai jarri dute dagoeneko, eta orain arte izan duten erantzuna ona izan da. Kantuarekin batera bideoak egin dute: bost eguneko Burgoetik Parisera egindako bidaia ikus daiteke bertan. Bidaia horretan, hainbat herritan seikotea kalean jotzen ikus daiteke, eta Parisen bertan ere, besteak beste, Eiffel dorrearen aurrean, Moulin Rouge kaba- retereko atean eta basilikako eskaileretan. Taldekideek diotenez, La MODAren kantuetan Nashvilleko whiskya, Irlandako guinnessa eta Errusiako vodka elkartzten dira.

Belceblues Donostiako Jazzaldian egongo da domekan, 22:30ean

Donostiako Heineken Jazzaldiaren 48. edizioan parte hartuko du hirukote bergararrak. Duela gutxi Memphisen egindako egonaldiaren dokumentala estreinatu ondoren, Kurasaaleko terrazan kontzertua eskainiko dute Ibonek eta bere mutilek domekan, hilak 28, 22:30ean. Debalde da.

Nazioarteko blues eta jazz musika maite dutenen aurrean jotzeko aukera paregabea da. Gainera, agertoki berean ez izan arren, Elvis Costello & The Imposters, Diana Krall eta Jamie Cullum artistekin bat egingo dute, programa- zioan bada ere.



Taupako terraza bete egin zuen Eddie Spaghetik

Euskal Herrian eskaini zuen kontzertu bakarra izan zen eta ikusmin handia sortu zuen. Bakarrik igo zen oholtzara, eta ordubetez disko berria eta klasikoak erreparatu zituen. Arratsaldea hotz samar hasi zen, baina Spaghetik urte asko daramatza herriak hanka gora jartzen eta berriz ere lortu zuen. *Cha cha cha!*



Amaia Errasti, *casual* estiloaz jantzia

Amaia Errasti | Ile-apaintzailea eta irudi aholkularia

"Telecinco katean eta 'Diez Minutos' aldizkarian lan egitea esperientzia polita izan da"

NAIARA URIARTE | ARRASATE

Amaia Errasti (Arrasate 1988) Ile-apaintzaile ikasketak bukatu zituen orain dela hiru urte. Urtebete lanean ibili eta gero, Madrilera joatea erabaki zuen, Irudi Aholkularitza modulua egiteko. Ikasketek Telecinco katean eta *Diez Minutos* aldizkarian lan egiteko aukera eman diote.

Zertan datza Irudi Aholkularitza? Goi mailako modulu honetan, irudi pertsonalaren inguruko hainbat esparru jorratzen dira. Alde batetik, itxura fisikoa lantzen da: arropa, ile-apainketa eta makillajea. Bestetik, irudiak komunikatu behar duena: komunikazio ez berbala, keinuak...

Azken finean, pertsonaia baten irudi fisikoa egituratu, eta, haren pertsonalitatea kontuan izanda,

gomendioak edo aholkuak eman behar ditugu.

Diez Minutos-en eta Telecincon egon zinen bekadun. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso esperientzia ona eta polita izan da. Izugarritzko suertea izan dut, praktikak Villarrazo Madrid komunikazio agentzian egin ditut -eta. Asko ikasi dut; bai pertsona moduan, bai profesional moduan. Izan ere, jende berria ezagutu dut, eta hau oso garrantzitsua da ogibide honetan mugitzeko. Gainera, pertsona orok zerbait interesgarria irakasten dizu. Bidaia-tzeko aukera ere izan dut; hala nola Kordoba, Tenerife, Lanzarote... Profesionalki, ostera, ikasitako guztia praktikan jarri dut. Baina aipatu beharra daukat batzuetan nahiko mundu faltsua

dela. Famate askok gauza bat esan eta beste bat egiten dute, eta haien artean laguntasunik ez dagoela konturatu naiz.

Zein zen zure eginbeharra Diez Minutos aldizkarian?

Modako erreportajeak egiten genituen, batez ere. Horiek prestatzeko, arropak aukeratu behar genituen: horretarako, *showroom* eta dendetara joaten ginen. Behin erropak bilduta, konjuntoak egiten genituen. Normalean, aldizkariak esaten zigen estiloa zein izango zen: *casual*, *bohochic*... Eta, horretaz guztiaz gain, modeloentzako *casting*-ak antolatzen genituen.

Eta Telecincon?

Villarrazo Madrid agentziak arropa firma dauka, eta hura ezagutzera emateko Telecincorekin

egiten du lan. Maria Teresa Campos kazetariak aurkezten duen *¡Qué tiempo tan feliz!* saiorako kolaborazioak egiten genituen. Hasiera batean, modeloen estiloaz arduratzen nintzen: arropak aukeratu, konbinatu eta modeloak jantzi; baina, ile-apaintzailea naizenez, agentziak modeloak orraz nezan eskatu zidan. Ilusio handiz hartu nuen erronka. Astero, sei bat pertsona orrazten nituen, guztiak orrazkera berekin -mototsak, ile kiribildua, lisoa...-, baina estiloaren arabera jokatu. Ondoren, begirunez begiratzen nituen nik egindako orrazkerak pantaila txikian.

Villarrazo komunikazio agentzian beste egitekorik?

Agentziak modazko blog bat dauka. Bertan estilo ezberdinak azaltzen dira. Egun bakoitzean bat, hain zuzen ere. Horretarako, lanean geunden guztiok dendetara joaten ginen jantziak har-

tzera, ondoren estilo jakin bat hautatu, eta argazkiak ateratzen genituen blogera igotzeko.

Ikasitako guztitik zer azpimarratuko zenuke?

Profesionalki hainbat esparrutan garatzeko aukera izatea. Segurtasuna ere eman dit.

Egun, irudia garrantzitsua da?

Bai. Pertsona bat ezagutzearan jasotzen dugun lehen informazioa, sentsazioa da. Baina informazio okerra ere jaso genezake.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Irudi aholkulari bezala jardutea gustatuko litzaidake. Beti ere, ile apainketa esparruari garrantzia emanez. Zoritxarrez, Euskal Herrian lan eskaintza gutxi daude, eta ile-apaintzaile gisa dihardut. Hala ere, ile-apaindegian bezeroak aholkatzen ditut, eta beraiek eskertzen dute.

Argi dut, bata zein bestean, irudi munduan kokatzen dudala nire burua.

PERTSONALA

Egunerokotasunerako jantzia:

Bakeroak

Liburu bat: *Moda Vintage*

Bizitzeko tokia: Euskal Herria

Ikusitako azken filma: *La casa*

Bidaia gustukoena: Mexiko

Orrazkera gustukoena: Ile lisoa

Janari bat: Amamak egindako errusiar entsalada

Bloga: Barbara Crespo eta Bartabac

Gustuko tokia: Hondartza

Hitz bat: Oraina

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Erdigunean. Guztiz berriua, kalitate oneko materialekin. 110 metro koadro. Hiru logela. Txokoa. Lorategi-lursaila. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 60 12 14

102. EROSI

Oñati. Etxebizitza erosi edota errentan hartuko nuke. Egokiena sukaldia, egongela, bi logela eta komunazatea litzateke. Garajea ondo legoke baina ez da ezinbestekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 02 32 67

103. ERRENTAN EMAN

Elgeta. Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean. bi logela, sukaldia eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 23 10 19

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzon. Lau logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 56 62 06

Zaragoza. Unibertsitate kanpusetik gertu. Dena kanpalderra. Lau logela. Egongela. Sukaldia. Bi bainugela. Garajea. Aire egokitua. 943 76 08 31 edo 659 58 56 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa, prezio onean. 679 60 08 48

Bergara. Bi edo hiruro logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Familia txikia. Interesatuok deitu honetara: 631 36 17 62

Bergara. Etxea hartuko nuke errentan. 609 38 86 47

Debagoiena. Bi edo hiruro logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 38 52 28

Gela bat alokatu nahi dut Eskoriatzan. 2013ko irailaren hasieratik abenduaren bukaera edo erdialdera arte gela bat alokatu nahi dut, Eskoriatzan. 39 urtetako emakumeuskaldun eta arduratsua naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 40 83 80

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Josean. Interesatuok deitu honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Erdigunean logela ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 33 73 89

Arrasate. Logela ematen da errentan Erguin kalean, unibertsitatetik gertu. 220 euro hila-betero. Wifiarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94379 97 91

Bergara. Logela ematen da errentan. 699 09 46 26

Bergara. Osintxun pisua osatzeko lagun bila nabil. Irailetik aurrera. Deitu zenbaki honetara: 670 02 31 90

Oñati. Bi logela alokatzen dira duplex bat osatzeko. Sukaldia eta egongela konpartitzeko. Etxe berria da eta erdigunetik oso gertu dago. Deitu eta animatu ikustera! 656 74 29 49

Oñati. Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaziguke. Deitu zenbaki honetara 20:00etatik aurrera. 653 74 87 51

Pisukide bilagabiltza. Bigela dauzkagu alokatzeko lau gelako duplex baten, Arrasaten. Prezioa: 200 euro hilabetea. Gastu guztiak barne. Internet, telefonoa, argia, ura, garbiketeta eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 679 84 49 20

2. GARAJEAK

201. SALDU

Elgeta. Salbador 21ean, garajea salgai. 650 23 10 19

Oñati. Garaje itxia salgai Arantzazuko Ama kaleko 21ean. Handia da eta autoa garbitzeko lekua dauka. 630 29 44 89 edo 946 76 19 24

204. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garaje edo garaje marra baten bila nabil, alokairuan, Aretxabaletan. Lau-sitatik gertu ahal bada, hobeto. 699 11 43 23

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da. 650 54 69 12

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska gertu nagusiak pasioan ateratzeko, orduka, edota garbitasun lanak egiteko. 629 80 77 73

Bergara edo Arrasate. Bergaran edo Arrasaten lana aurkitu nahi dut. Edozer lan egiteko prest nago. 602 87 46 25

Bergara. Emakume eskaldun arduratsua, puerkultura ikasketak dituen, umeak zaintzeko gertu. Arantza. 688 65 30 62

Bergara. Umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 943 76 52 39

Debagoiena. 49 urteko neska eskalduna gertu abuztuan nagusiak etxean edota egoitzan zaintzeko. 619 42 75 21

Debagoiena. Bikotea gertu baserrietan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

Debagoiena. Emakume arduratsua lan egiteko gertu. Dokumentuak egunean ditut. Disponibilitate osoa. Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko. 636 80 87 68

Debagoiena. Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusiak eta umeen zaintzan jarduteko. Esperientziaduna. Baita gauak egiteko ere. 722 32 43 67

Debagoiena. Emakume eskalduna lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko prest dago, esperientziaduna eta informeak dituen. Ospitaleetan gauak pasatzeko gertu dago. Autoa dauka eta disponibilitate guztia du. 671 35 22 60

Debagoiena. Emakume lan bila. Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena daukat. 696 32 13 69

Debagoiena. Emakume nagusiak zaintzeko gertu. Ordukan egiteko baita etxean bertan bizi izateko. Esperientziaduna. 671 21 55 26

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunak.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Gauetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita orduka ere. 610 99 42 03

Debagoiena. Gizonezkoa lan egiteko gertu. Kotxea daukat. Garbitasun lanak egiteko edo zerbitzari lanerako. Disponibilitate osoa. 631 43 36 08

Debagoiena. Goizez lan egingo nuke, 8:00etatik 13:00etara, edo baita gauaz nagusiak zaintzen ere. Sukaldean eta plantxa egiten dakit. Gidabaimena daukat. 602 36 39 92

Debagoiena. Hamar urteko esperientzia duen emakume lanerako gertu. nagusi edo umeak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Legezko paperak ditut. 634 11 31 09

Debagoiena. Lana egiteko prest: etxeko lanak, adinekoak edo umeak zaindu, edozein garbiketara, sukaldari laguntzaile eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 86 99 51

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu. Mekanika, elektrizitatea, informatika, parkea montatzen, margoketa eta abarretan lan egindakoa naiz. 619 75 80 01

Debagoiena. Mutila gertu lanerako, uda guztirako. Baita abuztuan ere. Ordu-tegi malgua. Autoa daukat. 654 98 69 14

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 602 07 32 82

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarako egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska eskalduna gertu nagusiak zaintzeko. Klinikak laguntzaile titularekin. Itsaso. 619 51 17 89

Debagoiena. Neska eskalduna lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaintzen zein ospitalean gauak egiten. Esperientzia eta informeak daukat. Autoa eta erabateko prestutasuna. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. 671 10 39 13

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egiteko, orduka, eta baita nagusiak zaintzeko ere. Langile eta arduratsua. Interesatuok deitu 678 93 69 29 telefonora.

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu Debagoienean edo kanpora. Geriatría tituladuna. Nagusiak zaindu edo ospitalean gauak pasatzeko. Kotxea daukat. 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasun lanetan. Egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Neyda Moran. 630 61 78 65

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzen jarduteko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. 636 77 44 24

Debagoiena. Sukaldari esperientziaduna lanerako gertu: menuak, pintxoak, plater konbinatuak edo bestela. Sukaldaritza ikasketekin eta urte askoan lanean aritutakoa. Aurel. 666 83 21 95

Lan bila. Garbiketarako egiten, nagusiak zaintzen, webguneak diseinatzen edota informatika programazioan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 04 15 45

Lan bila. Nagusi eta umeak zaintzen edo garbitasunak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 04 15 45

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Artzai txakurkumeak opari. Gorbeia arrazako artzai txakurkumeak ematen dira opari. Oso politak. 655 71 39 27

Katua opari. Zaindu ezin dudalako, katua ematen dut opari. Emea da eta hiruro urte ditu. Nahasketa da. Esterilizatua eta azakal barik. Beti etxean egon da eta ondo hezitua dago. Etxean hartu eta zaindu gura baduzu, deitu zenbaki honetara: 663 72 78 60 edo 943 79 14 36

Txakurkumeak opari. Border Collie eta euskal artzain txakurren arteko nahasketa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 06 89 66

704. BESTELAKOAK

Bi txakur galdu dira. Arratoi-txakur zuria eta Fox terrier grisa galdu dira Teilamendi inguruan. Ikusi badituzu mesedez deitu telefono honetara. 635 73 84 75 edo 665 74 41 98

Txakur bat agertu da Oñatin. Uztaiaren 16an, martitzena, txakur zuria-beltz bat agertu zen Oñatin, Uharkalde auzoan. Haren jabea baldin bazara Udaltzaingoan galdetu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 10 00

Txakurak galduta Aramaion. Hiru txakur galdu ziren martitzenean, uztailaren 2an, Aramaion. Spaniel beltz bat eta bi setter: bata zuri-beltza eta bestea zuri, gorri eta beltza. 662 28 92 69 edo 615 73 85 77

8. DENETARIK

804. HARTU

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko daukazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

806. GALDU

Betaurreko graduatuak. Arrasaten, Eroski zentro komertzialean edota Lidlen galdu ditut. Beltz koloreko monturadunak dira eta marratxo berdexka bat dute. Sokatxo beltz batetik zintzilikatuta neramatzala galdu nituen. Telefono hauetara mesedez. 943 76 54 83 edo 626 09 47 11

Olympus kamera Bergaran. Ekain bukaeran kamera galdu genuen Bergarako Santa Marina parkean. Niretzat balore handiko argazkiak daukat eta eskertuko nuke hauek errekeratzea. 943 76 15 36 edo 636 73 77 30

Samsung Galaxi Mini. Samsung Galaxi Mini markako mugikor berde bat galdu zen larunbat gauean, Portasoleko jaietan, Markole inguruan. Norbaitek jaso badu, mesedez deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko. 615 75 52 75

Zilarrezko pultsera. Zilarrezko pultsera galdu nuen uztailaren 6 eta 7ko asteburuan, Bergaran, Autobus geltokitik Artzamendi bidean. Eskertuko da. 943 76 52 39

808. BESTELAKOAK

Zelaia. Zelaia behar da, Bergara edo Sorraluze inguruan, denboraldi batez bi pottoka bertan edukitzeko. 639 09 95 22 edo 680 36 22 41

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Taldeak behar du Debagoienarako

AHOLKULARI KOMERTZIALA

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan jarduna.
- Lantaldean lan egitea.

Eskatzen da:

- Euskaraz ondo jakitea (ezinbestekoa da).
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Lantaldean lan egiten jakitea.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Teknologia berrietan ezagutza: Internet, sare sozialak, smartphoneak..
- Debagoienean edo inguruan bizi izatea eta hura ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali uztailaren 30eko 12:00ak baino lehen ondorengo helbidera: idazkaritza@goiena.com

Aukeraketa irailaren egingo da.

ASTEAGOIENAN



Antzuolako jaien saio berezia ikusgai

Aurten Antzuolako jaiak eman dutena batu dugu jaien gaineko saio berezi batean. Gaur, egubakoitza, eskainiko dizuegu saioa eta bertan ikusi ahal izango duzue, besteak beste, Mairuaren Alardea, larrain-dantza eta patata-tortilla lehiaketa.

'Antzuolako jaiak'
Egubakoitza, 22:40



Abuztuan bailarako albisteak, egunero

Abuztuan ez dugu etenik egingo Goiena telebista eta Debagoieneko azken orduko albisteak ikusi ahal izango dituzue astelenetik egubakoitzera bitartean, 10:45ean hasita, bi orduan behin eskainiko dizuegun *Berriak* telebista saioan.

'Berriak'
Astelehena, 10:45

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 26	ZAPATUA, 27	DOMEKA, 28	ASTELEHENA, 29	MARTITZENA, 30	EGUAZTENA, 31	EGUENA, 1
12:00 Planik bai?	10:00 28.Klip	10:00 Magazinea	10:00 Onein	10:00 Onein	10:00 Onein	10:00 Onein
12:20 Magazinea	10:30 Erreportajea	11:00 Zorion Agurrak	10:32 Ikusmira	10:30 Ikusmira	10:30 Ikusmira	10:25 Bideo klipak
13:05 Gurean gaur	12:03 Magazinea	11:05 Huhezinema	10:50 Berriak	10:48 Berriak	10:48 Berriak	10:45 Berriak
13:30 Huhezinema	13:03 Ikusmira	11:35 Onein	11:10 Hitzlandia	11:08 Hitzlandia	11:00 Hitzlandia	11:00 Hitzlandia
13:50 Pedalka	13:10 Klaketa	11:55 Ur eta lur	11:40 Huhezinema	11:38 Huhezinema	11:30 Huhezinema	11:30 Huhezinema
14:20 Planik bai?	13:51 Onein	12:28 Azpeitia dantzan	12:10 Magazinea	12:08 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
14:39 Zorion Agurrak	14:28 Berriak	13:18 Onein	12:25 Bideo klipak	12:23 Bideo klipak	12:15 Bideo klipak	12:15 Bideo klipak
14:45 Berriak	14:31 Onein	13:50 Magazinea	12:45 Berriak	12:46 Berriak	12:45 Berriak	12:45 Berriak
15:10 Eguraldia	14:43 AsteON	14:50 AsteON	13:05 Onein	13:06 Onein	13:05 Onein	13:05 Onein
15:13 AZK2012	15:13 Magazinea	15:20 Zorion Agurrak	13:40 AsteON	13:36 AsteON	13:35 Jaiak: Antzuolako jaiak	13:35 AsteON
15:43 Ikusten	16:13 Zorion Agurrak	15:25 Ikusmira	14:10 Kontzertua	14:06 Pedalka	14:30 Bideo klipak	14:05 Klaketa
16:26 Zorion Agurrak	16:18 Onein	15:32 Pedalka	14:45 Berriak	14:43 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak
16:32 Planik bai?	16:40 Pedalka	16:02 Planik bai?	15:05 Erreportajea	15:03 Kontzertua	15:05 Kontzertua	15:05 Kontzertua
16:56 Berriak	17:00 Huhezinema	16:22 Erreportajea	16:38 Ikusmira	15:33 Azpeitia dantzan	15:35 Pedalka	15:35 Udakoak
17:21 Eguraldia	17:30 Azpeitia dantzan	17:55 Klaketa	16:46 Berriak	16:23 Bideo klipak	16:05 Ur eta lur	16:10 Pedalka
17:24 Udakoak	18:20 Onein	18:36 Ur eta lur	17:06 Onein	16:45 Berriak	16:38 Ikusmira	16:40 Ikusmira
18:04 Erreportajea	18:52 Zorion Agurrak	19:09 Magazinea	17:36 Jaiak: Antzuolako jaiak	17:05 Onein	16:45 Berriak	16:58 Berriak
18:47 Planik bai?	18:57 Azpeitia dantzan	20:09 Berriak	18:31 Bideo klipak	17:35 Jaiak: Antzuolako jaiak	17:05 Onein	17:18 Onein
19:07 Berriak	19:47 Magazinea	20:24 Zorion Agurrak	18:45 Berriak	18:27 Magazinea	17:35 Kontzertua	17:48 Jaiak: Antzuolako jaiak
19:37 Eguraldia	20:47 Planik bai?	22:02 AsteON	19:25 Udakoak	18:45 Berriak	18:27 Bideo klipak	18:40 Berriak
19:42 Gurean gaur	21:07 Berriak	22:32 Magazinea	19:55 Klaketa	19:25 Udakoak	18:45 Berriak	19:20 Erreportajea
20:12 Planik bai?	21:22 AsteON	23:32 Erreportajea	20:35 Ikusmira	19:55 Klaketa	19:05 Udakoak	20:53 Berriak
20:37 Zorion Agurrak	21:52 Berriak	00:05 Berriak	20:45 Berriak	20:30 Ikusmira	20:05 Azpeitia dantzan	21:13 Klaketa
20:42 Berriak	22:07 Pedalka	00:25 Klaketa	21:05 Kontzertua	20:48 Berriak	20:54 Berriak	21:48 AsteON
21:07 Eguraldia	22:37 Magazinea	02:14 AsteON	21:57 Ikusmira	21:08 Erreportajea	21:14 Jaiak: Antzuolako jaiak	22:18 Ur eta lur
21:10 Gurean gaur	23:37 Berriak	02:44 Bideo klipak	22:15 AsteON	22:41 Berriak	22:06 Kontzertua	22:51 Berriak
21:40 Planik bai?	23:52 AsteON		22:45 Berriak	23:01 Udakoak	22:36 Bideo klipak	23:11 Klaketa
22:00 AsteON			23:05 Pedalka	23:36 Huhezinema	22:46 Berriak	23:29 Kontzertua
22:40 Jaiak: Antzuolako jaiak			23:35 Kontzertua	00:06 Berriak	23:06 AsteON	23:59 Berriak
23:25 Planik bai?			00:06 Berriak	00:26 Klaketa	23:36 Huhezinema	00:18 Berriak
23:45 Berriak			02:58 Bideo klipak			00:38 Eguraldia
						00:41 Erreportajea

ARRASATE IRRATIA

Musika 24 orduz entzun ahal izango duzue abuztuan

Arrasate Irratian musika eskainiko dizuegu abuztuan. *Uda giroan!* zuzeneko irratisaioak atsedean hartuko du hilabete horretan, baina, hala ere, estilo askotariko musika entzun ahal izango duzue eguneko 24 orduetan gurean. Beraz, abuztuan ere jarraitu 107.7ko uhinen konpainian.

Irailaren 2an itzuliko gara zuzenekoekin Arrasate Irratian

Uda giroan! irratisaioa udako oporren bueltan itzuliko da 107.7ko uhinetara: irailaren 2an, hain zuzen. Eta Maritxu Kajoi egunera arte, goizetan 10:00etatik aurrera disfrutatu ahal izango duzue zuzeneko saioarekin. Gero, *Igo autobusera!* irratisaioa itzuliko da berritara Arrasate Irratira.

ESKER ONA

Jose Ramon Celemin Galdos

M. Angeles Gorostizaren alarguna

2013ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ez zaitugu ahaztuko.

Arrasaten, 2013ko uztailaren 26an.

ESKER ONA

Jose Mari Larrañaga Alberdi

'Zorrozarritxa'

Antzuolan hil zen 2013ko uztailaren 21ean, 72 urte zituela.



Familiaren izenean eskerrik asko ondoan izan zareten guztioi.

Antzuolan, 2013ko uztailaren 26an.

ESKER ONA

Juana Elkoroberezibar Odriozola

Felipe Azpiazuren alarguna

Bergaran hil zen 2013ko uztailaren 17an, 81 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko uztailaren 26an.

URTEURRENA

Angela Santos Garcia

2012ko abuztuaren 11n hil zen, 52 urte zituela.



Urtebete da joan zinenetik eta egunero sumatzen dugu zure falta. Baina gurekin jarraitzen duzu, bihotzean zaitugulako.

Zure familia eta lagunak.
Arrasaten, 2013ko uztailaren 26an.

URTEURRENA

Angel Askasibar Montezubi

2012ko uztailaren 19an hil zen, 73 urte zituela.



Lehen urteurrenako meza domekan izango da, uztailaren 28an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Antzuolan, 2013ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Daniela Larruzea Furundarena

2013ko uztailaren 17an hil zen.



Laino guztien petik sasi guztien gainetik ordu laurden bat haruntza, beste bat honuntza. Ez garela, bagarela hamalau mila hemen garela.



Mila esker, Daniela! Sorginak Gatzagako emakume taldea.
Leintz Gatzagan, 2013ko uztailaren 26an.



Julio eta Miren

Julio Romano eta Miren Guridi oñatiarrek euren ezkontzaren 50. urteurrena beteko dute abuztuaren 3an. Zorionak, bikote, familia guztiaren partetik.



Karmele eta Bittor

Karmele Unzueta eta Bittor Agirre 1963ko abuztuaren 3an ezkondu ziren Aramaion. Sei seme-alabaren guraso eta zortzi bilobaren aitaita-amamak; uzta oparoa sortu dutena! Familia guztiarekin batera ospatuko dute urtemuga berezi hori. Zorionak, bikote!



Maria Jesus eta Jose Antonio

Bihar, zapatua, 50 urte beteko dira Maria Jesus Manterola eta Jose Antonio Lozano ezkondu zirela Musakolako San Isidro basilizan. Familia osoaren partetik, zorionak zuen urrezko ezteietan, eta urte askotarako!



Amaia eta Martin

Amaia Bengoa eta Martin Toro eskoriatzarrek uztailaren 30ean 30 urte beteko dituzte ezkondu. "Zorionak, bikote. Ondo pasatu eguna eta urte askotarako, etxekoan partetik. Besarkada potolo bat!".



Pepin eta Ixiar

"Uztailaren 23an, 25 urte bete dituzue elkarrekin. Beste horrenbesteren bila jarraitu. Zorionak eta ondo segi, denon partetik! Patxo handi bana".



Jaione eta Iker

Jaione Uriarte eta Iker Zaitegi arrasatearrak uztailaren 6an ezkondu ziren Arrasateko Udaletxean. "Oso ondo pasatu genuen eta oso egun polita izan zen denondako. Oso ondo pasatu Costa Rican eta oso zoriontsu izan!".



Garbiñe eta Pitxi

Garbiñe Beitia arrasatearra eta Pitxi Alonso aramaioarra gaur, egubakoitzan, Arrasaten ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Azkenean iritsi da egun handia. Etxekoan eta lagun guztien partetik, primeran ibili Thailandia aldean eta oso zoriontsu izaten jarraitu! Maite zaituztegu!".



Nerea eta Gorka

Nerea Mendiola eta Gorka Otxotorena gaur, egubakoitza, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu eguna eta ondorengo eztei-bidaia Estatu Batuetan zehar. Zuen lagunen eta familiakoan partetik, oso zoriontsu izan zaitetzela!".



Sonia eta Miguel

Gaur, egubakoitza, Sonia Chaves eta Miguel Huerta Artziniegan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Guztiok ondo-ondo pasatuko dugu, eta disfrutatu Maurizio! Patxo potolo-potolo bat kobazulo taldearen partetik!".



Javi eta Esti

Javi Martinez eta Esti Aguilera Gatzagako gatz museoan ezkonduko dira zapatuan. "Zorionak, familiakoan eta lagun partetik. Zapatua iristeko irrikaz gaude! Ongi pasatu Costa Rican, eta bueltan eta hiru etortzen zareten!".




Ainara eta Iker

"Ainara eta Iker, datorren uztailaren 27a zuen eguna izango da. Arrasateko udaletxetik pasatu eta gero, Oñatiko Etxe-Aundira joango gara zuen ezkontza ospatzera. Egun ezin hobea pasatzeko desiratzen gaude, bikote! Zorionak, familiakoan eta lagun partetik!".



Erika eta Mikel

Erika Fernandez eta Mikel Niño zapatuan, uztailaren 27an, ezkonduko dira Antzuolan. "Gozatu zuen ezkontza-egunaz eta ondo-ondo pasatu Thailandian! Zorionak, bikote, familiakoan eta lagun guztien partetik!".



Maitane eta Beñat

Maitane Larrañaga bergararra eta Beñat Madariaga oñatiarra bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Zoragarri pasatu eguna eta zoriontsu izan. Musu handi bat bioi, familiakoan eta lagun guztien partetik!".



Saioa eta Arnaitz

Saioa Sarrao eta Arnaitz Garai angiozartarrak abuztuaren 3an ezkonduko dira Elizamendiko Andra Marin. Familia eta lagun partetik, ondo-ondo ibili eta zoriontsu izan, bikote!

ARRASATE El Desv n del Macho

Hainbat urte isilik egon ostean, El Desv n del Macho talde arrasatearrak etxean joko du berririo ere. Ferrerias kaleko jaiak direla kontuan hartuta, egubakoitzean festa giroa jarriko dute. 90eko hamarkadan sortutako taldea da. *Simplicis* diskoa aurkeztuko dute.

Gaur, egubakoitza, Jai-Zale tabernan, 19:30ean.



GOIENA



LAGARTOON

ARRASATE La Maravillosa Orquesta del Alcohol

Burgosko talde horrek bi urte daramatza gelditu barik kantutak sortzen. Seikote akustiko originala osatzen dute: akordeoia, banjoa, mandolina eta saxofoia jotzen dute, eta folk, blues eta rock-and-roll doinuak sortzen dituzte.

Bihar, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean.

MUSIKA**BERGARA Carmen Maria abeslaria**

Madrilen bizi den Alacanteko abeslaria ezaguna da *Queen* eta *Nino Bravo* musikaletan abestu izanagatik. Bergarako emanaldian pop-rock proiektu berria aurkeztuko du. Emanaldia doan izango da.

Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean 22:30ean.

BERGARA Beatnblow

Berumuga 2013 jaialdiaren barruan Beatnblow Alemaniako taldearen emanaldia. Jazz, funk eta groove musika egiten dute.

Gaur, egubakoitza, Espoloiaren 22:00etan.

ELGETA Rojo Cancionero y Banderas Rotas, Espaloiaren

Miguel Hernandez, Paco Iba ez, Atahualpa Yupanqui, Sanchez Ferlosio... sentimenduaren hizkuntzarekin herriari abestu zioten poeten kantutak abesten dituzte Rojo Cancionero y Banderas Rotas taldea osatzen duten Salvador Amorr k eta Gabriel Ortigak.

Bihar, zapatua, Espaloiaren kafe antzokian 21:30ean.

O ATI Ro, BENEH eta Lukas Prest

Arrano taberna-elkartek 30. urteurrenaren ospakizunekin jarraitzen du. Zapatuan kontzertuak izango dituzte: Ro, BENEH eta Lukas Prest igoko dira taula gainera. Eskoriatzako taldeak bere betiko abestiak eskainiko ditu.

Bihar, zapatua, Arrano taberna-elkartean 22:00etan.

ARETXABALETA Herriko taldeen kontzertua

Andramaixen barruan, Gazte Iraultza, Freedom Boys, Grito de Rabia eta Besta Bat taldeek girotuko dute Andramari bezpera.

Abuztuaren 14a, eguaztena, txosna gunean 22:30ean.

ARETXABALETA DJ emanaldia Amaia Txintxurretarekin

Andramaixetan, Amaia Txintxurretak DJ emanaldia eskainiko du Herriko Plazan. Musikarekin girotuko ditu jaiak Txintxurretak.

Abuztuaren 14a, eguaztena, Herriko Plazan 23:30ean.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

UZTAILAK 26
ABUZTUAK 31**ARETXABALETA Milagroko musika bandaren emanaldia**

Andramaixetan Milagroko Musika bandak kalejira eta emanaldia eskainiko du.

Abuztuaren 15a, eguena, Durana kalean 13:30ean.

ARETXABALETA Bebe

Andramaixetan Bebe musikari eta abeslari ezagunak emanaldia eskainiko du Herriko Plazan. *Un pokito de rocanrol* laneko abestiak eskainiko ditu Extremadurako abeslariak.

Abuztuaren 15a, eguena, Herriko Plazan 23:00etan.

ARETXABALETA Izargi

Andramaixetan, Izargi talde gazte eta euskaldunak musika jarriko du Herriko Plazan. Dantzarako giroa jarriko dute jaietan, euskal abesti esanguratsuenak eskainita.

Abuztuaren 16a, egubakoitza, Herriko plazan 20:30ean.

ARETXABALETA Rat-Zinger, Egurra ta Kitto eta Eratu

Andramaixetan txosnagunea girotuko dute Rat-Zinger, Azpeitiko Egurra ta Kitto eta Eratu

taldeek. Eratu bigarren lana grabatzen dabil egunotan.

Abuztuaren 16a, egubakoitza, txosna gunean 23:00etan.

ARETXABALETA Kalejira, Mac Jeara's Band Beach taldearekin

Mac Jeara's Band Beach taldeak herriko kaleak animatuko ditu musikarekin. Kalejira egingo dute Andramaixetan, abuztuaren 17an.

Abuztuaren 17a, egubakoitza, herriko kaleetan 20:30ean.

ARETXABALETA Desira eta Los Zopilotes Txirriaos

Desira eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek kontzertua eskainiko dute txosnagunean. Andramaixetan izango da.

Abuztuaren 17a, egubakoitza, txosna gunean 23:00etan.

O ATI Leize, Eco D Bull eta Bagauda taldeen kontzertua

Gaztelekuak antolatatu duen Kalean 2013 egitarauaren barruan kontzertua eskainiko dute Leize, Eco D Bull eta Bagauda taldeek Atzeko kalean.

Abuztuaren 30a, egubakoitza, Atzeko kalean 22:30ean.

ANTZERKIA**ARETXABALETA 'Magiklown'**

Andramaixen barruan *Magiklown* magia eta clown emanaldia eskainiko du Sebastian Dunkerke artista paregabeak. Magia, umorea eta trebetasuna erabiliko ditu txikien eta ez hain txikien gozamenerako.

Abuztuaren 15a, eguena, Herriko Plazan 12:00etan.

ARETXABALETA 'Exodo' kale animazioa

En la Lona taldeak *Exodo* kale animazioa eskainiko du Andramaixetan. Paula Alfieri eta Andres Fesno dira antzerki taldeko kideak. Argentinan sortu zuten taldea, baina gaur egun Euskal Herrian bizi dira.

Abuztuaren 15a, eguena, herriko kaleetan 19:00etan.

ARETXABALETA 'Kolpez blai'

Andramaixetan Zo-Zongo antzerki taldeak *Kolpez blai* kale animazioa eskainiko du. Egubakoitzean izango da.

Abuztuaren 16a, egubakoitza, herriko kaleetan 18:30ean.

DANTZA**BERGARA Turkiako dantzen emanaldia**

G kmeidan Halk Oyunlai dantza taldeak saioa eskainiko du San Martin plazan. Folklore jaialdia izango da.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan 19:00etan.

JAIK**BERGARA Santa Ana jaiak**

Bolu auzoan Santa Ana jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran.

Aste bukaeran, Bolu auzoan.

ELGETA Salvador eguna

Salvador eguna ospatuko dute. 12:30ean, meza izango dute ermitan; 13:00etan, mokadutxo borondate truk; 18:30ean, bolo tiraldia; eta, 21:30ean, auzo-afaria.

Abuztuaren 6a, martitzena, Salvador auzoan 12:30ean.

O ATI San Lorentzoko jaiak

Abuztuaren 9an, 10ean eta 11n San Lorentzo jaiak ospatuko dituzte O atiko izen bereko auzoan.

Abuztuaren 9a, 10a eta 11, San Lorentzon.

OSPAKIZUNAK**O ATI Kubaren eguna ospatzeko festa**

Kubako eguna ospatuko dute zapatuan O atiko plazan. Esku-langintza produktuak eta koktel karibetarrak jarriko dituzte salgai. 13:30ean, folklore kubatarren erakustaldia egingo dute, eta euskal dantzen emanaldia. 14:30ean, herri bazkaria izango dute; 18:30ean, festa kubatarra zapo eta erritmo latindarrez lagunduta.

Bihar, zapatua, Foruen plaza 11:30ean

O ATI Lizargarate eguna ospatuko dute abuztuaren 25ean

Egitaraua: 11:00etan, hamaiketako izango dute; 12:00etan, herri kirolen erakustaldia; eta, 14:00etan, bazkaria. Bazkalostean, Erromeria Laja eta Lutzurdinorekin.

Abuztuaren 25a, domeka, Lizargaraten 11:00etan.



VIVIRLACULTURA.COM

O ATI Ainhoa Arteta

Ainhoa Arteta soprano ezagunak emanaldia eskainiko du Arantzazuko Santutegian. Donostiako musika hamabostaldiaren barruan izango da saioa. Artetari laguntzen Patxi Aizpiri piano-jotzailea izango da. Sarrerak 25 eurotan eros daitezke kutxabank.es atarian.

Abuztuaren 26an, astelehena, Arantzazuko Santutegian, 19:00etan.



GOKMEIDAN.COM

BERGARA Folklore jaialdia

Turkiako Gökmeýdan Halk Oyunlari taldeak dantza emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, San Martin plazan. Turkiako dantza tradizionalak eskainiko dituzte, eta ikusleak girotuko dituzte euren musika eta dantzarekin. Gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 19:00etan.

ERAKUSKETAK**BERGARA Unai Azkarate**

Artista bergararraren lanak Aroztegi aretoan daude ikusgai abuztuaren 25era arte. Aroztegiako ordutegia da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatutan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Abuztuaren 25era arte Aroztegi aretoan.

BERGARA Barbara Susanne Stammel-en erakusketa

Haren lanak abuztuaren 29tik irailaren 15era egongo dira ikusgai. Aroztegiako ordutegia da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatutan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara. Abuztuaren 29a, eguena, Aroztegi aretoan 18:00etan.

IRTEERA**ELGETA Frontea ezagutzeko ibilaldia**

Elgetako frontea ezagutzeko ibilaldia egingo dute. 6 urte arteko haurrek doan izango dute; 7 eta 16 urte bitartekoek 2 euro ordaindu beharko dute eta helduek, 5. Hiru ordu eta erdi inguru irauten du ibilaldiak. Izena ematea beharrezkoa da: 943 71 89 11 eta 943 79 64 63 zenbakietan. Bihar, zapatua, Espaloian 10:00etan.

HITZALDIAK**BERGARA Equo taldearen bilera**

Equo taldeak bilera deitu du uztaillaren 29rako. Gai ugari jorratuko dituzte; besteak beste, banku etikoen jarduerak eta kooperatiba energetikoak izango dituzte hizpide.

Uztaillaren 29a, astelehena, Kultur etxean 19:30ean.

BESTELAKOAK**BERGARA Txan Magoa**

Txantxetan magia ikuskizuna eskainiko du Santi Antero donos-

tiarrak. Txan Mago bezala eza-gunagoa egin da Antero Euskal Herriko gazteen artean. Abuztuaren 21a, eguaztena, Errotalde parkean (euriarekin pleno aretoan) 20:00etan.

ZINEMA**BERGARA 'Basalagunak'**

Basalagunak filma euskaraz eskainiko dute. Abuztuaren 6a, martitzena, San Martin plazan 22:00etan.

BERGARA 'Piratas' filma

San Martin plazan *Piratas* filma eskainiko dute. Abuztuaren 13a, martitzena, San Martin plazan 20:00etan.

BERGARA 'Bypass' filma

Euskaraz eskainiko dute *Bypass* filma. Abuztuaren 20a, martitzena, San Martin plazan 22:00etan.

BERGARA 'El lado bueno de las cosas' filma

El lado bueno de las cosas filma eskainiko dute abuztua bukaeran San Martin plazan. Abuztuaren 27a, martitzena, San Martin plazan 22:00etan.

DEIA**ARRASATE Azken ostiraleko kontzentrazioa**

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kontzentrazioa egingo dute Herriko Plazan gaur, egubakoitza.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan 19:30ean

OÑATI Kontzentrazioa Urbian

Presoen eta iheslarien aldeko elkarretaratzea egingo dute San Inazio egunean Urbian. *Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Presoak eta iheslariak herrira* lelopean egingo dute. Oñatiko Herrirak antolatu du ekimena. Uztaillaren 31, eguaztena, Urbian 12:00etan

ANTZUOLA Erreka garbitzea egingo dute

Gaztetxeak deituta Antzuolako erreka garbitzea irtengo dira eta ondoren bazkaria izango dute.

Uztaillaren 27a, zapatua, Antzuolako gaztetxean 10:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****MONTEIRON**

Win Win
Egubakoitza: 22:30.

BERGARA**GAZTETXEAN**

Film laburren maratonia
Martitzenean: 22:30

GASTEIZ**GORBEIA**

Lobezno inmortal 3D
Egunero: 18:45, 21:30.
Zapatutan, baita: 0:15.
Zapatutan, domekan eta jai egunean, baita: 16:00.

Lobezno inmortal 3D
Egunero: 19:45, 22:20.
Zapatutan, domekan eta jai egunean, baita: 17:00.

Niños grandes
Egunero: 20:20.
Zapatutan, baita: 0:40.

Ahora me ves

Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatutan eta domekan: 17:15, 19:30, 22:00, 0:20.

Gru 2
Egunero: 18:00, 20:10.
Zapatutan, domekan eta jai egunetan: 16:00.

After Earth
Egunero: 18:15, 22:30.

Star Trek: en la oscuridad
Egunero: 22:00.
Zapatutan, baita: 0:30.

El hombre de acero
Egunero: 22:10.

Monstruos University
Egunero: 17:40, 19:50.
Zapatutan, domekan eta jai egunetan: 15:30.

The purge: la noche de las bestias
Zapatutan, domekan eta jai egunetan: 16:20.

BOULEVARD

Tres-60
Egunero: 18:40, 20:40, 22:40.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:40.
Zapatutan eta domekan, baita: 16:40.

Lobezno 3D
Egunero: 21:00.
Zapatutan eta domekan: 15:30.

Lobezno
Egunero: 18:15, 19:15, 22:00.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 23:45.
Zapatutan eta domekan, baita: 16:30.

Expediente Warren
Egunero: 17:55, 20:10, 22:25.
Zapatutan eta domekan, baita: 15:40.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:40.

Ahora me ves
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:40.
Zapatutan eta domekan, baita: 15:40.

La hipnotista

Egubakoitza eta zapatutan: 0:00.

Llevame a la luna
Egunero: 18:40.
Zapatutan eta domekan, baita: 16:40.

Niños grandes
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.

The purge: la noche de las bestias
Egunero: 20:35, 22:35.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:35.

Star trek: en la oscuridad
Egunero: 22:25.

After Earth
Egunero: 20:45, 22:45.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:45.

El hombre de acero
Egunero: 21:30.
Egubakoitza eta zapatutan, baita: 0:15.

Monstruos University
Egunero: 18:15.
Zapatutan eta domekan, baita: 16:00.

Gru 2, mi villano favorito 3D
Zapatutan eta domekan: 16:00.

Gru 2, mi villano favorito
Egunero: 17:30, 18:30, 19:30, 20:30.
Zapatutan eta domekan, baita: 15:30, 16:30.

FLORIDA

Ahora me ves
Egubakoitza eta eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Monstruos University
Egubakoitza: 17:30.
Zapatutan eta domekan: 12:00, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Llevame a la luna
Egubakoitza eta eguenera: 20:00, 22:30.

Zarafa
Egubakoitza: 17:00.
Zapatutan eta domekan: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Violeta se fue a los cielos
Egubakoitza eta eguenera: 18:30, 22:30.

Keep the lights on (VOS)
Egubakoitza eta eguenera: 20:30.

Lobezno inmortal
Egubakoitza eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Cautiva
Egubakoitza eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Gru 2: mi villano favorito
Egubakoitza: 17:15.
Zapatutan eta domekan: 12:00, 17:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

La mejor oferta
Egubakoitza eta eguenera: 20:00, 22:30.

Una canción para Marion
Egubakoitza eta eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

KRITIKA**LA MEJOR OFERTA ★★★★★**

Zuzendaria: Giuseppe Tornatore.

Herrialdea: Italia.

Urtea: 2013.

Aktoreak: Geoffrey Rush, Kim Sturgess, Sylvia Hoeks.

Iraupena: 124 minutu.

Izaera eta pertzepzioa

Giuseppe Tornatorek, *La mejor oferta*-n, thrillerra eta amodioa nahastu ditu. Istoriaren protagonista artean aditua da. Erraz nabaritzen du lan bakoitzaren benetako balioa; ez du arazorik izaten agertzen diren faltsifikazioak igartzeko. Eta trebetasun horrekin artelanak katalogatzen ditu, enkanteak zuzentzen ditu eta, trikimailu batzuen bitartez, bere bilduma pribatua (emakumeen erretratuak) osatzen dabil. Virgil, Geoffrey Rushek modu zoragarrian egiten duen pertsonaia, gizon bakartia eta hotza da, mokofina eta baita harroputza ere. Dituen ohiturengatik eta itxuragatik, beste garai bateko pertsonaia

ematen du. Laneko harremanak bakarrik mantentzen ditu. Lanerako eta bere bilduma handitzeko bizi da. Baina, egun baten, lan kontuak direla-eta, neska gazte misterioitsu bat ezagutuko du. Neska ez da bere etxetik irteten, ezkutaturik bizi da, eta ez du inorekin harreman zuzenik izaten. Virgil neskaren etxean dauden pieza solte batzuk batzen eta katalogatzen ari da; baina, bien bitartean, neska enigmatikoaren liluratuagoa sentituko da.

Hala, amodio istorio baten prozesua eta Virgil jasaten dabilen sentimendu eta portaeraren aldaketa ikusiko ditugu. Harreman horietan zerbait arraroa dagoela

susmatuko dugu; hor dago misterioa eta thrillerraren usaina. Ikusleak pertsonaiak dituen datuak ditu; baina, gainera, antzerman dezake Virgilek ordura arte izandako bizitza kili-kolo dagoela. Azken finean, filmak kontatzen du bakoitzak nahi duena ikusten duela. Hau da, gure izaeraren arabera jasotzen eta interpretatzen dugula gure aurrean dagoen guztia.

La mejor oferta gustura ikusten da. Agian, Tornatorek distantzia handiegia hartzen du istorioarekin. Hau da, pertsonaia nagusiaren izaerarengatik kutsatuta, ez dio amodio istorioari behar duen sakontasunik eman.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-07-26

BUKATZEKO

"Oso zaila da monoziklotik jaustea"

- ▶ Errobera bakarraren gainean ibiltzeko zaletasuna du Andoni Medina gazte arrasatearrak
- ▶ Tolosan (Frantzia) zapatuan hasita egingo den monoziklozaleen topaketan parte hartuko du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Andoni Medina gazte arrasatearrak badauka zaletasun bitxi bat: monozikloan, errobera bakarraren gainean ibiltzen da. Eta, datozen egunotan, Tolosan (Frantzia) egingo den topaketa baten parte hartuko du. Izan ere, hiri horretan Europako Malabaristen Topaketa egiten dute urtero. Monoziklisten topaketa eta txapelketa ere hartzen du hiri horrek urtero, eta aurten, biak aste berean egingo dituzte. Hain zuzen ere, monoziklistendako gune bat egongo da, eta gura duten zale guztiak ibili ahal izango dira bertan. Hantxe egongo da Andoni Medina ere.

Urbian behera, "erraz"

Monozikloan ibiltzeko ez da egun berezien zain egoten Medina: "Batez ere, kalean ibiltzen naiz, eta mendian zehar pixka bat ere bai. Ez naiz lar mendizalea, baina jaitsiera batzuk egin izan ditut. Igo oinez igotzen naiz, eta monozikloan jaitsi". Urbian behera joan zen orain dela gutxi, eta "nahiko erraza" iruditu zitzaion: "Aldapa handirik ez dauka, ezta harri askorik ere".

Monozikloan ibiltzeak arriskutsua dirudien arren, Medinak esan digu ez dela horrenbestera-



Andoni Medina, monozikloan Navacerradan, Madrilén. | ANDONI MEDINA

ko: "Sekulako muturrekoak hartu behar dituzula ematen du, baina... bai, zera! Zaila da jaustea, zutik gelditzen zarelako".

Ikusi eta hurrengo egunean

Orain dela hiru urte hasi zen Medina: "Gauza bitxiak gustatu izan zaizkit beti. Telebistan, monozikloko ibilbide bat ikusi nuen halako baten, eta hurrengo egunean probatzea erabaki nuen. Gasteizen erosi nuen monozikloa eta Interneteko bideoekin ikasi nuen ibiltzen. Astebete nahikoa da".

120 kilometro

Arrasaten monozikloan norbait ikusteak oraindik "atentzioa ematen" duela diosku: "Jendea begira geratzen zait. Denetarik ere entzuten da. Baina, azkenean, ohitu egin naiz eta ez dut jaramonik egiten".

Markarik egiteko asmorik ez du Andonik. Baina badaude bestelakoak ere: "Entzun izan ditut 120 kilometro-eta egin izan dituen jendearen kasuak. Orain dela gutxi entzun dut aleman batzuek monozikloan egin gura dituztela Pirinioak, baina, aldapan gora joatea oso zaila denez, monozikloa aldapan behera etortzeko erabiko dutela pentsatzen dut".

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Auzolandegiak urte osoan

Badira urte batzuk Bergaran belaunaldien arteko harremanak lantzeko auzolandegiak antolatzen direla uztailen. Pasa den astean Mizpirualde egoitzako Iñaki egoiliarra eta auzolandegietako Bilboko neska bat entzun nituen irratian. Biek ala biek esaten zuten zein garrantzitsua izan den beraiatzat belaunaldien arteko harreman hau deskubritzea eta bizi-tzea.

Baloreak krisian egon daitezkeen honetan, pozgarria da entzutea jende nagusiak zein gustura hartzen duen gaztearen haize freskoa eta gazteak zenbat ikas dezakeen helduarengandik.

Zergatik mugatu ekimen hau uztaileira?

Saiatu gaitzke urrats bat ematen eta ekimen hau urte osora zabaltzen auzolan ariketa iraunkorra eginez?

Udalak har dezake antolatzeko ardura, gazteek beraien denbora librearen zatitxo bat eskaini hartu eta eman dakarren ekimenari eta Mizpirualdek programa laguntzeko ekimenak antolatu.

Auzolana gure identitatearen parte da. Guztiok izan gara gazte eta izango al gara nagusi.

Norbaitek jaso nahi badu, nik bota dut erronka.



Ziklistak: bakarrik ez joan, euri-haize gogorraz ez irten, seinaleei kasu, kamioien babesean ez jarri

**Errespetatu dezagun.
Errespetatu gaitzazu.**



Ikusi bideoa:
goiena.net/gaia/errespetatu

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena